ararteko

**Herriaren Defendatzailea** · Defensoría del Pueblo

# Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2022

## Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena



ararteko

Herriaren Defendatzailea

*Defensoría del Pueblo*

www.ararteko.eus

ararteko

Herriaren Defendatzailea

*Defensoría del Pueblo*

# URTEKO TXOSTENAK

# Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena

# 2022

## Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena

ararteko
Herriaren Defendatzailea
*Defensoría del Pueblo*

Vitoria-Gasteiz 2023

Lan hau Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa (CC BY 4.0) lizentziapean dago

Lan honen **bibliografia-erregistroa** Arartekoko liburutegiaren katalogoan kontsulta daiteke

**Formatuak eta edizioak:**
Paperean ere bai: Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena 2022 (ISSN 2255-484X)
Gaztelaniazko edizioa: Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia 2022 (ISSN-e 2255-4947)
Honekin batera argitaratua: Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2022 (ISSN-e 2255-4939)
Dibulgaziozko edizioa: Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2022. Laburpena (ISSN-e 2255-4912)

**Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:**
– web gunean
– posta elektronikoz eskatuz
– aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO
Itzulpena: Hori Hori S.A.L.
Diseinua, maketazioa eta inprimaketa: Editorial MIC
ISSN-e 2255-4947

# Aurkibidea

# AURKIBIDEA


**AURKEZPENA** ..... 11

**I. KAPITULUA**
**Arauzko testuingurua eta testuinguru soziala** ..... 13

**1. Nazioarteko eremua: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa eta horren garapenak** ..... 15
**2. Europa: Haurren Eskubideei buruzko EBren Estrategia (2022-2027)** ..... 17
**3. Estatu eta autonomia erkidego eremua** ..... 17

**II. KAPITULUA**
**Eskubideak urratzea? Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak** ..... 19

**1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espedienteak: gerturatze kuantitatiboa** ..... 21

**2. Arriskuan dauden eskubideak** ..... 22

2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea ..... 22
2.2. Hezkuntzarako eskubidea ..... 27
2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea ..... 32
2.4. Familia babeslea izateko eskubidea ..... 39
2.5. Osasunerako eskubidea ..... 42
2.6. Haurren eta nerabeen eskubideak justiziarekin dituzten harremanetan ..... 44
2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea ..... 46
2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea ..... 47
2.9. Ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarrirako eskubidea ..... 51

**III. KAPITULUA**
**Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan hartua izateko eskubidea: Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua** ..... 53

**IV. KAPITULUA**
**Haurren eskubideak sustatzea: gizartearekiko harremanak eta erakundeen lankidetza** ..... 59

**1. Nazioarteko sareetan eta ekitaldietan parte hartzea** ..... 61
**2. Espainiako beste defendatzaile batzuekin lan egitea haur eta nerabeen eskubideen arloan** ..... 62
**3. Gizarte-eragileekiko lankidetza** ..... 63
**4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetza** ..... 63
**5. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren onarpena ospatzea** ..... 64

**V. KAPITULUA**
**Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren 2022ko jarduketen laburpena** ..... 65

# Aurkezpena

Aurkeztera goazen agirian bilduta daude Ararteko aren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2022. urtean egindako jardueraren elementurik esanguratsuenak. Gogorarazi nahi dugu, aurten ere, erantsitako txostenaren formatua daukala, hau da, osotasun integratu baten (Ararteko ak Legebiltzarrarentzako egin duen 2022. urteko txostena) zatia izanda ere, modu independentean irakur daitekeen agiria egin dugu. Horrela, erakundearen antolaketarekin eta funtzionaltasunarekin lotutako errealitatea islatzen du, talde bereziki ahul horri dagokionez: Ararteko erakundearen jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduerak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek neska-mutilen interes gorenari ematen dio lehentasuna, eragindako eremua edo bizitzaren alderdia edozein dela ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa bost kapitulutan egituratuta dago. Lehenengoan, haur eta nerabeen eskubideen gaineko gizarte- eta arau-testuingurua azaltzen da, horretan jarduten baitu bulegoak.

II. kapituluan, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta, ikusitako arazo nagusiak aipatzen dira, arriskuan ikusitako eskubideen inguruan bilduta. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziozko ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren; foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikaskuntzak errepasatzen dira.

III. kapituluan zehazki azaltzen da zer-nolako jarduera burutu duen haur eta nerabeentzako gure partaidetza-organoak: Haurren eta Nerabeen Kontseiluak.

IV. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jarduera bildu ditu.

Azkenik, V. kapituluan agirian barrena azaldutakoaren laburpena egiten da, elementu garrantzitsuenak azpimarratuz eta, zenbaitetan, gertatutakoarekin lotura duten joerak eta gogoetak adieraziz.

# ARAUZKO TESTUINGURUA ETA TESTUINGURU SOZIALA

I.

kapitulua

# I. KAPITULUA

# ARAUZKO TESTUINGURUA ETA TESTUINGURU SOZIALA



Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jarduera erakundearen ardatz estrategiko nagusiei jarraiki bideratu ohi da, gizarte- eta arau-testuinguru jakin batean. Testuinguru horri erantzuten ahalegintzen da eta, aldi berean, testuinguru horrexek mugatzen eta baldintzatzen du hori egiteko modu zehatza. Ildo horretan, kapitulu honek helburu hau du: haur eta nerabeen eskubideei dagokienez, nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legerian 2022. urtean gertatu diren berri nagusiak ezagutaraztea.

## 1. Nazioarteko eremua: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa eta horren garapenak

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

Neska-mutilen eskubideei dagozkien eta horiek bermatzen dituzten nazioarteko hainbat tresna berretsi ditu,, horietan aipatzen diren herritarren zati bat direnez (eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, emakumeen eskubideak, desgaituen eskubideak…). Hala ere, haur eta nerabeen eskubideetarako erreferente nagusia Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (aurrerantzean, HEK) da. Hori aho batez onartu zuen Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Batzarrak, 1989ko azaroaren 20an, eta Espainiak 1990eko abenduan berretsi zuen. HEK modu unibertsalean onartu den haurren eskubideen katalogoa da eta, aldi berean, estatuek errespetatzeko, bermatzeko eta betearazteko dauzkaten betebeharrak ezartzen ditu.

Konbentzioak, lehenengo bi artikuluetan haurren arloan erakundeen ekintza guztiak bideratu behar dituzten funtsezko bi printzipioak ezarri zituen: bereizkeriarik ezaren printzipioa eta adingabearen interes gorena. 6. artikulutik aurrera, lau eskubide multzo handi zerrendatu dira: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera izateko eskubidea, haurren eta helduen artean baliabideak banatzekoa; **Sustapena**, alegia, erabat garatzeko eta osasun eta hezkuntza maila gorenak izateko eskubidea; **Babesa**, hots, gurasoen eta profesionalen zainketak jasotzeko eskubidea eta ekintza eta praktika neurrigabeak jasan behar ez izatea; eta **Parte-hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nork bere kabuz adierazpenak egiteko eta banaka zein taldean hitza izateko eskubidea.

Horrez gain, beste bi premisa hauek kontuan hartu behar dira: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzeari dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundeen eta gizartearen ardura partekatua.

Aukerakoak (hautazkoak) baziren ere, Espainiak ere sinatu eta berretsi ditu Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko (HEH) hiru protokoloak. Protokolo horietan babes kontuak aipatzen dira: HEHren Hautazko Protokoloa, gatazka armatuetan haurren parte hartzeari buruzkoa; HEHren Hautazko Protokoloa, haurren salmenta, haurren prostituzioa eta pornografian haurrak erabiltzearen gainekoa; eta HEHren Hautazko Protokoloa, komunikazio prozedura baten ingurukoa. Azken protokolo horrek mekanismo bat ezarri du haurrek edota euren ordezkariek salaketa jarri ahal izan diezaioten beren eskubideak babesten **espezializatutako** nazioarteko batzorde bati, eskubide horiek urratuak izan direla uste badute. Beraz, modu zabalago eta indartsuagoan onartu dute haurrak eta nerabeak eskubideen subjektu direla.

2022an, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (VII. zikloa) Espainian nola betetzen ari den jakiteko jarraipen-prozesua hasi da. Berez, lehenago hasi behar zuen, baina, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko konfinamendu eta murrizketengatik, Batzordeak atzeratzea erabaki zuen. Bada, prozedura sinplifikatu berrian ezarri bezala abiatu da prozesua: gizarte zibilak (haurren eskubideen aldeko erakundeek, haurren aldeko gizarte-erakundeek eta abarrek) zerrenda bat aurkeztu du, Espainiako Estatuari eska dakizkiokeen konturik garrantzitsuenak jasotzeko. Arartekoak parte hartu du prozesuan, 2017ko edizioan bezalaxe, eta, Andaluziako Haur eta Nerabeen Defendatzailearekin eta Kataluniako Síndic de Greuges-en haur eta nerabeen atalarekin batera, hiru erakundeek lehentasunezkotzat jotako bederatzi gaiak aurkeztu ditu, Espainiako Estatuari gaioi buruzko informazioa eskatzeko.

2022an, haurren eskubideei eta ingurumenari buruzko 26. Ohar Orokorra egiteko aurretiazko lanekin jarraitu du Haurren Eskubideen Batzordeak, klima-aldaketari arreta berezia jarriz. Hala, lan horien artean, mundu osoko haurrei egindako kontsulta-prozesu zabala nabarmendu behar dugu. Arartekoak, prozesuaren berri izateko, parte hartu du prozesuaren bilakaerari buruzko topaketetan; halaber, kontsulta-aldietan, parte hartzeko deialdiak hedatu ditu, eta ekarpenak egin, berariaz taxututako bitartekoen bidez edukia erantsiz. Ohar orokor hori egiteko prozesuaren barruan, kontsulten eta ekarpenen testuinguruan, gizarte zibilak hainbat topaketatan hartu du parte; hala nola, Haurren aldeko Erakundeen Plataformak "Haurrei eta klima-krisiari" buruz antolatutakoan.

2021eko azken hiruhilekoan, Child Rights Connect antolakundeak dei egin zien haur eta nerabeen eskubideen bermean inplikatutako erakunde eta antolakundeei, Nazio Batuen Idazkaritza Nagusiari eskatzeko haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia zeharka sar dezala Nazio Batuen sistema osoan, haur eta nerabeen eskubideei buruzko estrategia bat abiatuz. Arartekoak ere eskaera hori sinatu zuen, uste duelako haur eta nerabeen eskubideak zeharka txertatzea (*mainstreaming* bihurtzea) giza eskubideen ikuspegiaren zati integrala dela eta ikuspegi hori genero-ikuspegiarekin eta intersekzionalitatearekin batera konbinatu behar dela. Gainera, erantzukizun kolektibotzat hartu behar da, eta maila guztietan txertatu (toki- nahiz mundu-mailan), sektore guztien bidez; izan ere, azken batean, "*existen muy pocas políticas y programas, si es que los hay, que sean neutrales para las NNA: la mayoría tienen impacto directo o indirecto sobre ellas y ellos, ya sea positivo o negativo. Asimismo, la mayoría de los sectores, si no todos, están interconectados y son interdependientes*" (oso politika eta programa gutxi daude, baldin badaude, haur eta nerabeentzat neutralak direnak: gehienek zuzenean edo zeharka eragiten diete, on eginez edo kalte eginez. Era berean, sektore gehienak, guztiak ez badira, elkarri lotuta daude, eta elkarren mendekoak dira).

2022ko otsailean jakinarazi zenez, Nazio Batuen Idazkaritza Nagusiak antolakunde-talde bati agindu zion (ACNUDH, UNICEF, Haurren aurkako Indarkeriari buruzko Ordezkaritza Berezia eta Gatazka Armatuetako Haurrei buruzko Ordezkaritza Nagusia) "Haurren eskubideak txertatzeko orientazio-ohar" bat egin zezala Nazio Batuen erakundeetarako. Talde horrek hasiera-hasieratik planteatu zuen kontsultak egin behar zirela interesdun guztiekin, baita haurrekin eta gizarte zibilarekin ere; 2022ko azken hilabeteetarako programatu ziren kontsulta horiek. Haurren Eskubideen Batzordeak, bestalde, orientazio-oharraren garapena modu aktiboan gainbegiratzeko asmoa zuela adierazi zuen, ekarpenak eta gomendioak egin nahi zituelako, honako hau bermatze aldera: "la aplicación de la Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño se convierta en un elemento central de todos los organismos y órganos de las Naciones Unidas" (Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena Nazio Batuen erakunde eta organo guztien erdigunean jartzea) eta "romper los compartimentos estancos entre los derechos humanos, el desarrollo y la paz y la seguridad" (giza eskubideen, garapenaren, bakearen eta segurtasunaren arteko konpartimentu estankoak haustea).

Haurren ikuspegia txertatzeko eta haurrek parte hartzeko egitasmoa Nazio Batuen sistemako beste organo batzuen jarduketetan hasi da agertzen. Horixe da, hain zuzen ere, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen kasua: apirilean, garapen jasangarriari eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalei buruzko Ohar Orokorra egiteko prozesuan, kontsulta ireki zien haur eta nerabeei, jarduera hori egonkortzeko konpromisoarekin.

## 2. Europa: Haurren Eskubideei buruzko EBren Estrategia (2022-2027)

Iaz informatu moduan, Europako Batzordeak Haurren Eskubideei buruzko EBren Estrategia onetsi zuen 2021ean (Batzordearen komunikazioa, 1. eranskina eta 2. eranskina), Europar Batasunaren politiken erdigunean kokatzeko haurrak eta haien interes gorena. Tresna horrek, zeinak helburu baitu "velar por que todos los niños puedan desarrollar su potencial y desempeñar un papel destacado en la sociedad, ya sea para luchar por la equidad y la igualdad, reforzar la democracia o impulsar la doble transición ecológica y digital" (haur guztiek beren ahala garatu eta gizartean eginkizun nabarmena gauzatu ahal izatea, bai parekidetasunaren eta berdintasunaren alde borrokatzeko, bai demokrazia indartzeko, bai trantsizio ekologiko eta digitala bultzatzeko), EBren datozen urteetarako lehentasunak zehazten ditu.

Lehenengo lehentasunak, gogoratu dezagun, xede du haurrak ahalduntzea, gizarte demokratikoetako herritar aktiboak izan daitezen. Bigarrenaren helburua da haurren pobreziari aurre egitea eta gizarte nahiz hezkuntza- eta osasun-sistema inklusiboak sustatzea, haurrei egokitutakoak. Ardatz horrek gogorarazten digu Batzordearen 2013ko «*Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea*» *gomendioak* indarrean jarraitzen duela, eta Europako Haurren Bermea ezartzen du, pobreziarako edo gizarte-bazterketarako arriskuan dauden haur eta nerabeei laguntzeko orientabideak eta neurriak emateko estatu kideei. Hirugarren helburuaren asmoa da haurren aurkako indarkeriari aurre egitea eta haien babesa bermatzea. Gainerako hirurek sistema judizialari, gizarte digitalari eta nazioarteko lankidetzari heltzen diete.

2022an, Europako Batzordeak, gobernu batzuekin eta erakundeen nahiz antolakundeen sare batzuekin batera, lan handia egin du estrategia horren edukia, konpromisoak eta gomendioak hedatzeko. Bada, horren erakusgarria da Erroman egindako aurkezpena (Arartekoa bertara joan zen, ENOC sareko defendatzaile gisa, Italiako Gobernuak gonbidatuta).

## 3. Estatua eta autonomia-erkidegoa

Estatu-mailan, legeen prozesuan, oso eztabaida biziak sortu dira, haur eta nerabeentzat benetan garrantzitsuak (ikusi Familien Legea, Transen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideen bermerako Legea eta abar), baina batek ere ez du izapidea amaitu.

Autonomia-erkidegoan, halaber, ez da amaitu Haur eta Nerabeen Eskubideei buruzko Legea onesteko prozesua, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren XII. legegintzaldirako legegintza-programan 2021eko bigarren seihilekorako aurreikusita egon.

# ESKUBIDEAK URRATZEA?

## Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak

II.

kapitulua

# II. KAPITULUA

# ESKUBIDEAK URRATZEA? KEXAK, KONTSULTAK ETA EKIMEN PROPIOKO JARDUERAK

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardueraren zati handi bat, ez guztia ordea, kexa- eta kontsulta-espedienteak bideratzean datza, hau da, espediente horiek ikertu, aztertu eta baloratzean. Kexa- eta kontsulta-espedienteen analisiari hurbiltzeak batik bat helburu diagnostikoa du bulegoaren berariazko agiri honetan. Bere oinarrizko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezkagarriak hautematea da, eta espediente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentsore gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

## 1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espedienteak: gerturatze kuantitatiboa

2022an, 571 kexa-espedientetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik %19,71tan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espedienteak (553): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espedienteak (18).

Alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espedienteetan, erakunde honek bi kasuok zenbatzen ditu:

a. Nerabeek eta gazteek zuzenean egindako kexak.

b. Neska-mutilen edota nerabeen ordezkariek egindako kexak. Oso ehuneko handian, pertsona hori adingabearen aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak eta hezitzaileak ere bai.

Aurten, jasotako kexetatik bi bakarrik egin dituzte adingabeek. Gainontzeko kexak helduek egin dituzte eta neska-mutilengan eragina duten egoerak azaldu dizkigute.

**Gaikako esparruen** araberako espedienteen sailkapena (horren azterketa xehatua txosten honetako 2.2. ataleko muin nagusia osatzen du), ondorengo taulan islatutakoa da:

*1. Taula.*
***Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa, gai-esparruaren arabera***

| Gai-esparrua | Kop. | % |
|---|---|---|
| Hezkuntza | 219 | 39,60 |
| Bizi-maila egokia: diru-sarrerak eta etxebizitza | 173 | 31,29 |
| Familiak | 51 | 9,22 |
| Osasuna eta alor soziosanitarioa | 37 | 6,69 |
| Babesteko gizarte-zerbitzuak | 32 | 5,79 |
| Justizia eta espetxeratuak | 14 | 2,53 |
| Jolasa eta kirola | 12 | 2,17 |
| Beste batzuk (5 baino gutxiago) | 15 | 2,71 |
| GUZTIRA | 553 | 100 |

Iturria: guk geuk egina

Ofizioz irekitako espedienteei dagokienez, gehienek (11) zerikusia dute Ararteko 2/2021 Gomendio Orokorraren jarraipenarekin. Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko. Horietan, Arartekoak eragindako administrazioei galdetu die zer jarduera egin diren haurren eta nerabeen kontrako sexu-abusuari ematen zaion erantzuna hobetzeko, bai antzemateko orduan, bai esku hartzeko eta/edo tratatzeko orduan.

Beste 3tan, haurren foru-zerbitzuek babesik gabeko haur eta nerabeei emandako arretaren bilakaera aztertzen jarraitu dugu, eta, beste batean, bakarrik dauden nerabe atzerritarrak hartzeko asmoz Kanariekin eta Ceutarekin lankidetza-protokoloak gauzatzea izan dugu aztergai.

Beste espedienteetako batean, “Vivero” egoitza-baliabidean artatutako bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari buruz jardun dugu, eta beste bat Bizkaiko Foru Aldundiak baliabide horrexetan hartuta zeukan mutil bat Ibaizabal ibaian desagertu zela jakin zenean ireki zen.

Azken espedientea udal batek ikastetxe bati emandako laguntzen gainekoa da.

II

# 2. Arriskuan dauden eskubideak

2022. urtean, adingabeen arloan Ararteko erakundeak egindako jardueraren ikuspegi kuantitatiboa osatzeko, antzemandako arazoak eta kezkak azaltzen dira, eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzak edo ondorioak, zenbatutako kexen ehunekoak iradokitako hurrenkeran eta guztiak azaldutako egoeretan arriskuan dauden eskubideen inguruan bilduta.

## 2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea

### *27. artikulua[1] (Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenekoa)*

1. *Haur guztiek dute beren garapen fisikoa, mentala, izpirituala, morala eta soziala bultzatuko duen bizitza-maila izateko eskubidea, eta estatu kideek hori onartzen dute.*
2. *Gurasoek edo haurra zaintzen dutenek haurrari bere garapenerako beharrezkoak diren baldintzak eman behar dizkiete, beti ere bere ahalbide eta diru-baliabideen arabera.*
3. *Estatu kideek, estatuko baldintzen eta dituzten baliabideen arabera, guraso edo haurren erantzukizuna dutenei laguntza emango diete eskubide hau bermatu dadin, eta beharrezkoa bada laguntza materiala eta laguntza-programak bideratuko dituzte, batez ere elikadura, jantzi eta etxebizitzaren arloan.*

Nekez zehaztu daiteke zenbat haur eta nerabe bizi diren prekariotasun ekonomiko edo pobrezia egoeretan, eta nekez zehaztu daiteke, halaber, zenbat haur eta nerabe dauden oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak dituztela dioten familien espedienteetan. Espediente horietako askotan, zehazki dakigu bizikidetza-unitatean adingabe bat edo gehiago daudela, baina ez daukagu datu hori espediente guztietan. Horregatik, aurten ere zenbatespenaren baliabidea erabiliz eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten eta seme-alaba adingabeak dituzten bizikidetza-unitateen ehunekoa (%24,92) erakunde honek prestazio ekonomiko horri buruz izapidetu dituen espedienteei (412) aplikatuta, ondorio hau atera dugu: 104 familia (horietan ez da harritzekoa adingabe bat baino gehiago egotea) estutasun ekonomiko larrian bizitzen ari direla. Kopuru horri etxebizitza arloko 69 espediente gehitu behar zaizkio; espediente horietan berariaz adierazten da haurrak daudela tartean, eta beraien bizitokiek gabezia handiak dituztela (hori beren bizimoduaren baldintza materialen funtsezko zatia da).

1 II.2 kapituluaren atal bakoitzaren goiburuan aipatutako artikuluak Haurren Eskubideei buruzko Konbentziokoak dira (Nazio Batuak, 1989).

### 2.1.1. Arauzko testuingurua eta testuinguru soziala

Hainbat azterlanetan egiaztatu ahal izan denez, prekarietate egoerek epe labur, ertain eta luzeko eragina dute haurren bizi baldintzetan, beren bizi itxaropenetan eta garatu eta integratzeko aukeretan. Gure gizartean, gaur gaurkoz, oinordetza sozialak eragin oso handia du pertsona bakoitzaren aukeretan. Ondorioz, pertsonen bizi aukerak, funtsean, beren familiek haurrei beharrezko gaitasun ekonomiko, sozial, kultural, kognitibo eta harremanezkoa emateko duten gaitasunaren araberakoak dira. Gauzak horrela, egoera hori aldatzeko nolabait esku hartzen ez bada, pobrezia gurasoengandik seme-alabengana transmitituko da, oinordetza txar baten antzera, haurren eta nerabeen eskubideak larriki kaltetuz.

Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei buruzko 2020ko Inkestan jasotzen dira Euskadiko haur-pobreziari buruzko azken datuak. Inkesta horretan oro har nabarmentzen denaren arabera, haur-pobreziaren eta desberdinkeriaren intzidentziak gora egin du, baina Euskadiko benetako pobreziaren tasa orokorrak jaisten ari dira. Hona hemen txosten horretan jasotzen diren beste datu garrantzitsu batzuk:

1. 17 urtetik beherako haurren % 12,7 pobrezia-egoera larrian daude, eta % 13,6 mantenu-pobrezia deiturikoan. Egoera hori areagotu egin da 2008tik (urte hartan, % 4,1 zeuden pobrezia latzean, eta % 9,1 mantenu-pobrezian), eta, gainera, egoera okerragoa da haurrentzat, biztanleria osoarentzat baino. Datu hori, era berean, haurrek biztanleria pobrearen barruan duten pisuan ikus daiteke: 0-19 urte arteko pertsonak biztanleriaren % 17 diren arren, biztanleria pobrearen % 25 dira.
2. Pobrezia-tasak, argi eta garbi, familia motekin lotuta daude. Pobrezia larriaren kasuan, haurrak dauzkaten familien pobreziak ia-ia laukoiztu egiten du haurrik gabeko familiena. Familia pobreen % 23 guraso bakarrekoak dira.

3. Esan bezala, haur-pobrezia biztanleriarena oro har baino gehiago ari da areagotzen, eta, haurren artean, polarizazioa gertatzen ari da. 2008tik, benetako pobrezian edo ongizaterik gabeko egoeran dauden familietan bizi diren adingabeen ehunekoa % 13,4koa izatetik % 16,7koa izatera igaro da, eta, aldi berean, erabateko ongizatean dauden familietan bizi diren haur eta nerabeen ehunekoa % 27,2tik % 42,4ra igo da.

Datu horiek koherenteak dira Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten bizikidetza unitateei buruz emandako datuekin. Informazio horren arabera, 2022ko abenduaren 31n diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten bizikidetza unitateen %24,92k adingabeak zituen beren kargu. Familia horien kasuen erdia baino gehiago Bizkaian (%55,2) zegoen, ia laurden bat Gipuzkoan (%24) eta %20 baino zerbait gehiago (%20,8) Araban.

Bizikidetza unitate horietan dauden ume eta nerabeak 20.158 dira, hau da, Euskadin erroldatuta dauden 19 urte baino gutxiagoko 400.000[2] biztanleetatik %5,14. Beste azterketa batzuetan adierazitako moduan, diru sarrerak bermatzeko sistemak kanpoan uzten baditu pobrezia egoeran dauden familien heren bat inguru, zenbatetsi ahalko genuke Euskadiko 30.237 haur eta nerabe (%7,7) bizi direla prekarietate ekonomiko eta materialeko egoeran, eta arrisku handian dagoela beren garapenerako bizitza maila egoki bat izateko eskubidea.

Save the Children erakundeak 2022ko ekainean argitaratutako "Zenbat kostatzen den haurrak haztea Euskadin 2022" txostenean, Euskadiko haur eta nerabeen adin-tarte desberdinetan hazkuntzak zenbat balio duen zenbatzen da: batez beste, 769 euro hilabetean seme-alaba bakoitzeko (urtean, 9.200 euro baino gehiago). Kostu horretan, adinaren araberako aldaketak daude, bai zenbatekoetan (616 euroren eta 837 euroren artean hilabetean), bai gastu-kontzeptuetan, haur eta nerabeen premiak aldatu egiten baitira hazi ahala. Hala, hileko hiru gastu nagusiak aintzat hartuta, adin-tartearen arabera, txostenean honako hau jasotzen da:

> *"0-3 adin-tartean, gasturik handiena kontziliazioaren atalekoa da, gastu guztiaren laurdena baino gehiago baitagokio. Partida horrek garrantzi izugarria du haurren estimulazio goiztiarrerako, eta gurasoei lan-munduan parte hartzeko bidea errazten die. Etxebizitzaren gastuarekin batera, kostuaren erdia dagokio lehen etapa honetan.*
>
> *4 urtetik 6ra bitartean, hezkuntzak pisua hartzen du; hazieraren kostuaren bostena dagokio tarte horretan, eta gasturik handiena horixe izango da, 12 urte bitarteko etapan. Etapa honetan, oraindik etxebizitza da pisu handiena duten partidetan bigarrena, eta kontziliazioari guztizko kopuruaren seirena baino gehiago dagokio. 7 urtetik aurrera, elikaduraren partidak gero eta pisu handiagoa du, guztizko haziera-kostuaren seirena baino gehiago dagokio, eta haur eta nerabeen garapen fisikoari eragiten dio. Horixe izango da gasturik handiena azken etapan, ezohiko gastuen atalarekin batera".*

Kostu horretan, **etxebizitza** da guztizkoan pisurik handiena duen partida (bigarren edo hirugarren tokia betetzen du etapa guztietan), eta, 2018an egindako kalkuluarekin alderatuta, gehien areagotu dena da.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak ezarritako eskubide subjektibo a —etxebizitza duin eta egokia okupatzeko– honako hauek alokairu araubidean eskura jartzean datza: babes publikoko etxebizitza, babes publikoari atxikitako etxebizitza edo zuzkidura etxebizitza. Hala ere, egungo etxebizitza parkearen mugak direla-eta, eskubidea prestazio ekonomiko bat ordaintzearen bidez gauzatzen da, eta prestazioak babes publikoko etxebizitza bat izatea ordezkatu nahi du.

Zehazki, bat etorrita Euskal Autonomia Erkidegoko 2022rako Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriarekin, etxebizitza edo bizileku babestu bat alokairu-araubidean eman ezin izan denetan, beste urte batez, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorra eta Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aintzat hartuta asebete da etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa, esleipen-prozedurari dagokion guztian. 2022rako, 275 euroko zenbatekoa finkatu da.

Bada, ahaleginak egin badira ere, Arartekoak berretsi du alokairuko gastuei aurre egiteko aitortutako zenbatekoa ez dela inolaz ere nahikoa. Zentzu horretan, 2022ko lehenengo hiruhilekoko alokairu-merkatuaren estatistika-txostenaren emaitzekin bat (Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratu zuen txosten hori, 2022ko martxoaren 31n), Euskal Autonomia Erkidegoko hileko batez besteko prezioa 703,3 eurokoa zen 2022ko martxoaren 31n, eta 729,8 eurokoa Gipuzkoako lurralde historikoan (batez besteko hileko errenta garestiena duen lurraldea da). Bizkaiko lurralde historikoan, aldiz, batez besteko hileko errenta 705,2 eurokoa zen, eta, azkenik, Arabakoa 627,3 eurokoa.

Edonola ere, azpimarratu behar da euskal hiriburuetako alokairu libreko etxebizitzen garestitasuna handiena izan dela. Kontratuetako batez besteko errenta 802,8 eurokoa da hiriburuetan, neurri handi batean, Euskal Autonomia Erkidegoko sailkapeneko lehenengo postuan dagoen Donostiako kontratuen batez besteko prezio handiagatik (925,8 €); Bilboko prezioak merkeagoak dira (777,1 €), baina, horiek ere eragina dute. Gasteizko batez besteko errenta batez besteko kopuruaren azpitik dago (656,7 €).

**Legeen eta politika publikoen eremuan**, estatu-mailan, uztailaren hasieran, Europako Haurren Bermea ezartzen duen gomendioan Europar Batasuneko Kontseiluak xedatutakoa betetzeko (ikusi txosten honen 1. kapitulua), Europako Haurren Bermea ezartzeko Espainiako Ekintza Plana onetsi

2 0-19 urte bitarteko biztanleriaren pisua Euskadin %17,9koa da 2022ko urtarrilaren 1ean, eta 392.372 pertsona dira. Eustatek jasoa. Biztanleen udal estatistika.

zuen Ministroen Kontseiluak. Ekintza plan hori hiru ardatzetan egituratuta dago: haur-pobreziaren aurka borrokatzea eta haur eta nerabeen gizarte-babesa indartzea; eskubide sozialak unibertsal bihurtzea, funtsezko zerbitzu irisgarri, inklusibo eta kalitatekoetarako sarbidearen eta gozamenaren bidez; lurralde-ekitatea eta berdintasunezko ingurune babesle, inklusibo eta parte-hartzaileak sustatzea, tokiko eta autonomia-erkidegoetako erakundeek garatu ahalko dituzten neurrien bidez. Esparru horretan, Eusko Jaurlaritzak Haurren Bermerako Euskal Estrategia (2023-2030) egiteko lan teknikoak hasi ditu, XII. legegintzaldirako gobernu-programan eta Erronka Demografikorako Euskal Estrategian aurreikusten baita; bada, estrategia orientatzailea izango da, eta askotariko administrazioen plan sektorialen eta arau-garapenen bidez gauzatu beharko diren helburuak eta gomendioak jasoko ditu. Arartekoa parte hartzen ari da estrategia egite aldera gizarte-eragileei eta erakundeei irekitako prozesuan, eta haur eta nerabeen ahotsa txertatzeko eginkizun espezifikoa betetzen du (ikusi III. kapitulua).

Autonomia-erkidegoan, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren *abenduaren 22ko 14/2022 Legea* onestea izan da 2022ko jomugarik garrantzitsuena. Testu berriak barruan biltzen ditu erakunde honek aurreko araudia aplikatzeko xedez emandako proposamen eta gomendioetako batzuk, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoak igotzen, zenbatekoak eguneratzeko mekanismoa finkatzearekin batera, INEren 'Bizi-baldintzei buruzko Inkestan' eta 'Euskadiko Pobreziaren eta Desberdinkerien Inkestan' kalkulatutako pobreziarako arrisku-tasari erreparatuta. Zehazki, bizitzeko gutxieneko errentarako finkatutakoa izango da 2023ko oinarrizko zenbatekoa, 800 euro ingurukoa. 2024tik aurrera, Euskadiko KPIaren arabera, urte horretarako aurrekontuetan finkatuko da oinarrizko zenbateko hori.

DSBEa jasotzeko gutxieneko adina 23 urtetik 18ra jaitsi da, eta, bi adin horien artean, laguntza eskatu baino urtebete lehenagotik gutxienez Lanbiden izena emanda egotea eskatuko zaio eskatzaileari, baita emantzipatuta edo "bizitza independentean" egotea ere.

Halaber, kolektibo zaurgarriei (hala nola, indarkeria matxistaren, gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimei eta errefuxiatu gisa aitortutakoei) ez zaie aurretik erroldatuta egotea eskatuko. Era berean, betekizun hori hiru urtetik urtebetera jaitsiko zaie ardurapean adingabeak edo mendekotasuna duten adinekoak edo desgaitasunen bat dutenak dauzkaten familiei.

Betebeharrak ez betetzeari dagokionez, prestazioa zati batean (ez osorik) galtzea ahalbidetzeko sistema bat ezarriko da, inklusioari lotutako betebeharrak betetzen direla eta zaurgarritasun-egoera sakontzen ez dela bermatzeko asmoz. Atal horretan, laneko eta familiako bizitza kontziliatzeko irizpideak sartu dira betebeharrak betetzen ez direla zehazteko, eta haur eta nerabeak babesten dira, prestazioaren oinarrizko zenbatekoari eusteko aukera egon dadin, baita betebeharrak ez betetzearen ondorioz prestazioa iraungitzen denean ere.

Era berean, bizitzeko gutxieneko errentaren kudeaketa transferitu dela aipatu behar dugu. Bada, *martxoaren 30eko TER/253/2022* Aginduaren bidez egin da transferentzia (*TER/253/2022 Agindua, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren 2022ko martxoaren 16ko erabakia argitaratzen duena, Euskal Autonomia* Erkidegoak bizitzeko gutxieneko errenta kotizazio gabeko prestazioaren kudeaketa bere gain hartzeko hitzarmena ezartzeari buruzkoa).

Erakunde honek lege berria eta dagoeneko integratuta dagoen bizitzeko gutxieneko errentaren kudeaketa baloratuko ditu egotzita dituen eginkizunen barruan; batez ere, herritarrek jartzen dituzten kexak izapidetzean.

Etxebizitzaren eremu berezian, behin eta berriz azaldu moduan, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa guztiz arautzea. Ezin da onartu Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean jarri zenetik 6 urte baino gehiago igaro ondoren, eskubidearen esparru juridikorik ezarri ez izana eta arautzea xedapen iragankor batera eta *Etxebizitzaren Sailburuordetzak etxebizitzaren prestazio ekonomikoaren kudeaketari buruz azaroaren 4an emandako 1/2016 instrukziora* mugatuta egotea.

Arartekoak beste urte batez ere deitoratu du Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eskubide subjektiboaren arauzko garapena onetsi ez izana, nahiz eta Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 15ean onetsitako urteko arauzko planean jaso. Edonola ere, onartu dira beste arau interesgarri batzuk, zeinak zehatzago azaldu ditugun txosten orokorreko Etxebizitza atalean.

Azkenik, *11/2020 Lege Errege Dekretuak, martxoaren 31koak, gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituenak COVID-19ari aurre egiteko*, *abenduaren 27ko 20/2022 Lege Errege Dekretuak* (*Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzutekoak eta La Palma uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun-egoera batzuetan laguntzeko neurriei buruzkoak*) emandako azken testuan, 2023ko ekainaren 30era arte jasotzen du etxegabetzeak eteteko aukera berezia, gizarte-zerbitzuek zaurgarritasun ekonomikoko egoera eta bizileku-aukerarik eza egiaztatzen dutenerako.

Hala eta guztiz ere, beste urte batez, Arartekoak kezkatuta jarraitzen du Euskal Autonomia Erkidegoan hipoteka betearazi dieten pertsonen eta etxetik bota dituzten pertsonen kopuruarekin. Horietako asko, gainera, hileko alokairua ordaindu ezin izan dutelako etxegabetu dituzte.

Testuinguru horretan, erakunde honek ondo baloratzen du Bilboko Udalaren Udal Etxebizitzen Tokiko Erakunde Autonomoak eta Bilboko Udalaren Gizarte Ekintzako Arloak elkarrekin abiatu duten egitasmo bat, etxebizitza desjabetzeko egoeren aurrean jarduteko udal-programa bat onetsi baitute, etxegabetzeetan arreta emateko zerbitzuak garatuko duena.

## 2.1.2. Arartekoaren jardunbidea herritarren eskarien aurrean

### a. Diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin zerikusia duten kexak

Gizarteratzeari buruzko txosten orokorraren II.4 kapituluan, xehetasunez azaltzen dira Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoekin lotuta dauden eta herritarrak Arartekoaren iritziaren pean uzten dituen gaiak. Aurreko atalean adierazi moduan, bizikidetza-unitate horietako askotan haur eta nerabeak daude, eta delako administrazioaren jarduketaren ondorioak pairatzen dituzte, baita Arartekoaren ekintzak eragindako aldaketenak ere. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txosten honetan, baina, bizikidetza-unitateetan haurrak egoteari lotuta dauden jarduketak edo haurrak egoteak eragindako jarduketak baino ez ditugu aipatuko; beraz, irakurri txosten orokorraren dagokion kapitulua, jarduketa ez hain espezifikoen berri edukitzeko.

Lehenik eta behin, ardurapean haurrak dauzkaten bizikidetza-unitate berezietan gehieneko denbora-zenbaketa hasten den egunari buruzko ofiziozko jarduketa aipatu behar dugu; hau da, Arartekoak bere ekimenez abiatutakoa. Arartekoak, espedientea ofizioz izapidetu ondoren, Arartekoaren 2022ko martxoaren 11ko Ebazpena bidali zion Lanbideri, esateko ezin zaiola denbora-mugarik ezarri, arau-maila nahikoa ez duten barne-izaera hutseko tresnen bidez, adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitate bereziei, halakotzat jotzeko (legean ezarrita dago kondizio hori). Horrez gain, iradoki zuen beharrezkoa dela hausnarketa bat egitea odol-ahaidetasunezko eta ezkontza-ahaidetasunezko harremanak dituzten hainbat bizikidetza-unitate esparru fisiko berean bizitzeko ezintasunak dituen ondorioen inguruan, kontuan izanda kolektibo jakin batzuek (besteak beste, guraso bakarreko familiek, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak dituzten familiek, prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonek edo gutxiengo kultural bateko kide izateagatik etxebizitza bat eskuratzeko bereizkeria jasaten duten pertsonek) oztopoak dituztela etxebizitza bat eskuratzerako. Arartekoaren iritziz, edozein araudi-mugaketa edo horren interpretazioa berrikusi beharko litzateke, zuzenean edo zeharka zailtzen duenean bizitoki duin bat gozatzea.

Lanbidek Arartekoaren gogoetak onartu ditu kexa batzuetan, eta horietako hiru aipatuko ditugu:

Lehenengoak kasu hau dauka hizpide: guraso bakarreko familia bati DSBE prestazioa ezetsi zioten, aurretik guraso horrekin bizi zen titularraren jokabideak eragindako ezespen baten ondorioz, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko *abenduaren 23ko 18/2008 Legearen* 28.4 artikuluan jasotzen den aurreikuspena kontuan hartu gabe. Aurreikuspen horren arabera, prestazioa premiaz izapidetuko da, ordura arte titularra zenaren prestazioa iraungi izanak kalte handiak eragiten badizkie bizikidetza-unitateko gainerako kideei. Bada, prestazioa ezesteko erabakia berrikusi dute.

Bestetik, 14 urteko haur bati identifikatzeko agiria errekeritu zioten, baina adingabe bati ere ez zaio betekizun hori eskatu behar, Lanbidek berak onartu bezala; hortaz, etorkizuneko izapideetan ez du agiri hori eskatuko.

Era berean, DSBE bat eteten zuen ebazpen bat berrikusi du Lanbidek; hasiera betean, ez zion baliorik eman izeba bati ilobari dagokionez ordezkaritza-ahal zabalak ematen zizkion notario-ahalordeari, nahiz eta tutore-izendapen hertsia izan ez: Kode Zibilaren 303. artikuluan eta hurrengoetan jasotzen den izatezko jagoletza bat zen, eta arrazoi medikoetan justifikatuta zegoen. Lanbidek onartu egin zituen kasu horietan, babesgabetasun-egoeran ez egoteagatik eta guraso-ahalaz gabetzea ez egokitzeagatik, tutorea izendatzeko ezintasunari buruzko oharrak.

Txosten hau ixtean, ez da ezagutzen Lan eta Enplegu Sailak **Arartekoaren 2022ko urriaren 11ko Ebazpena**ri buruz hartutako erabakia, 7 haurri eragiten dien DSBEa azkentzeari buruzkoa. Arartekoak balioetsi duenez, ez zatekeen DSBErako eskubidea aldi batez etetea erabaki beharko, ez baitzen egiaztatu ebazpenaren zioetan adierazitako betebeharrak bete ez zirenik. Kexagileak egiaztatu egin du administrazioarekin lankidetzan aritu dela, eta arrazoitu egin du aldi batez ezin izan zuela elikagai-pentsioa osorik ordaindu. Pentsioa osorik ordaintzeko ezintasuna ezin daiteke parekatu titularrek, egoera ekonomikoa edo bazterketa-egoera larriagotu ez dadin, baliabideak arduraz administratzeko duten betebeharra ez betetzearekin ().

Txosten honetan aipatu behar dira gizarte-premiei erantzuteko prestazioek eta haien arteko bateragarritasunak sortzen dituzten arazoak. Zaila da guztiak ezagutzea eta izaera subsidiarioa eta osagarria edo lehentasunezkoa duten jakitea, eta, askotan, arazoak sortzen dira; besteak beste, prestazioak iraungitzen dira, diru-sarrerak gainditzearren edo eduki ekonomikoko eskubideak ez baliatzearren. Oraintxe bertan, bizitzeko gutxieneko errentari eragiten dio arazo horrek. Oinarrizko gizarte-prestazio bat da, eta beste prestazio ekonomiko batzuek osa dezakete; adibidez, DSBEak, zeinak gutxieneko diru-sarrera handiagoak bermatzen baititu hilean.

Kexa askotan adierazi denez, Lanbidek ez ditu bidali espediente batzuk Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalera (GSIN); pertsona horiek DSBEaren onuradunak dira, eta, Lanbideren SMS bat jaso ondoren, beren datuak GSINi laga-

tzeko baimena eman zuten, bizitzeko gutxieneko errentaren eskaera izapidetze aldera. Erakunde honek jakin duenez, baimenak jaso ondoren, Lanbidek onuradun potentzialak hautatu zituen, eta errenta aitortzeko prozesu automatikotik baztertu zituen bai prestazioa jasotzeko betekizunak betetzen ote zituzten egiaztatzeko egiaztapen automatizaturik egin ez zutenak, eskuz egiaztatu behar baitziren, bai betekizun ugari betetzen ez zituztenak. Hala, eskaera ofizioz izapidetzeko baimena emateak ez zekarren eskaera aurkeztea, eta, askotan, pertsona horiek DSBEaren onuradunak izaten jarraitu badute ere, egiaztatu ahal izan dugu Lanbidek ez ziela berariaz jakinarazi haien eskaera izapidetuko ez zuela eta eskaera beren kabuz aurkez zezaketela. Horrenbestez, arazoa sortu da ondoren DSBErako eskubidea iraungi/eten dietenen kasuan edo, bizikidetza-unitatearen eraketaren eta ezaugarrien arabera, bizitzeko gutxieneko errentan DSBEan baino zenbateko handiagoa jaso dutenen kasuan (haurrentzako laguntza osagarria aplikatzeagatik edo guraso bakarreko bizikidetza-unitateen kasu berezietan -egoera horiek zuzenean lotuta egoten dira seme-alabak izatearekin- edo desgaitasuna, mendekotasuna, ezintasun absolutua edo baliaezintasun handia dagoen kasuetan).

Bilera batean, Arartekoak Lanbideri esan zion prozesutik kanpo geratu zirenei jakinarazi beharko ziekeela haien eskaera ez zela izapidetu eta eskaera beren kabuz aurkezteko eskubidea zutela.

## b. Etxebizitzari buruzko eskaerak

Aurten, aurreko urteetan bezala, behin eta berriz azaldu dira honako honi buruzko kexak eta kontsultak: **urgentziaz babes publikoko etxebizitza bat alokairu erregimenean behar dutela**, eta Eusko Jaurlaritzako, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ez diela behar bezala erantzuten haien eskaerei.

Kexa-idazkietan, kexagileek agerian utzi dute "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emanda urte asko eraman arren, ez zaiela etxebizitzarik esleitu, eta, diru-sarrera txikiak dituztenez, ezin dituztela alokairu pribatuko prezioak ordaindu

Halaber, etxebizitza berehala eskuratzeko premia kexa moduan helarazi diete herritarrek Bilboko Udalaren Etxebizitza Arloari atxikita dagoen Udal Etxebizitzen Tokiko Erakunde Autonomoari eta Etxegintza - Donostiako Etxebizitza Enpresa-Erakunde Publikoari.

Beste behin ere, Arartekoa arduratuta dago babes publikoko etxebizitzen eskatzaile-kopurua igo izanarekin. Horri buruz, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Euskadiko etxebizitzari buruzko laburpen-txostena argitaratu du 2022ko azaroan, 2021ari eta 2022ko lehen seihilekoari buruzkoa, eta, bertan, 2021eko etxebizitza-eskaria zenbatzen da. Bada, txostenean jasotzen denez, 77.027 eskaera zeuden erregistratuta "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan, eta horietatik 59.656k alokairuko etxebizitza eskatzen zuten.

Alabaina, 2022ko azaroan argitaratutako azken datuen arabera, zeinak 2021ari buruzkoak baitira, 26.432 etxebizitza babestu zeuden errentamendu-araubidean, eta horietatik 7.264 "Bizigune" Etxebizitza Hutsen Programari eta "Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa" (ASAP) merkatu libreko etxebizitzen alokairurako bitartekaritza-programari zegozkien.

Datu horrek agerian uzten du, beste urte batez, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskuetan dauden etxebizitza publikoen kopurua askoz ere txikiagoa dela herritarrek behar dituzten etxebizitzen kopurua baino.

Orain arte esandakoarekin bat, 2022an, Arartekoko erakundearen Etxebizitza Arloak berriro izan du ohiko bizilekua galdu ondoren bizileku-premia dutenek aurrez aurre izaten dituzten zailtasunen berri. Atal zehatz honetan, Arartekoak hainbat udali adierazi die ahalmena dutela Etxebizitza Sailburuordetzari proposatzeko esleipen-prozedura berezia aplika dezala, gizarte-zerbitzuek baloratzen badute bizikidetza-unitatearen egoera bereziki zaurgarria dela eta, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 2.f) artikuluan jasotzen diren kasuen arabera, interesdunak etxebizitza-premia bereziko kolektibo batekoak badira.

Etxebizitza zuzenean esleitzeko erabakiak ez dauka zeharo zehaztutako prozedurarik, baina *abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak* aldatu duen martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12.3 artikuluak kasu zehatzak eta etxebizitza aitortzeko betekizunak jasotzen ditu.

Horretarako, Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du udalek eta Etxebizitza Sailburuordetzak benetan koordinatu behar dutela, azken horrek baitauka gaiaren arloko eskumena, bat etorrita *Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 11.2.f) artikulua*rekin. Hori guzti hori, zaurgarritasun-egoera egiaztatuan dauden pertsonen bizileku-premia larriei irtenbide egokia emateaz.

Hala eta guztiz ere, aurten aipamen berezia egin behar diegu babes publikoko edo pareko etxebizitzetako errentariek eta zuzkidura-bizitokietako egoiliarrek jarritako kexa batzuei, **etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidea asebetetzen** ez zitzaiela uste baitzuten, higiezinak toki nahikorik edo logela-kopuru nahikorik ez edukitzeagatik maizterren nortasuna normal garatzeko.

Arartekoak aurreko urteetako txostenetan dagoeneko ohartarazi zuenez, gero eta errentari gehiagok eskatzen dute etxebizitza babestuen parkearen barruan etxebizitza aldatzea, eta "etxebizitza-ibilbideen" erregulazioa arauz finkatu behar da, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 39. artikuluan agindutakoaren babesean.

Arartekoak, hain zuzen ere, honako ebazpen hauetan aztertu du gaia berriro ere: 2022ko martxoaren 16ko Ebazpena, 2022ko martxoaren 25eko Ebazpena, 2022ko martxoaren 31ko Ebazpena eta 2022ko uztailaren 28ko Ebazpena.

Aurten, berriz ere, Arartekoak egiaztatu egin du kexagileetako batzuen etxebizitzek edo zuzkidura-bizitokiek ez dutela betetzen bizikidetza-unitatearen kide bakoitzeko legez ezartzen den ratioa; era berean, egiaztatu egin du higiezinek ez dituztela biltzen etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea bermatzeko behar diren ezaugarriak.

Zoritxarrez, oraingoan ere, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ez ditu kontuan hartu Arartekoaren ebazpenetako gogoetak. Are, Arartekoak ez du erantzunik jaso bidalitako azken bi ebazpenetan.

Ondorioz, Arartekoak berretsi egin du beharrezkoa dela etxebizitza-arloko lurralde-ordezkaritzek nahiz Bilboko Udalaren Udal Etxebizitzen Tokiko Erakunde Autonomoak banan-banan azter ditzatela birkokatzea eskatzeko arrazoiak. Hori guztia, etxebizitza duin eta egoki batez gozatzeko eskubidea bermatu ahal izateko.

Edonola ere, Arartekoak kezka handiz ikusi du, berriro ere, indarreko araudian jasotzen ez diren betekizun berriak sartu direla eta betekizun horiek baldintzatu egiten dutela etxebizitza-premia espezifikoa aitortzeko eskaeren formulazioa. Zehazki, erakunde honek egiaztatu egin du debekatu egiten dela birkokapena berriro eskatzea, lehenengo eskaeratik bi urte igaro arte. Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, ordea, aurreikuspen hori babesten duen arauzko manuaren berri eman gabe jarraitzen du.

Laburbilduz, etxebizitza babestuen parkeko etxebizitza aldatzeko eskatzen zuten errentarien kopurua geroz eta handiagoa dela ikusita, erakunde honek ohartarazi nahi du "etxebizitza-ibilbideei" buruzko araubide berrian sakondu beharra dagoela, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 39. artikuluan agindutakoaren babesean. Halaber, sumatzen denez, komenigarria izango litzateke administrazio publikoek, logela premiari lotutako beste egoera batzuei erantzutea alde batera utzita, behar diren baliabideak jartzea etxebizitza babestuaren ibilbideak gauzatu daitezen eta babes publikoko etxebizitzak pertsona eta familia errentarien beharretara egokitu daitezen bizitzako etapa guztietan.

## 2.2. Hezkuntzarako eskubidea

### *28. artikulua*

1. *Estatu kideek haurrak hezkuntzarako duen eskubidea onartzen dute (…).*

### *29. artikulua*

1. *Estatu kideek haurraren hezkuntza honetarako bideratu behar delakoan daude:*

   *a) Haurraren nortasuna, gaitasunak eta ahalmen fisiko eta mentala ahal den guztia garatzeko;*

   *b) Giza-eskubideei eta oinarrizko askatasunei eta Nazio Batuetako Agirian azaltzen diren printzipioei buruzko errespetua irakasteko haurrari;*

   *c) Bere gurasoenganako, bere kultura-nortasunarenganako, bere hizkuntza eta baloreenganako, bizi den estatuko baloreenganako, jatorrizkoa duen estatuko baloreenganako eta bere zibilizazioa ez diren zibilizazioarenganako errespetua irakasteko haurrari;*

   *d) Haurra, gizarte aske batean, elkar ulertzeko izpirituarekin, bakearekin, tolerantziarekin, sexuen berdintasunarekin, eta herri, talde etniko, nazional, erlijioso eta indigena jatorria duten guztiekin adiskidetasunez eta zentzuz bizitzen prestatzeko;*

   *e) Haurrari ingurugiro naturalarekiko errespetua irakasteko.*

### 2.2.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

COVID-19aren pandemiaren lehenengo sei hilabeteetan dekretatu zen eta hezkuntzarako eskubidea normal baliatzeko aukerari hainbeste eragin zion konfinamenduak ekarri zigun parentesiaren ondoren, hezkuntzako arduradunek apustu irmoa egin zuten aurrez aurreko hezkuntzari lehentasuna emateko, eta halaxe eutsi zaio denboran; are, Eusko Jaurlaritzak eskola-zentroei zuzendutako COVID protokoloa (2022ko lehenengo sei hilabeteetan hainbat eguneratze izan zituena) kentzea erabaki zuen 2022-2023 ikasturterako.

Dena dela, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren bidez, zenbait gomendio eman ditu, kutsadurak saihesteko eta txertaketa-kanpainak sustatzen jarraitzeko xedez. Nazioarteko unibertsitate batzuetan, ordea, mugikortasuna eten egin da 2022-2023 ikasturterako.

Bestalde, 2022an, aurre egin behar izan diogu inola ere espero ez genuen egoera bati; hots, Errusiak otsailaren 24an Ukraina inbaditu izanak eragindako egoerari. Testuinguru horretan, euskal agintariek ekintza-multzo bat itundu dute (ikusi kapitulu honetako 2.8.2. atala), eta "Ukrainako inba-

sioak desplazatutakoei harrera egiteko gidan" jaso. Gida horretan, eskolatzeko adinean dauden eta lekualdatu dituzten pertsonei berariaz aitortzen zaie Euskadin ikasteko eta beren hezkuntza-zentroetan matrikulatzeko eskubidea, eskolatzea eskatzeko izapideak egiteko moduari buruzko gomendioak eta orientazioak ematearekin batera.

2022an, halere, "Euskal Hezkuntzaren Eraldaketarako Oinarrien Akordioa" azpimarratu behar dugu, zalantzarik gabe, zeina Eusko Legebiltzarraren Hezkuntza Batzordeak eratutako ponentziaren lanak ixteko-edo hitzartu baita.

Akordio horretan, lehenengo sei urteetarako jasotzen diren jarduketak denboran kokatzeko konpromisoa jasotzen da, eta ekainaren 20an aurkeztu zen egutegi hori, Hezkuntza Batzordearen aurrean.

Akordioa egin ondorengo lehenengo jarduketetako batean, aurretiko onespena eman zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen aurreproiektuari, zeina irailean jarri baitzen jendaurrean.

Hasiera batean, sailaren planen arabera, bazitekeen aurreproiektuari 2022ko azken hiruhilekoan ematea behin betiko onespena. Alabaina, hezkuntza-eragileek alegazio ugari jarri dituztenez, Eusko Jaurlaritzak 2023ko lehenengo hiruhilekora atzeratu du behin betiko onespena.

Onespena atzeratu izanak ez du eragotzi, ordea, aurreikusitako beste jarduketa batzuk gauzatzea; hala nola, honako hauek egin dira: *azaroaren 2ko 132/2022 Dekretua onetsi da, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duen urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretua aldatu duena* (azaroaren 14ko EHAA); *2022ko ekainaren 21eko Agindua argitaratu da* (ekainaren 27ko EHAA), *hezkuntza-itunak berritzekoa 2022-2023 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin*, eta *otsailaren 3ko 21/2009 Dekretua* aldatu da, *Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituena* (txosten hau idazteko unean, izapide-fasean zegoen oraindik).

Halere, izugarri atzeratu da *abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak* (LOMLOE) Hezkuntzari buruzko *maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan* egindako aldaketa indarrean jartzetik eratorritako hezkuntza-curriculumen publizitate ofiziala.

Urte naturala eta, beraz, ikasturtearen lehenengo hiruhilekoa amaitzear dago, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian oraindik ez da argitaratu zer araudi egongo den indarrean Euskal Autonomia Erkidegoan. Horri dagokionez, ezin dezakegu ahaztu arauak argitara ematea funtsezko elementua dela edozein gizarte demokratikotan, ezinbestekoa delako segurtasun eta ziurgabetasun juridikoak bermatzeko eta herritarrek botere publikoen jarduna kontrolatzeko.

## 2.2.2. Kexatzeko arrazoiak

2021eko urteko txostenean, Arartekoak interesgarri ikusi zuen etorkizuneko euskal hezkuntza-sistemaren oinarriak zehazteko xedez Legebiltzarrean eratutako ponentzian eztabaidagai izandako gai batzuk ekartzea, kezka-iturri baitira erakunde honentzat: kexa eta jarduketa-eskaera asko aurkezten dira gaion inguruan. Oraingo honetan, uste dugu egokia dela antzeko zerrenda egitea, aurreko atalean aipatutakok aurreproiektuaren testuaren inguruan gailendu diren desadostasunak eta/edo ohartarazpenak ekartzeko.

Uste dugunez, horixe da hezkuntza-eragile batzuek azaroaren 2ko 132/2022 Dekretuan jasotzen den neurriaren aurrean erakutsi dituzten errezeloen kasua. Dekretu horretan, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen da, ikasle zaurgarriak hobeto banatze aldera, 2023-2024 ikasturteko prozesuari begira. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzako tokiak erreserbatzeari buruz ari gara.

Eragile batzuek neurria bera jarri dute zalantzan, uste dutelako ikasle zaurgarriei zentroa hautatzeko eskubidea urratu ahal zaiela eta, are, haien erlijio-askatasuna arriskuan jar litekeela. Hala ere, kritika gehienek beste kontu bati begiratu diote: askoren esanetan, neurriak plangintza estrategiko egokirik ez duenez, itunpeko ikastetxeen sarean gaineskaintza sor liteke, eskaintza publikoaren kaltetan. Gainera, ohartarazi dutenez, ikasle zaurgarri edo behartsuen eskolatze-auzia sare pribatua finantzatzeko eta itunpeko ikasgelen kopurua areagotzeko erabil daiteke.

Horri buruz esan beharra dugu Arartekoa erakundea, oraintxe bertan, eztabaida horixe jorratzen duten bi kexa izapidetzen ari dela. Horietako batek, urteko azken txostenetan hainbat aldiz aipatu denak, Ordizian dagoen segregazioarekin dauka zerikusia.

Antzeko zerbait gertatzen da itunpeko zentroak Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa deiturikoaren zati izateko betekizun zehatz eta egiaztagarriak zehazteko premiaz ohartarazten duten ahotsekin, kontuan hartuta hezkuntzako akordioan

konpromisoak jasotzen direla irakaskuntzan kuotak modu irekian nahiz ezkutuan kobratzeko jarduera oro deuseztatzeko behar diren mekanismoak aktibatzeko.

2022an, erakunde honek hainbat kexa izapidetzean egiaztatu ahal izan du **Hezkuntza Sailak jarrera irmoa daukala itun-sistemaren kontrako praktikak amaiarazteko**. Horixe izan da, adibidez, Villabonako CPEIPS Zubimusu Ikastola HLBHIP zentroaren kasua: ituna aldatu du, eta aldatutako unitateei dagokien zenbatekoa itzuli behar izan du (2022ko urriaren 11ko EHAA). Bada, sailak jarrera horrekin jarraitzea espero dugu, eta orain izapidetzen ari diren beste espediente batzuetan jarraitutasuna izatea.

Ikasleen erlijio-askatasuna dela eta, kontsultapean jarri den aurreproiektuaren testuan baieztatzen denez, euskal hezkuntza-sistemaren helburuetako bat da funts publikoekin finantzatzen diren hezkuntza-zentroetan laikotasunean oinarritutako hezkuntza-eredua garatzea. Baieztapen horrek, baina, ez dakar aurretiko akordioan jasotzen den kautela bazter uztea, honako hau esaten baitu berariaz: "lege organikoak ezarritako gutxienekoa izango da ikastetxeek Erlijio ikasgaiari eskaini diezaioketen gehienekoa eta doktrinamendurik ez dela izango bermatuko dute".

Egoki ikusi dugu kontu hau mahai gainera ekartzea, elkarte batzuek (adibidez, *Islamaren Adiskideak*) eta beren izenean jardun duten familia batzuek Arartekoaren esku-hartzea eskatu dutelako, laikotasunean oinarritutako hezkuntza-proiektuak dauzkaten hezkuntza-zentro batzuek jarrera oztopatzaileak dauzkatelako haien iritziz.

Erakunde honen ustean, paralelismoa ezar daiteke legearen aurreproiektua izapidetzean sortu diren desadostasun batzuen eta jasotako kexa batzuen artean, eta, testuinguru horretan, ezin ditzakegu alboratu **etorkizuneko hizkuntza-eredua argi zehazteko premiaren** inguruan sortutakoak.

Arartekorako ez da kontu berria. Urteko txostenetan, hizkuntza-ereduen sistema berrikusi behar dela planteatu du hainbat aldiz. Are, 2022an, erabaki judizial batzuek adierazi dutenez gaztelania ezin daitekeela irakaskuntza-hizkuntza gisa baztertu, hezkuntza-sisteman A hizkuntza-eredurik eskaintzen ez dela salatzeko legitimatuta sentitu diren familia eta interesdun batzuen kexei erantzun behar izan diegu beste behin ere.

Lehengo kexa horietatik harago joz, erakunde honek azpimarratu egin nahi du euskal hezkuntza-sistemara duela gutxi sartu diren ikasleei ezinegona eragiten diela D ereduan matrikulatzeak; batez ere, euskaraz trebetasunik ez duten eta adin jakin bat duten pertsonak direnean. Pentsatu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetara sartzen direnengan. Erakunde honen ustez, ez dirudi baztertu beharko litzatekeenik beste hizkuntza-eredu batzuetako ikasgeletan matrikulatzetik hasi eta ikastetxeei baliabideak eta laguntzak ugaritzeraino doazen neurrien ezarpena berrikusi eta/edo indartzeko aukera, hezkuntza-zerbitzua modu egokian eman dadin, eragindakoen itxaropen akademikoei kalterik egin gabe.

Bestalde, Arartekoak nabarmendu egin nahi du **proiektatu den erregulazioak garrantzi berezia ematen diola bizikidetza positiboari**. Izan ere, 2022an, bizikidetza-arazoei buruzko kexek nabarmen egin dute gora; agian, COVIDaren pandemiaren ondoriozko konfinamenduak ekarri zuen parentesiaren ondoren aurrez aurreko irakaskuntzara itzultzeak eragin du hori. Kexen zati batek gainditutako gatazkak zituzten hizpide. Familiek kasu horien berri eman nahi izan dute, abusu-egoeren biktima diren ikasleei erantzun egoki eta nahikorik ez emateak ezinegona sorrarazten diela erakusteko eta, ondorioz, ezarritako protokoloetan jasotzen diren neurriak berrikustea eskatzeko.

Jasotako kexek interesa piztu diote Arartekoari. Hala, egiaztatu ahal izan dugu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak baliabide handiak dituela baina balitekeela hezkuntza-komunitateak baliabideon ahala behar beste ez ezagutzea. Hori dela-eta, Arartekoaren ustez, sailak prestakuntza- eta hedapen-lanak egiteko aukera aztertu beharko luke. Baliabideok Bizikasi egitasmoan kokatuta daude.

Horiez gain, ordea, 2022 honetan, aipatu beharreko beste kexa batzuen errealitatearen berri izan du Arartekoak.

Hasteko, **zentro publikoek** "Hedatze" **proiektuan (zentroen barne-antolaketa berritzekoan) parte hartzearen harira jaso ditugun kexak** aipatuko ditugu, ugariak izan baitira. Kexak izapidetzean egiaztatu dugunez, desadostasun handia sorrarazten dute proiekturako hautatzeko deialdian jasotzen diren betekizunek. Halaber, hezkuntza-komunitateko sektoreek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta lanaldi zatituko araubidearen aurka, zeina arau orokorra baita, lanaldi jarraituko araubidea garatu nahi dute, baina horrek, besteak beste, proiekturako hautatzea galaraz dezake.

Halaber, **Ibarrekolanda BHIko batxilergo artistikoko ikasgelak itxi eta lekualdatzearen inguruan jasotako kexak** ere ugariak izan dira; halere, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko arduradunek hasierako erabakia birpentsatu dutenez, kexen izapidea eten egin da.

**Ikasleak onartu/eskolatzeari** dagokionean, hurrengo atalean aurkeztuko denaz gain, semea CIDEAD zentroan eskolatu nahi zuen guraso baten kexa aipatu behar dugu (CIDEAD urrutiko hezkuntza berritu eta garatzeko zentroa da, Hezkuntza Ministerioaren mendekoa). Matrikula arrazoi justifikatuengatik (ikasketa ofizialak) lekualdatzea eskatzeko bete behar diren betekizunen artean, ikasketak aurrez aurreko modalitatean jarraitzeko ezintasuna dago. Bada, dagokion hezkuntza-administrazioaren aldeko txostenaren bidez egiaztatu behar da CIDEAD zentroan eskolatzeko premia. Kexa horretan, erakundeak Hezkuntza Sailari gomendatu zion txosten hori ondo arrazoitu zezala eta, horri begira, ustez aurrez aurreko irakaskuntza eragozten zuten betebehar profesionalak egiaztatu ahal izateko zuzenketak egin zitzala eska ziezaiola interesdunari.

Era berean, **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila egiten ari zen eta autismoa daukan gazte baten** familiak eskatuta izapidetu dugun kexa aipatu behar

dugu. Familia kezkatuta zegoen, semea eskolatzeko aukerengatik. Azkenik, Bigarren Hezkuntzako institutu batean eskolatu ahal izan zen, curriculum anitzeko programa batean.

**Beti aztergai izaten dugun beste eremu batera** sartuz, hau da, **hezkuntza-premia berezien arlora** joz, 2022an, hurrengo atalean (Lanbide Heziketako ikasketak. Curriculum-egokitzapenak) bereziki jasoko den kexaz gain, kexa puntualak jaso ditugu, hizkuntza-ereduarengatik beste hezkuntza-zentro bateko ikasgela egonkorrera lekualdatzeko behar ziren baliabideak (*bipedestadorea, zeinu-mintzairaren interpretea*) edota zerbitzu osagarriak (hala nola, eskola-garraioa) eman ez izanagatik edo berandu eman izanagatik.

Amaitzeko, ikasteko beken eta bestelako laguntzen gaia beti izaten dugu hizpide urteko txostenetan. Bada, eremu horretan, kexa bat nabarmenduko dugu, non kexagileak bere desadostasuna erakutsi baitzuen bere egoera pertsonal eta familiarrarekin zerikusirik ez zuten dokumentuak (dibortzioari, banaketari, pentsioei, epaiei... buruzkoak) hainbat aldiz eskatzearen aurrean. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak aitortu egin zuen arazo bat zegoela, sistema informatikoaren konfigurazioari egotz zekiokeena. Kexa horrek balio dezala administrazio ona ziurtatzeko neurriak hartzen jarraitzeko premia dagoela erakusteko.

## 2.2.3. Kexarik aipagarrienak

### a. COVID protokoloa, hezkuntza-eremuan

2022aren hasieran, Gabonetako oporretatik bueltan, kexa ugari jaso genituen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eta Osasun Sailak COVID-19aren kasu positiboak eta kasu susmagarriak kudeatzeko protokoloak ezarri zituztelako hezkuntza-eremuan; zehazki, maskararen erabilerari, bizikidetza-talde egonkorrei buruzko gomendioei eta sintomarik gabeko ikasleak isolatzen zituen kudeaketa-protokoloari buruzkoak ziren kexak, kexagileek uste zutelako neurri horiek arazoak eragiten zituztela ikaskuntzan eta sozializazioan eta familia-kontziliazioari eragin ziezaioketela.

Arartekoak, neskato-mutikoak etxean konfinatzeak zekartzan ondorioekiko sentikor (bereziki, txikienen zaintzari eta zaintza horrek hurbilekoei eginarazten zien ahaleginari zegokienez), gaiari buruzko informazioa eskatu zion Osasun Sailari, eta adierazi, pandemiaren bilakaera zela-eta, aldaketak egin zitezkeela estrategia horretan.

Osasun Sailak erakunde honi erantzun zion eskudun administrazioek une oro bilatzen zutela aurrez aurreko hezkuntza-jarduera bermatzea eta, horri begira, ezarritako protokoloak unean uneko errealitate berrira egokitzen zituztela, eta ez hezkuntza-eremuan bakarrik, oro har baizik, egoera epidemiologikoa etengabe aldatzen baitzen.

Azkenik, martxoaren 4an itxialdiak deuseztatu ziren oro har, adin-tarte guztietarako, txertatuta egon zein ez egon, eta, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila eta Hezkuntza Saila ados jarrita, *"2021/22 ikasturtean ikastetxeetan COVID-19ren aurreko prebentzio neurriak"* aldatu zuten, bizikidetza egonkorreko taldeak malgutzeko eta haien arteko interakzioari bide emateko.

### b. Ikasleen onarpena. Familia berriz elkartzea

Familia batek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, seme-alabak berriz elkartzen lagundu ziezaion, gomendio medikoak eta hezkuntzakoak baliatuta. Semeetako batek 2022-2023 ikasturteko ikasleen ohiko onarpen-prozesuan hartu zuen parte. Alabaina, eskaerari ez zioten arretarik eman, eta, kexa jarri zutenean, itxaron-zerrendan zegoen.

Erakunde honek, jarduteko aukerak aztertu ondoren, familiari esan zion seme-alabak hezkuntza-zentro berean elkartu ahalko zirela baldin eta urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuaren 22. artikuluan jasotzen diren egoeretako batzuk egiaztatzen baziren (*1/2018 Dekretua, urtarrilaren 9koa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena*), dekretu horrek ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzea ahalbidetzen baitu kasu zehatz batzuetan. Kasu horien artean, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak ikasleen alde egin ditzakeenak daude (6. apartatua), nahiz eta ez izan manu horretan berariaz xedatutako egoerarik. Beraz, hasiera batean, kexan azaltzen ziren arrazoiak ikusirik, eskolatze mota hori plantea zitekeen.

Halere, ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatu ahal izateko, toki hutsek egon behar dute. Horri buruz, erakunde honek azpimarratu zuen kasu tasatuetan bakarrik igo daitekeela ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle-kopurua, % 10 gehienez, eskolatzen laguntzeko xedez; adibidez, hezkuntza-sistemara berandu sartzeagatik, familian genero-indarkeria pairatzeagatik eta haurrak adoptatu edo familian hartzeagatik. Ildo horri helduz hitz egiten da urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuaren 23.2 artikuluan.

Hori dela-eta, hizpide dugun kasua ikasleen alde baimendu daitekeen kasu horietako batean kokatu ahal bazen ere, seme-alabak elkartzeko behar zen toki-kopurua handitzeko gaikuntza espezifikorik ez zegoenez, ezin izan zen horrela jokatu, eta halaxe jakinarazi zitzaion familiari.

### c. Eskola-garraioa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ikasten ari zen 12 urteko gazte baten amak eskola-garraioaren zerbitzuarekin lotutako kexa bat helarazi zion erakunde honi.

Kexan kontatzen zuenez, gazte hori, bi urterekin eskolatu zutenean, erreferentziazkoa ez zuen zentro batean matrikulatu zuten, familia-kontziliazioa tarteko, DBHko bigarren maila amaitu arte hezkuntza-zentro horretan jarraitzeko asmoarekin. Birgaiketa-lan batzuetan detektatutako hutsune batzuen ondorioz, baina, ikasleak berrantolatu behar izan zituzten, eta, ondorioz, DBHko lehengo eta bigarren mailako ikasleak beste instalazio batzuetara mugitu behar izan ziren.

Familien kontrolpean ez zegoen egoera bat zenez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eskola-garraioaren zerbi-

tzua eman zien lekualdaketak eragindako ikasleei, joan den 2021-2022 ikasturtera arte. Are, gazteak azken instalazio horietan egin zuen DBHko lehenengo maila 2021-2022 ikasturtean, eta garraio-zerbitzua erabili zuen; Hezkuntza Sailak, ordea, gazte horri garraio-zerbitzua emateari uztea erabaki zuen: haren erreferentziazko zentroa ez zela argudiatu zuen, eta familiaren etxetik hurbilago dagoen zentro batean eskolatzea iradoki.

Egiaz, eskola-garraioa arautzen duen araudiaren arabera, zerbitzu hori aitortzeko, Lehen Hezkuntza amaitzea legokiokeen ikastetxean eskolatu behar da DBHrako, eta, azken horri dagokionez, ikastetxe horrek ikaslearen errolda-etxebizitzari dagozkion eragin-eremuek barne hartzen dituzten ikastetxeen artean etxetik hurbilen dagoena izan behar du. Hala ere, erakunde honen iritziz, kexa hau eragin duen kasuan, ezin da alboratu hezkuntza-administrazioa bera izan dela DBHko lehenengo eta bigarren mailako ikasleak beste instalazio batzuetara aldatzeko ekimena izan duena eta, gainera, 2020-2021 ikasturtera arte bere gain hartu duela eskola-garraioaren zerbitzua, aldaketak eragindako ikasleentzat.

Edonola ere, erakunde honek jokabide-aldaketa azaldu eta babesteko arrazoiez galdetu zuenean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko arduradunek erakunde honi baieztatu zioten ikaslea ikasle baimendu gisa garraiatzen zutela 2022-2023 ikasturtearen hasieratik.

## d. Lanbide Heziketako ikasketak. Curriculum-egokitzapenak

Lanbide Heziketako ikasle baten ordez bidalitako kexa jaso genuen erakunde honetan. Kexak, hasieran, hezkuntza-administrazioaren isiltasunean izan zuen funtsa, ikasle horrek hezkuntza-premia bereziak dituenez curriculum-egokitzapena baimentzeko egindako eskaerari dagokionez. Alabaina, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko arduradunen aurrean abiatutako esku-hartzean egiaztatu egin dugu zer-nolako bilakaera izan duen ikasle horientzat aurreikusita dagoen hezkuntza-arretaren konfigurazioak.

Egiazki, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman behar zaien hezkuntza-erantzunaren hasierako antolaketan, ez zen baztertzen norbanakoei curriculum-egokitzapen esanguratsuak egiteko aukera, ezta Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloetako ikasleen kasuan ere. Halaxe jasotzen zen ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren 15.5 artikuluan (*118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena*, uztailaren 13ko EHAA, 130. zk.) eta 1998ko uztailaren 24ko Aginduaren 13. eta 15. artikuluetan (*Agindua, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura*, abuztuaren 31ko EHAA, 164. zk.).

Era berean, Lanbide Heziketaren 2008ko antolaketa orokorrak ere (*32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa*, martxoaren 5eko EHAA, 46. zk.), 21.2 artikuluan, curriculum-egokitzapen esanguratsuak baimentzeko aukera ematen zuen.

Alabaina, handik urte batzuetara, Lanbide Heziketaren antolaketa orokorra eguneratzen duen *otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuarekin* (otsailaren 10eko EHAA, 27. Zk.), 21.2 manua berridatzi zen. Testu berrian, curriculum-egokitzapenak egiteko aukera ematen zen, baina egokitzapenok esanguratsuak izan daitezkeela esan gabe.

Horrela, ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenetan azaldu moduan (kexa izapidetzeko garaian, 2021-2022 ikasturtea zen), Lanbide Heziketako ikasketen kasuan, curriculum-egokitzapenak egiteko aukera mugatu egin da, curriculumera sartzeko egokitzapenetara mugatu ere, eta, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuko antolaketa berriarekin, kendu egin da 1998ko uztailaren 24ko Aginduan ezartzen zen baimena, curriculum-egokitzapen esanguratsuak egitekoa.

Orientazio berri horri buruz galdetuta, Hezkuntzako arduradunek honako hau adierazi digute:

> *"Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako zikloak lan-merkatuan sartzea xede duten ikasketak dira. Hori dela eta, zikloetako helburu orokorrak bete behar ditugu, bai eta zikloak osatzen dituzten moduluetako bakoitzean ezarritako ikaskuntza emaitzak ere.*
>
> *Prestakuntza-zikloetan titulua eskuratu duten pertsonek beren jarduera profesionala has dezakete, lanpostu batera sartuz. Horretarako, ezinbestekoa da tituluan ezarritako eskumen guztiak egiaztatzea, bai profesionalak, bai zeharkakoak."*

Ikus daitekeenez, Hezkuntzako arduradunek kautela bat baliarazi dute: egokitzapenok baimentzeak ezin diezaieke enbarazu egin tituluak gaitzen duen gaitasun orokorra lortzeko oinarrizko gaitasun profesionalekin lotutako helburuei. Halere, hori ez da traba, eskolatze-aldia malgutzeko aukera aitortzeari dagokionez, eta, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako informazioaren arabera, azkenean malgutze hori baimendu eta aitortu zioten kexan hizpide zen ikasleari.

## 2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea

### *19. artikulua*

1. *Haurra gurasoen, legezko ordezkarien edo bestelako norbaiten kustodiapean dagoen bitartean, estatu kideek beharrezkoak diren legezko, administrazioko, gizarteko eta hezkuntzako neurri guztiak hartuko dituzte haurrak honakoak jasan ez ditzan: edozein modutako kalte edo gehiegikeria fisiko nahiz mentalak, arduragabekeria edo tratu zabarra, tratu txarrak edo esplotazioa, sexu gehiegikeriak barne.*

### *20. artikulua*

1. *Aldi baterako edo betirako bere familiatik atera diren haurrek edo beren interesen arabera ingurune horretan egon behar ez dutenek estatuaren babes eta laguntza bereziaren eskubidea izango dute.*

### 2.3.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

2021ean *Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa* onetsi ondoren, lege horrek agindutako garapenak aipatu behar ditugu. Bada, horien artean, Haurren eta Nerabeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Estrategia (2023-2030) nabarmentzen da, "la hoja de ruta para que las diferentes administraciones, entidades y actores trabajen de la mano para fortalecer el trabajo de prevención de todas las formas de violencia; mejorar la detección e intervenir tempranamente desde un enfoque integral y multidisciplinar; visibilizar la violencia contra los niños, niñas y adolescentes con el fin de conocer la magnitud de este problema; generar una cultura de tolerancia cero ante la violencia y del buen trato, y fomentar la creación de entornos que protejan a todos los niños y niñas sin distinción alguna" (askotariko administrazioek, erakundeek eta aktoreek elkarrekin lan egiteko ibilbide-orria da, eta honako helburu hauek dauzka: indarkeria-modu guztiak prebenitzea, detekzioa hobetu eta ikuspegi integral eta diziplina anitzeko batetik goiz jardutea, haur eta nerabeen aurkako indarkeria ikusgai egitea, arazoaren tamaina ezagutzeko, indarkeriaren aurrean zero tolerantzia erakusten duen eta tratu onak bultzatzen dituen kultura sortzea eta haur guztiak inolako bereizketarik gabe babestuko dituzten inguruneak sor daitezen bultzatzea).

Ildo berean, Euskadin, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenak iaz iragarri moduan, haur eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko diagnostikoa (2021) egin ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Haurren eta Nerabeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia (2022-2025) aurkeztu du, zeinaren helburua baita honako hau: *"euskal erakundeak prestatuago egotea lortu nahi dugu indarkeria-mota guztiak prebenitzeko, baita indarkeria egoerak goizago eta goizago detektatzeko eta esku hartzeko ere, arreta eta babesa osotasun handiagoz eskaintzeko, eragindako kalte guztiak konpontzeko, erakundeen arteko lankidetza hobetzeko, eta erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza sendotzeko, hau da, errealitatea gehiago eta hobeto ezagutzen duen, ezagutza sortzen duen eta kalitatea hobetzen duen erakunde-sare batean aurrera egiteko."*

Bestetik, XII. legegintzaldirako legegintza-programan "Haur eta Nerabeen Eskubideen Legea" deiturikoa onesteko prozesuak aurrera jarraitzen du (oraindik ez zaio Gobernu Kontseiluari bidali).

Azkenik, sexu-indarkeriaren eremu espezifikoan ezartzen den indarkeria duenez xede, aipatu beharra dugu 2022an *Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa* onetsi dela; izan ere, arrazoien azalpenean adierazten duenaren arabera, haurrak babesteko indarreko araudia osatzeko asmoa dauka, "(…) con medidas específicas para garantizar la protección de las niñas y niños menores de dieciocho años frente a las violencias sexuales" (hamazortzi urtetik beherako haurrak sexu-indarkerien aurrean babestea bermatzeko neurri espezifikoekin). Lege horretan, berritasun gisara, erreparaziorako eskubidea garatzen da, biktimak erabat suspertzea eta indarkeria errepikatuko ez dela bermatzea lortzeko erantzukizun instituzionalaren ardatz nagusien artean. Legeak, halaber, emakumeen eta haurren kontrako sexu-indarkeria dakarten jokabideen zigorrak zehazteko eta delituak tipifikatzeko zigor-esparru juridiko berria izateko balio du.



### 2.3.2. Herritarren kexak eta kontsultak

Ohikoa denez, Arartekoak alor horretan jasotako ia erreklamazio guztiak gizarte zerbitzuek artatutako haurren eta nerabeen gurasoek aurkeztu dituzte. Salbuespena familia-erreferenterik gabeko eta aldundiko gizarte-zerbitzuek hartutako bi nerabek egindako kexak dira.

Izapidetu diren espediente gehienetan kexak foru gizarte zerbitzuen aurkakoak izan dira eta nahiko antzera banatu dira Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailaren eta, gutxixeago. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren artean. Horrez gain, kexaren bat jaso dugu baita ere Bizkaiko udalerri batzuetako gizarte zerbitzuen jarduketaren inguruan.

Ixteko balorazioari dagokionez, 2022an hasitako eta jada amaitutako ia jarduera guztietan, eragindako administrazioaren "jardueran ez da okerrik ikusi" edo kexagileari "aholkuak eta informazioa" eman zaizkio.

Gaiei dagokionez, aurreko urteetan iruzkindutakoen antzekoak dira. Arlo honetan Arartekoan egiten diren kontsulten zio nagusietako bat oraindik ere hauxe da: udalen edo aldundien gizarte-zerbitzuek **seme alaben babesgabetasuna baloratzeko espediente bat irekitzeak familietan sortzen dituen zalantzak eta ziurgabetasunak.** Arartekora jotzen duten familia askok hori egiten dute espediente bat ireki dela edo beraien kasuak udal gizarte zerbitzuetatik foru zerbitzuetara bideratu direla jakiten dutenean, eta oso kezkatuta etortzen dira, beldurtuta egoten direlako familia banatuko duten babes neurriak ezartzeko aukeraren aurrean. Arartekoak horrelako kontsultetan familiei babesgabetasuna baloratzeko prozesuaren ezaugarri nagusiei buruzko informazioa ematen die eta eskatzen die balorazioa egiten duten profesionalekin lan egiteko eta elkarrekin seme-alabentzako beharrezko laguntzak eta ahalik eta ongizate egoera onena lortzeko.

Herritar batzuek Arartekora jo dute, gizarte-zerbitzuak **atzeratu** egiten direlako **babesgabetasun-balorazioa hasteko** edo familia-nukleorako nahiz familiako kideetako batentzat aurreikusita dagoen **programaren edo laguntzaren bat aktibatzeko** orduan. Hala, haur txiki baten amona, zeinak bilobaren izatezko jagoletza baitzuen hura jaio zenetik eta udalaren gizarte-zerbitzuekin harremanetan baitzegoen, Arartekora etorri zen, egoera larria izan arren haurraren babesgabetasun-balorazioa hasi ez zelako eta, beraz, foru-aldundiaren gizarte-zerbitzuetara deribatu ez zutelako. Arartekoak esku hartu zuen, eta ondorioztatu udalaren babesgabetasun-balorazioa behar baino gehiago atzeratu zela; azkenean, baina, egoera zuzendu zuten, kasua foru-aldundiaren haurren zerbitzura bidalita.

Beste herritar batek Arartekora jo zuen, erakunde honek esku har zezan eskatzera, bere ahizpa adingabea bizi zen udalerriko gizarte-zerbitzuek uko egin ziotelako haren babesgabetasun-balorazioa hasteari, ahizpa udalerri hartan erroldatuta egon arren kexagilearekin beste udalerri batean bizi zelako, harreran. Arartekoak, esku-hartzea amaitzeko, gogorarazi zuen erroldako udalerrian hasi behar duela adingabeen babesgabetasun-egoeraren balorazioak.

Aurten, berriz ere, hainbat familiaren kexak eta kontsultak jaso ditugu, esaten zutenak **ez zeudela ados seme-alabei babesgabetasuna aitortzearekin**, guraso-ahala eteteearekin eta foru-erakundeak tutoretza hartzearekin. Familia horietako batzuek esku hartzea eskatu diote erakunde honi, babesgabetasunaren deklarazioak dakarren babes-neurria galarazteko edo iragarritako neurrien legezkotasunari buruzko informazioa jasotzeko. Beste kasu batzuetan, kexagileek egoitza judizialera jo dute, edo horretarako asmoa zuten, neurriari aurka egiteko; beraz, Arartekoak ezin zezakeen jardun, eskaera nagusiari zegokionean. Kasu horietan guztietan, babes-neurriak ondo garatzeko kontu orokorrei buruz aholku ematea izan du xede erakunde honen jarduketak. Izan ere, Arartekoari ez dagokio kontu tekniko horiei buruzko iritzia ematea (adibidez, guraso-aginpideari edo adingabearen babesgabetasun-mailari buruzkoa), Arartekoak berezkoak dituen ezagutza-eremuetatik kanpo egiten baitira; hau da, zuzenbidearekin bat al datozen zehaztetik at. Beraz, jasotako kontsultetan, haurren zerbitzuekin ahal beste laguntzera bideratu ditugu familiak, neurria modu egokian gara zedin; bestalde, informazioa eskatzera, ados ez daudela adieraztera eta hobetzeko proposamenak egitera ere bideratu ditugu, bai eta, hala egokituz gero, hartutako ebazpenaren edo ebazpenen aurka egitera epaitegietan, horrek aukera ematen baitu epaitegietako talde psikosozialetako profesionalek beste balorazio bat egiteko.

Beste kexa batzuen muina **dagoeneko hartutako babes-neurrien garapenarekin ados ez egotea** izan da. Desadostasunen arrazoietako batek zerikusia izan du tutoretzapeko haur eta nerabeen jatorrizko familiarekin bisitak egitearekin. Familia batzuk ez zeuden ados bisita-kopurua murriztu izanarekin, profesionalek bisitak gainbegiratzearekin eta abarrekin. Aztertu ditugun kasuetan, Arartekoak ondorioztatu du gizarte-zerbitzuen jarduketak bat egiten zuela zuzenbidearekin.

Seme-alaba nerabeak egoitza-harreran zeuzkaten familia batzuek Arartekora jo dute, adierazteko kezkatuta zeudela, bai seme-alabek egoitza-baliabidetik behin baino gehiagotan ihes egin zutelako, bai talde hezitzaileek zailtasunak zeuzkatelako adingabe horiek behar bezala babestea bermatzeko eta absentziak eragozteko. Zoritxarrez, zenbaitetan, zuzeneko arreta ematen duten profesionalek ondo jokatu arren, ezin daitezke ekidin baimendu gabeko absentzia horiek, zeinak, batez ere, neska-mutilen ondoez emozionalaren adierazpena baitira. Gizarte-zerbitzuen jardunean ez dugu inolako irregulartasunik atzeman, zentzu horretan.

Hori horrela izanda ere, babesgabetasun-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-harrerako baliabide batean zegoen mutiko bat hil da aurten, jatorri aljeriarrekoa. Harreran hartuta zegoen mutikoaren herrikide batzuek Arartekora jo zuten, adierazteko kezkatuta zeudela eta erakundeak esku hartzea eskatzeko, uste baitzuten ibaira erorita desagertu zen mutikoa bilatzeko lanetan ez zutela arduraz jokatu. Justiziaren esku geratu zen egitateak ikertzea, eta, beraz, Arartekoak ez zuen esku-hartzerik abiatu zentzu horretan. Dena dela, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundira jo zuen, mutikoaren gorpua aberriratzeko izapideez galdezka, Arjeliako familia eta erakundera jo zuten aberkideak kezkatuta baitzeuden gai horrekin. Foru-aldundiak erakunde honi adierazi zion bere gain hartuko zituela gorpua aberriratzeko kostua eta egin beharreko kudeaketa guztiak. Horretarako, etengabe harremanetan egon zen ikerketa judizialaz arduratzen zen epaitegiarekin, Aljeriako Kontsulatuarekin eta mutikoaren familiarekin. Eragindako nagusiek ondo baloratu zuten haurren zerbitzuak emandako arreta.

2022an, ez dugu jaso **haur eta nerabe adoptatuei**, adoptatu osteko jarraipenei edo adopziorako egokitasun-balorazioei buruzko kexarik.

Beste urte batez adierazi behar dugu babes-arloko gizarte-zerbitzuei buruz jasotako kontsulta eta kexa batzuetan ikusi ahal izan dugula zailtasunak egoten direla **gurasoen adostasunik gabeko banantzeak** kudeatzeko. Tarteka, gurasoetako batek Arartekora jotzen du adierazteko gizarte-zerbitzuak (foru-aldundikoak edo udalekoak) ez direla esku hartzen ari beren seme-alaben kaltea saihesteko, edo haiek eskuragarri dituzten tresnak (familiekin esku hartzeko programak, laguntza terapeutikoa eta abar) ez direla nahikoa seme-alabak gurasoen gatazkatik babesteko. Besteren batek adierazi du ez dagoela ados profesionalen balorazioekin eta jarduketarekin, uste duelako ez zirela inpartzialak izaten ari eta beste aldeari mesede egiten ari zitzaizkiola, izan esku-hartze soziohezitzailean, izan, prozedura judizialean, txostenen bidez. Beste urte batez egiaztatu dugu zaila dela hain gatazkatsuak diren eta gizarte-zerbitzuetatik judizializatuta dauden kasu horiek jorratzea.

Amaitzeko, kontu orokorrei buruz aurkeztu diren kexa eta kontsulta batzuk aipatu behar ditugu; hala nola, foru-aldundietako haurren zerbitzuek **eskaera batzuei** (adibidez, bisiten edo aldaketen eskaerei, balorazioei buruzko txostenen eskaerei edo kasurako planen eskaerei) erantzun ez izanarekin izan dute zerikusia. Aztertu ditugun kasuetan, ez dugu irregulartasunik atzeman administrazioaren jardunean.

### 2.3.3. Umeen eta nerabeen aurkako egoerak prebenitzea eta goiz detektatzea

2022an, Arartekoak haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko arloan egin dituen jarduketa guztiek izan dute komunean programa eta zerbitzu publikoak hobetzeko lankidetza. Hala, parte hartu du Familia eta Haurren Zuzendaritzak irekitako kontraste-prozesuetan: bata Haurren eta Nerabeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia (2022-2025) egiteko ireki zen, eta bestea Zeuk Esan - Haur eta Nerabeei Laguntzeko Zerbitzua berrikusteko.

Helburu horretan, halaber, profesionalak trebatzeko lankidetzak kokatzen dira. Horixe izan da, adibidez, "Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren inpaktua gizarte-zerbitzuen jardun-eremuan" ikastaroaren kasua, baita EHU/UPVren "Gizarte-zerbitzuen kudeaketa eta berrikuntza" graduondokoaren kasua ere.

### 2.3.4. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta berezia

II. kapitulu honen 2.1 apartatuan aipatu dugunez, Arartekoan legezko ordezkariek aurkezten dituzte haurrei buruzko erreklamazioak edo haurrei eragiten dieten erreklamazioak. Are, 2022ko kexa guztien artean bitan bakarrik izan da titularra adingabeko bat.

Lehenengo kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapeko mutil bat zen titularra, adin nagusikoa izateko gutxi falta zitzaiona. Bada, kezkatuta zegoen, ez ziotelako egoitza-baimena izapidetu, Espainiako hainbat tokitan 15 urte zituenetik tutoretzapean egon arren. Arartekoak Bizkaiko Haurren Zerbitzura jo zuen, eskatzeko behar bezala izapidetu zezatela mutilari zegokion baimena; kexa ondo itxi zen.

Beste kexan, adingabea Bizkaiko lehen harrerarako baliabidetik kanporatu zuten, Nafarroako Fiskaltzak adierazi zuelako adin nagusikoa zela, nahiz eta pasaportean adingabea zela jarri. Interesdunak atzera egin zuen kexan, beste toki batera lekualdatu zutelako.

2022an, Arartekoak jarraipena egin dio Bizkaiko Foru Aldundiaren "Vivero" egoitza-baliabidean (Galdakao) emandako arretari; 2021eko abenduaren amaieran ireki zuten egoitza, premiaz, Zornotzako lehen harrerarako baliabidean sutea piztu zelako. Egiazki, gertakari hark aurreratu egin zuen 2022ko otsailerako aurreikusita zegoen lekualdaketa, zeina beharrezkoa baitzen, ur beltzak kanalizatzeko lanak eta zentroaren lursailetako bide-azpiegituretan lanak egiteko. Hasiera batean, apirilean Zornotzako egoitza-baliabidera itzultzea aurreikusi zen, baina ekainera arte atzeratu zuten gero, baina, egiazki, Bizkaira bakarrik iritsi diren atzerritar adingabe (mutil) guztiei "Vivero" zentroan egin zaie lehen harrera 2022 osoan.

Ofiziozko jarduketa hori izapidetzean, honako jarduketa hauek egin ditugu: zentrora bisita, bilera Haurren Zerbitzuarekin, informazio-eskaera Sailari, igorritako informazio zabalaren azterketa eta beste bisita bat zentrora (abenduan), logela batean sutea piztu ondoren. Egun hartan, Arartekoak jakin zuen ordura arte Zornotzako lehen harrerarako zentroa, Vivero zentroa eta Pertika zentroa (Muxika) kudeatzen zituen entitateak foru-zerbitzuari adierazi ziola ez zeukala egoitza-baliabideak kudeatzen jarraitzeko asmorik eta ez zuela hitzarmena luzatuko. Zornotzako eraikinari dagokionez, 2023ko otsailean zati bat ireki ahalko dela aurreikusi da (21 pertsona hartzeko prestatu dute), eta, hilabete batzuetara, bigarren eraikina prest egongo da (antzeko edukiera dauka).

Etapa bat "itxi" den honetan, nahiz eta mutil horiei urte osoan arreta emateko dauden baldintzekin ditugun kezkak ugariak izan eta bildu dugun informazioa zabala eta xehea izan, txosten hau idazteko unean Arartekoa gomendio bat idazten ari zaio Gizarte Ekintzako Sailari. Gomendio horretan, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako premiazko harrera-programari luzaroan egindako jarraipena oinarri hartuta (Zornotzan eta, azken urtean, Viveron), oinarrizko kontu orokorrei buruz mintzatuko da Arartekoa; hau da, programa azkenean garatuko den tokian aplikagarriak diren kontuei buruz. Kontu horiek zerikusia dute harrera-baldintzak duinak izatearekin (toki nahikoak, arauaren araberako baldintza material eta funtzionalak, jarduketetan arduraz jokatzea...) edota harreran hartutako nerabeen askotariko premiei erantzun bereizia emateko baliabide-sare bat konfiguratzearekin.

Gure ekimenez baita ere, Viveron hartuta dauden mutil aljeriar batzuekin izandako elkarrizketen ondorioz, Arartekoak laguntza eskatu dio Aljeriako Giza Eskubideen Kontseilu Nazionalari (Arartekoaren erakunde homologoa da, eta GAHNRI (Global Alliance of National Human Rights Insti-

tutions) aliantzako eta Mediterraneoko Ombusdmanaren Elkarteko kidea da), Euskadiko administrazioen tutoretzapeko adingabe aljeriarrek zailtasunak izaten dituztelako pasaportea lortzeko. Haur horiek bizi duten egoerak sorgin-gurpila dirudi: ezin dezakete egoitza-baimena eskuratu, nortasun-agiririk ez edukitzeagatik, eta ezin dute nortasun-agiria lortu, egoitza-baimenik ez dutelako.

Egoera ulertzeko, lehenik eta behin adierazi behar dugu haur horiek, Espainiako Estatura aurretiko baimenik eta bisaturik gabe iritsi badira ere, ez daudela egoera irregularrean; izan ere, atzerritartasunari buruzko Espainiako araudiaren arabera, Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten, babesgabetasun-egoeran dauden eta tutoretzapean dauden adingabeak administrazio-egoera erregularrean daude eskudun agintaritzak haien tutoretza hartzen duten unetik. Halere, arau horrexek berak eskatzen duenez, egoitza-baimena eman behar zaie haur horiei (tutoretza hartu zeneko egunera arteko atzeraeraginezko ondorioekin), baina horretarako nahitaez erakutsi behar dute jatorrizko herrialdeak (Aljeriak) igorritako nortasun-agiria. Arartekoari esan diotenaren arabera, Espainiako Estatuan dauden kontsulatu aljeriarrek uko egiten diote haur horiei pasaportea emateari, Espainian bizitzeko egoitza-baimen baliodunik ez dutelako aitzakiapean. Egia da kontsulatu aljeriarrek Aljeriara joan eta han pasaportea lortzeko aukera ematen dietela, baina aukera hori teorikoa da gehiago, benetakoa baino, herrialdea utzi duten eta garatzeko behar duten laguntza nahikorik ez duten haur batzuentzat. Are, Euskadiko agintaritzek haur horiek tutoretzapean hartzea erabaki zuten, haien interes gorenarekin bateragarriagoa zelako aukera hori, jatorrizko herrialdera itzularaztea baino.

Egoitza-baimena ez edukitzea suntsitzailea izan daiteke mutilek 18 urte betetzen dituztenean. Une horretan, Euskadiko administrazioen tutoretza automatikoki eteten da, eta, horrekin, Espainiako Estatuan legez bizitzeko aukera galtzen dute. Tutoretzapean daudela egoitza-baimena eskuratzen badute, ordea, bi urteko egoitza-baimena eta lan-baimena (berritu daitezkeenak) eskuratu ahalko dituzte adin nagusikoak egiten direnean.

Arartekoaren ustez, egoera hori bateraezina da Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean ezarritako haurren eskubideekin (Aljeriak eta Espainiak hitzarmen hori sinatu zuten); zehazki, egoerak ez du bat egiten nortasuna babesteko eskubidearekin eta garatzeko eskubidearekin. Beraz, esku har dezala eskatu diogu Aljeriako Giza Eskubideen Kontseilu Nazionalari, kontsulatu aljeriarren jarrera alda dadin eta adingabeen interes gorenarekin bat jardun dezaten. Zoritxarrez, txosten hau idatzi dugun unean, artean ez dugu erantzunik jaso.

Gazte horiek emantzipatzeko etapan izaten dituzten zailtasunekin lotuta, 2022an gazte atzerritar batzuen kexak jasotzen jarraitu dugu: gazteok Bilboko Udalaren gizarte-zerbitzuetara hurbildu ziren, adin nagusikoak egindakoan. Gizarte-larrialdiko udal-zerbitzuetan, gizarte-arretaren eskari handia pilatzen da (batez ere, Bilbon eta Donostian, baina baita Gasteizen ere). Arazo larria da hori, udalaren gizarte-zerbitzuek gainezka egiten dutelako, eta zaila delako banan-banako gizarte-arreta jasotzea. Halaber, bizilekua aurkitzeko ezintasunak eta fikziozko errolda edo errolda soziala eskuratu ahal izateko eskatzen diren izapideek kalte egiten diote gizarteratzeko prozesuaren jarraitutasunari (behin adin nagusitasunera iritsitakoan), eta oztopatu egiten dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak aitortzen dituen eskubideez eta zerbitzuez gozatzea.

Euskal gizartearen zati handi batek dagoeneko badaki Euskadin erreferente familiarrik ez duten gazte migratzaileen errealitatea zein den, baita lan-merkatura sartzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituztela ere, Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiaren azken Barometroan islatzen den moduan. Era berean, gehienek uste dute erakundeek ahalegina egin beharko luketela pertsona horiei gizarteratzen laguntzeko (% 86,6) nahiz haien eskubideak bermatzeko (% 85,8).

Iaz esan bezala, Arartekoak sakon aztertu zuen arazoa ***Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin. Diagnostikoa eta jarduteko proposamenak*** azterlanean. Bada, txosten horren amaieran, gomendio-multzo bat jasotzen da; orain, Euskadiko gazteei emantzipazio-prozesuetan laguntzeko politiken eta migratzaileei gizarteratzen eta gizartean parte hartzen laguntzeko politiken esparruan, familia-erreferenterik ez duten 18 eta 23 urte arteko gazteei zuzendutako estrategia integral bat abiatzeari buruzkoa nabarmenduko dugu.

2022an, Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030eko Euskal Estrategia onetsi du Eusko Jaurlaritzak, non, kohesioari buruzko 4. ardatzean, familia-babesik ez duten 25 urte arteko gazteei laguntzeko Trapezistak programa aurreikusten baita. Programa horrek Euskarri estrategia garatzen du, zeinaren helburua baita zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeei eta gazteei gizarteratzen eta laneratzen laguntzea. Bada, Eusko Jaurlaritzaren Migrazio eta Asiloen zuzendariaren hitzetan, programak erantzun integrala ematen du, gazteei buruzko politiken esparruan kokatzen dena, Arartekoak eskatu moduan. 5. ardatzak, erresilientziari eta aholkularitza- eta bidelaguntza-zerbitzu bat sortzeari buruzkoak, *Ameslariak* programa barnebiltzen du, gazteen migrazio- eta mugikortasun-proiektuak babesteari begirakoa.

Arartekoak ondo baloratzen du programa horiek aurreikusi izana, baina azpimarratu egin nahi du familia-erreferenterik ez duten gazte guztiei eman beharko lieketela arreta; izan ere, jasotako kexetan egiaztatu dugunez, zaurgarritasun-egoera larriak detektatzen jarraitzen dugu Euskadiko administrazio baten tutoretzapean egon ondoren emantzipatzeko prozesuetan bidelaguntzarik ez izateagatik, baita familia-erreferenterik gabeko beste gazte batzuengan ere.

Azkenik, adierazi beharra dugu Haur eta Nerabeentzako Bulegoak familia-erreferenterik ez duten gazte eta nerabe atzerritarren eskubideak defendatu eta sustatzearekin lotutako beste ekimen batzuetan ere parte hartu duela. Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuak antolatutako Reforma del reglamento de extranjería. ¿Una ventana de oportunidades para los menores y jóvenes no acompañados?" (Atzerritarren araudiaren erreforma. Aukera-leihoa ote bakarrik

dauden adingabe eta gazteentzat?) jardunaldian, erreforma aplikatzeari buruzko mahai-inguru instituzionalean, ponentzia bat aurkeztu genuen, eta Gipuzkoako Caritasek antolatutako "Migrazioak ulertu" jardunaldian, beste bat. Bestalde, ACNURek eta Comillaseko Unibertsitateak egindako "Guía para profesionales sobre niños y niñas refugiados no acompañados y separados" (Bakarrik eta bananduta dauden haur errefuxiatuei buruzko gida, profesionalentzat) gidaren aurkezpenera joan ginen, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak parte hartu baitzuen gida egitean, informatzaile gisa. Biltzen zerbitzuak, berriz, "Gizartean gazte atzerritarrekin esku hartzeko prozesuak. Osasun mentalari kulturartekotasunetik begiratzea" mintegia antolatu zuen, eta arartekoa gonbidatu zuen, parte har zezan.

Agente sozial eta instituzionalekin egindako bilerei dagokienez, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa Espainiako Herriaren Defendatzailearekin, ACCEM Gasteiz antolakundearekin eta Harresiak Apurtuz koordinakundearekin egindako bileretan egon da; bilera horietan, besteak beste, Euskadin familia-erreferenterik ez duten adingabe atzerritarrek izaten dituzten arazoekin eta zailtasunekin lotutako gaiak jorratu ziren.

## 2.3.5. Sexu-abusua

2021eko maiatzean, Arartekoak jendaurrean aurkeztu zuen **Arartekoaren maiatzaren 18ko 2/2021 Gomendio Orokorra**. **Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak**, eta, gomendio horrekin, amaitu egin zuen tartean diren instantziei haurren sexu-abusuen kasuak detektatzeko eta kasuotan esku hartzeko jarduketa-protokolo partekatu bat emateko egitasmoa. 2022an, gomendio horretan jasotzen diren proposamenak (adibidez, beren eskumen-eremuan jarraibideak hedatu eta aplikatzea, profesionalak trebatu eta espezializatzea eta garatutako neurriak ebaluatzea) betetzeko abiatutako jarduketen jarraipena egin dugu, bai eta, modu orokorragoan, kasuon tratamendua hobetzeko egin diren aurrerapenena ere. Datozen paragrafoetan, jarraipen horren emaitzaren berri emango dugu.

Gure ustez aipatu behar den lehenengo egitasmoa, hain zuzen ere **erantzun integrala** ematen duelako, Gasteizen Barnahus proiektua planifikatu, garatu eta betearazteko proiektu pilotua martxan jartzea izan da. Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatu du, Haurren eta Nerabeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Estrategiaren esparruan. Urtarrilean, talde teknikoa lanean hasi zen. Talde horretarako, deituak zeuden eredu pilotua ezartzeko funtsezkotzat jotzen ziren agenteak; sailaren hitzetan, honako helburu honekin: "de diseñar las directrices básicas del modelo integral de intervención ante situaciones de abuso sexual en Euskadi y establecer los mecanismos de coordinación de los recursos incluidos en los distintos sistemas implicados, orientados a asegurar una intervención integral" (Euskadin sexu-abusuko egoeretan esku hartzeko eredu integralaren oinarrizko gidalerroak diseinatzea eta inplikatutako sistemetan –esku-hartze integrala ziurtatzera bideratutakoetan– sartutako baliabideak koordinatzeko mekanismoak ezartzea). Kontsultatutako hainbat erakundek adierazi zuten urtearen hasieratik ari zirela parte hartzen proiektu pilotua diseinatu eta betearazteko lantalde tekniko horretan: sail sustatzailea bera (Justizia Arloarekin eta Haurren Arloarekin); Osasun Saila, Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala. Txosten hau ixtean jakin dugu zerbitzua hartuko duen eraikineko obrekin lotutako zenbait zailtasun gainditu direla eta eraikina 2023ko lehenengo seihilekoan irekitzea aurreikusi dutela.

Arartekoak ondo baloratzen du prozesu hori; izan ere, gomendio orokorrean esaten zen moduan, "gomendio honekin batera egin den proposamen teknikoa ez zaie kontrajartzen ekimen berri horiei denei, eta, gainera, guztiz bat dator ekimen horien helburuarekin eta orientabidearekin". Barnahus ereduak erantzun integrala ematen du, eta biktima babesteko (birbiktimizazioa saiheste eta kaltea erreparatzeko tratamendura azkar iristea errazte aldera) nahiz prozedura judizialaren bermeak zaintzeko betekizunei erantzuten die. Abiatutako neurri hori arrakastaz burutu dadin zaintzeaz harago, tartean diren gainerako agenteei (Bizkaikoei eta Gipuzkoakoei, esate baterako) aurrerapenen berri eman behar zaie, haien irizpideak, prozedurak eta harreman-mapa ildo egokian prestatzen joan daitezen. Haietako batzuen berariazko eskaera da.

Norberaren eskumen-eremuan **jarduteko jarraibideak aplikatzeari** dagokionez, *berrikuspena* izan liteke erantzun guztien elementu komuna. Hala, Hezkuntza Sailak 2021eko uztailean hartutako erabaki baten berri eman zigun: 2021-2022 ikasturtean, berrikusi eta eguneratu egingo zuten "Protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jardutekoa", 2/2021 Gomendio Orokorrean jasotzen diren jarraibideak ez ezik honako hauetan jasotzen direnak ere aintzat hartuz: Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa (onetsi berri zegoen) eta Haurren eta Nerabeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Estrategia (2022-2025). Berrikuspenarekin, adierazi zuenez, dokumentuaren eduki berria zehaztuko zen, bai eta protokoloa eraginkor ezartzeko behar ziren hedapen-, prestakuntza- eta koordinazio-ekintzak zehaztu ere. Alabaina, urte amaieran emandako informazioak ez du berrikuspen hori aipatu ere egiten, eta protokoloa ezaguna dela, erabili egiten dela eta gizarte-zerbitzuetarako deribazioak egiten direla ziurtatzen du. Bestalde, indarkeria matxistaren biktimentzako arretari lotutako jarduketa batzuen datuak ematen ditu, nahiz eta haurren eta nerabeen aurkako indarkeria testuinguru horretara soilik ez mugatu.

Jarduteko jarraibideetan, neurri batek esaten du erreferentziazko lau ospitale izendatu behar direla haurren eta nerabeen sexu-abusuko eta sexu-esplotazioko kasuak daudenean edo horren susmoak daudenean osasun-laguntza emateko (Gurutzetakoa, Basurtukoa, Arabakoa eta Donostiakoa). Bada, Osasun Sailak otsailean jakitera eman zuenez, hezkuntza-zentroak, Ertzaintza, lehen arretako zentroak eta osasun-zentro pribatuak ospitale horietara deribatzen dituzte haur eta nerabeak, sexu-abusuko edo sexu-esplotazioko

zantzuak edo susmoa daudenean, osasun-arreta eman eta azterketa medikoa egin dakien. Era berean, pazienteak intimitate-baldintza onenetan hartzeko eta dagozkion balorazio diagnostiko eta terapeutikoak egin ahal izateko guneak egokitzeko beharrezkoak diren obra arkitektonikoak hasi zirela esan zuen sail horrek. Txosten hau amaitzeko egunean, Arartekoak ez zeukan 2022an egindako obren edo bestelako jarduketen aurrerapen-mailari buruzko informaziorik.

Segurtasun Sailak, berriz, Ertzaintzaren Adingabeen Talde Egonkorrak hartutako erabaki baten berri eman zigun: "Adingabeekiko polizia-jarduketa" 048. zerbitzu-agindua aldatuko zuten, 2018koa hori, aipatutako jarraibideen edukiari nahiz ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoari egokitzeko. Urtarrilean bidali zigun erantzunean adierazten zenez, aldaketa hori 2022ko hasierako hilabeteetan argitaratuko zen; hala ere, sail horrekin arrazoi hori zela-eta urtearen amaieran edukitako bileran eman ziguten dokumentuan jartzen du 2020an egin zela. Zerbitzu-agindu horretan, haur eta nerabe biktima edo lekukoekin aritzeko polizia-jarduketa zehazten duten atalak aztertu ditugu, eta ondorioztatu dugu 048. zerbitzu-agindua, oro har, bat datorrela Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorrean jasotzen diren jardun-printzipioekin eta -jarraibideekin. Zentzu horretan, zerbitzu-agindu horrek emaitza onak eman ditzake, gomendioaren xede den esku-hartze eraginkorrari begira. Zerbitzu-aginduan adierazten diren jarraibide eta ohar batzuk behar bezala gauzatzeko, baina, agenteak espezializatu eta trebatu beharko dira (gero jorratuko dugu gai hori).

Babesgabe dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuetan eskumena duten foru-aldundietako sailek adierazi zuten gaur egungo prozesu gehien-gehienak bat datozela jarduteko jarraibideekin eta, nolanahi ere, aldizka berrikusten dituztela. Gipuzkoako Foru Aldundiak jada abian jarritako jarduketa espezifiko batzuk aipatu zituen bere erantzunean; hala nola, honako hauek: adingabeen kontrako sexu-delituetan jarduteko prozedura bat egitea, zerbitzuan artatzen diren adingabeei begirakoa, profesionalek argi izan dezaten zer urrats eman behar dituzten gerta litezkeen sexu-gertakarien aurrean (dokumentua kontraste-fasean dago, talde profesionalekin, eta eremu judizialean berrikustea aurreikusi da); EZIA-Bideratu lantaldea sortzea, sexu-gertakariei buruzko jakinarazpenak elkarlanean aztertu daitezen eta, horrela, jarduteko denbora eta kasuaren orientabidea hobetu daitezen; profesionalentzako aholkularitza hobetzea, ezagut ditzaketen sexu-gertakarien aurrean jarduteko moduari buruzkoa (kasuz kasu egin daiteke, edo inplikatutako profesionalen taldeari prestakuntza espezifikoa emanez).

EUDELek udal batzuk izendatu zituen hasierako lantaldean ordezkariak izan zitezen; bada, udal horiek aditzera eman zutenez, gizarte-zerbitzuetan jarduteko jarraibideak aplikatu dira, "ahal izan den neurrian", eta berehala eta lehentasunez ematen zaie arreta jasotzen dituzten sexu-edukiko jakinarazpenei. Gainerakoan, funtzionamendu arruntean ohikoak diren prebentzio-, detekzio- eta jakinarazpen-lanak (lantegi soziohezitzaileak haur eta nerabeekin; gizarte-eta komunitate-agenteen sentsibilizazioa eta prestakuntza, zonaldeko mahaietan edo elkarlaneko testuinguruetan; beste eremu batzuetatik gizarte-zerbitzuetara deribatzeko protokoloak) eta esku hartzeko lanak (informazio-bilketa; foru-aldundietako gizarte-zerbitzuetarako deribazioa, berdinen artean sexu-jokaera ezegokiak daudenean –Donostiako kasua da hori– edo gurasoek behar bezala babesten ez dutenean; Fiskaltzarako komunikazioa eta, hala badagokio, familia babeslearentzako bidelaguntza) egiten jarraitzen zuten. Bilboko Udalaren Segurtasun Arloak emandako informazioa gaineratu behar dugu hemen, "Adingabeengan arrisku-egoerak goiz detektatu eta jardutea" IN-010 instrukzioa berrikustea proposatu baitio Zuzendaritzari. Proposamen horretan, berariaz jasotzen dira Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorreko kontuak, baita Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan adierazten diren eta polizia-jardunarekin lotuta dauden berritasun nagusiak ere.

**Jarduteko jarraibideak hedatzeari** dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak esan zigun erreferentziazko lau zentroetako zuzendaritzetara bidali zutela jarraibideok jasotzen dituen dokumentua, tartean dauden laguntzaile profesionalen artean hedatu eta sustatu daitezen. Ospitale bakoitzean protokolo bat zutenez, lau zentroek adierazi zuten Arartekoak egindako proposamenak hobekuntzak ekarriko zituela, jarduteko protokolo komun bat ezartzea zekarrelako. Txosten hau amaitu dugun egunean, ez dakigu bateratze hori egin den.

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko nahiz Donostiako Udalek adierazi ziguten gomendioak hedatu zituztela beren arloko/zerbitzuko/saileko profesionalen artean eta, are, baita haiekin lankidetzan aritzen diren edo zerbitzu ematen dieten instantzia eta antolakundeen artean ere. Arabako Gizarte Politiketako Sailak, gainera, jarduteko jarraibideak sartu zituen azken enplegu-eskaintzan.

**Profesionalen prestakuntzari eta espezializazioari** dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak jakitera eman ziguten hainbat profesionalek 2021ean jada parte hartu zutela IVAPek EHUrekin batera eskaintzen duen "Haur eta nerabeen kontrako sexu-abusuak: oinarrizko ikastaroan" (30 orduko iraupena dauka). Bilboko Udalean, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalek hartu zuten parte. Bizkaiko Foru Aldundian, Haurren Zerbitzuko hamabi profesionalek. Osasun-eremuko langileen kasuan, azkenik, sail horrek adierazi zuen 2021ean 400 lagunek (horietatik 263 zuzeneko esku-hartzean zeuden) hartu zutela parte prestakuntza-ekintza horretan, eta 2022rako "Haur eta nerabeen aurkako sexu-abusuen egoeretan esku hartzeko espezializazio-ikastaroa" eskaini zela, 50 ordukoa. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ere IVAPen prestakuntza-jarduera horiexek eskaini zituen 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan, Prest Gara programan sartutako beste batzuez gain; ez dakigu zenbatek hartu zuten parte.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Haurren Zerbitzuak adierazi zuen ahalegin handia egiten duela haurren sexu-abusua detektatzeko eta, beraz, lehentasuna ematen diola teknikariak (langile propioak nahiz kontratatutako programetako teknikariak) trebatzeari. Aurreko paragrafoan aipatutako

ikastaroan ez ezik, "Sexu-jazarpena haurrengan: funtsezko elementuak eta hautematea" ikastaroan ere parte hartu zuten, lanposturako nahitaezko prestakuntzaren barruan. Zerbitzuaren sexu-abusuei buruzko programara atxikitako profesionalek eman zuten, eta teknikari guztiei zegoen zuzenduta. 2022an, gainera, gaiarekin zerikusia duten jardunaldi monografikoetara joan dira.

Arabako Foru Aldundiak adierazi zigun Adingabeen eta Familien Arloko teknikariek parte hartu zutela Save the Children antolakundeak Barnahus proiektuari buruz antolatutako jardunaldi eta prestakuntza-saioetan eta hiru prestakuntza-ekintza espezifiko sartu zituztela Barne Prestakuntzako Urteko Planean (2022).

Donostiako Udala modu orokorragoan mintzatu zen, eta adierazi zuen gizarte-zerbitzuen arloko profesionalek (batez ere, haurren arlokoek) gai horri buruzko prestakuntza egiten dutela eta Udalak berak eman eta sustatzen duela prestakuntza hori.

EUDELek adierazi zigun gomendioak jorratzen duen gaiarekin lotutako bi ikastaro egin dituela 2022an, IVAPekin eta foru-aldundiekin elkarlanean, Zeharkako Prestakuntza Planaren esparruan.

Amaitzeko, gomendio orokorrak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari eskatzen zion antola ditzala sexu-abusuen biktima diren haur eta nerabe guztiek **tratamendu publikoa jasotzea bermatzeko** behar diren zerbitzu guztiak. Horri buruz, Barnahus proiektua Euskadin ezarri bitartean, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako foru-zerbitzuek adierazi zuten hobekuntza batzuk egin zituztela babesgabetasunerako arrisku-egoera larrian dauden haur eta nerabeak beren eskumen-esparruan tratatzeko programetan. Donostiako Udalak mugaketa horren berri eman du, agerian jarri baitu familia babesleen egoera: familia horiek ez dira kontuan hartzen foru-aldundietako gizarte-zerbitzuetara deribatzeko protokoloetan, eta, beraz, tratamendu espezializatutik kanpo geratzen dira.

Adierazitako hobekuntzetara itzuliz (hori bai, tratamendu ez-unibertsal baten barruan), Gipuzkoako Haur eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuak adierazi zuen beharrezko laguntza terapeutikoa eskaintzen zutela, hasiera-hasieratik, prozedura judiziala hasi zein ez hasi. Esku-hartze horrek erreparazioa du helburu, eta ez dio oztoporik jartzen eremu judizialean egin daitekeen ikerketa-lanari; nolanahi ere, eremu judiziala informatuta eduki behar da.

Bizkaiko Haurren Zerbitzuak esan zuenez, % 25 handitu zuen "Haurren sexu-abusuen kasuetan azterketa eta esku-hartze psikologikoa egiteko programarako" kontratuaren bolumena, eta itxaron-zerrendak desagertu ziren. Programa horretan, biktimarentzat (eta, hala badagokio, baita familia-sisteman egokitzat jotako beste pertsona batzuentzat ere) egokiena den tratamendua zehazteko hasierako balorazioa egin ondoren, banakako eta taldeko psikoterapia konbinatzen dira, ahal denean eta hala egokitzen denean. Terapia klasikoa nahikoa ez bada, pentsamendu-, mentalizazio- eta hitz-urritasunagatik, tratamendu berritzaileagoak sartzen dira; hala nola, animaliek lagundutako psikoterapia.

Emandako gomendioei egindako jarraipen-prozesua amaitzeko, interesgarria da Bizkaiko Foru Aldundiaren tratamendu-programak emandako informazioa jasotzea, adierazi baitu bi elementu berri eta garrantzitsu hauteman dituela jarduera klinikoan. Bada, garrantzitsuak dira, "por el riesgo y la problemática que entrañan. Se trata de la proliferación de contactos sexuales inadecuados entre menores e iguales, así como el acceso precoz a la pornografía" (dakartzaten arriskuagatik eta problematikagatik. Adingabeen eta berdinen artean sexu-jokaera ezegokiak ugaritzen ari dira, eta goiz jotzen dute pornografiara). Adierazpen horiek "emergen de forma distinta a lo que se ha conocido clásicamente en el contexto del abuso sexual infantil" (ez dira agertzen haurren sexu-abusuaren testuinguruan ezagutu izan duguna bezala).

### 2.3.6. Genero indarkeriaren eraginpean dauden haur eta nerabeak

Arlo honetan egoeran esku hartzen jarraitu dugu, bulegoaren 2019ko txostenean aurkeztutako egoera horretan, ama eta amona lehenaren bikotekide eta haurren aitak hil ondoren bi umezurtzen egoera, alegia. Orduan esan zen moduan, haurren egungo tutoreak Arartekora jo zuen, adieraziz haur horiek ez zutela nahikoa laguntzarik; izan ere, genero indarkeriaren biktima zuzentzat jotzen diren arren, ez diete nahikoa balio izan oraindik biktima gisa merezi duten laguntza hezurmamitzen duten neurriek. 2019an hobetu egin ziren jasotzen dituzten umezurtz pentsioak eta, hain zuzen, arreta psikologikoari dagokionez gizarte zerbitzuen eskainitako erantzun egokia aipatua genuen. Esku hartzeak 2020an eta 2021ean jarraitu zuen, beste esparru batzuetan, adibidez, zerga alorrean eta familientzako laguntzen alorrean, baita etxebizitzarenean ere. Horiek ez dute horrelako inguruabarrik aurreikusten, ezta salbuespen gisa ere, hain bereziak izaki.

2022an, azken eskaera bat egin genion Espainiako Herriaren Defendatzaileari, ikasteko bekekin eta laguntzekin lotutakoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako erantzunak Hezkuntza Ministerioak emandako jarraibideak aipatzen zituelako.

Arartekoak, nolanahi ere, uste du egoera horiek modu sistemiko eta estrukturalean jorratu behar direla; hau da, ez direla jo behar arauen salbuespentzat. Hala, poztu egin gara, egoera hori *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Lege* berrian sartu eta ikusgai egin delako (lege berriari izen hau jarri diote: *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legea*), kezka horren berri eman baitzitzaien lege berriaren egileei. Arartekoak, halaber, lagundu egin du, lege-xedapenak umezurtzen arretaren hobekuntzan gauzatu daitezen *EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioan*, zeina 2023ko lehen egunetan sinatu baitzuten, 2022an lan mardula egin ondoren.

## 2.4. Familia babeslea izateko eskubidea

### *18. artikulua*

1. *Bi gurasoek dituzte betebeharrak haurra hazi eta hezteko garaian, eta estatu kideek indar guztiak jarriko dituzte printzipio horren onespena bermatzeko. Gurasoei edo, hala dagokionean, legezko ordezkariei dagokie haurra hazi eta garatzearen erantzukizuna. Estatuen ardura garrantzitsuena haurraren interesa izango da.*
2. *Hitzarmen honetan jasotako eskubideak bermatu eta sustatzeko, estatu kideek laguntza egokia emango die gurasoei eta legezko ordezkariei, haurra hazteko betebeharrean behar bezala joka dezaten; halaber, haurrak zaintzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuen sorrera bultzatuko dute.*

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezen sustatzen du, familia-eredu askotarikoen garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatetsiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeko.

### 2.4.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

**Europa-mailan**, Europako Batzordearen egitasmo berri bat nabarmendu behar dugu. Batzordeburuak 2022ko abenduan iragarri zuen, eta helburu du Gurasotasun Ziurtagiri Europarra sortzea, EBko 27 estatu kideetan baliozkoa izango dena, Batasuneko beste herrialde batzuetara bizitzera joaten diren familien administrazio-izapideak erraztu daitezen haien eskubideak aitortzen ez dituzten herrialdeetan. Horri begira, Europako Batzordeak erregelamendu-proposamen bat onetsi du, Gurasotasun Ziurtagiri Europarra sortzeko eta estatu kideen legedia (seme-alabatasunari eta gurasotasunari buruzko erabakiak aitortzeari buruzkoa) bateratzeko, EBko estatu kide batean ezarritako gurasotasuna gainerako herrialde guztietan aitor dadin, prozedura berezirik egin beharrik gabe. Hala, ziurtagiri europar horrek izapideak egiten erraztuko du, eta, horrela, sexu bereko gurasoen seme-alaben eskubideak Europa osoan aitortzen lagunduko du.

EB osoan ez dira legez aitortzen bikote homosexualen seme-alaben eskubideak, estatu kideek legedi desberdinak baitauzkate seme-alabek gurasoekiko duten seme-alabatasunaren eremuko jurisdikzioari, lege aplikagarriari eta aitortzari dagokienez. Europako Batzordearen esanetan, errealitate horrek oztopo juridikoak jar diezazkieke estatu batetik beste batera mugitzen diren familiei (adibidez, oinordetzan, elikagai-pentsioa jasotzeko eskubidean edo dibortzio-kasuen zaintza-eskubideetan); bereziki, mugaz gaindiko egoeran dauden familiei. Zalantzarik gabe, Europako erregulazio berri hori aplikatzeak oso eragin ona izango du kasu horietan.

**Estatu-mailan**, Ministroen Kontseiluak abenduaren 14an Familiei buruzko Legearen aurreproiektua onetsi izana da gertakaririk aipagarriena. Testuak honako lau zutabe hauek ditu oinarri: familientzako babes soziala eta hazkuntzarako laguntza zabaltzea; kontziliaziorako eskubidea bermatzea; familia mota desberdinei erabateko aitortza juridikoa egitea eta haur eta nerabeen eskubideak babestea.

Familia mota desberdinei aitortza juridikoa egiteari dagokionez, legeak urrats berriak eman ditu bikote ezkonduen eta izatezko bikoteen eskubideak berdintzeko, eta aitortza- eta babes-esparru berri bat sortu du LGTBI familientzat, desgaitasunen bat duen kideren bat duten familientzat, familia ugarientzat eta seme-alabaren bat adopzioan edo harreran duten familientzat.

Aurreproiektuan, hazkuntzari laguntzeko neurriak jasotzen dira, eta, neurrion artean, kontziliaziorako eta zainketetarako baimen berriak daude; halaber, 0 eta 3 urte bitarteko seme-alabak dauzkaten familia gehiagok jasoko dute hilean 100 euroko errenta.

Bestalde, familia ugarien babesa beste familia batzuetara hedatu da; adibidez, bi seme-alaba edo gehiago dauzkaten guraso bakarreko familietara. Testuan, halaber, onura berberak aitortzen zaizkie bai gurasoetako bat urtebetez baino gehiagoz ospitaleratuta egoteagatik edo espetxean egoteagatik, bai seme-alaben zaintza gurasoetako batek bakarrik edukitzeagatik aldi batez guraso bakarrekoak diren familiei. Familia horiei guztiak "*hazkuntzan laguntzeko premia handiagoak dituzten familiatzat*" hartuko dira.

**Autonomia-erkidegoan**, familiei seme-alaben hazkuntzan laguntzeko neurri berriak iragarri dira, autonomia-erkidegoaren eskumenen barruan. Hala, urteko azken asteetan, 2023tik aurrera seme-alabak dauzkaten familientzako laguntzak erregulatuko dituen dekretu-proiektuaren berri izan dugu. Dekretu berriarekin, gaur egungo arau erregulatzailea ordezkatuko da, eta aurrera egingo da familiei seme-alaben hazkuntzan laguntzeko orduan, zenbatekoak areagotuz, laguntzaren iraupena luzatuz eta prozedura soilduz.

Arartekoak uste du egitasmo horrek aurrera egiten duela "familiako inbertsio publikoa indartzeko" eskaera errepikatuaren ildoan, "bereziki, seme-alabak dauzkaten familien gastuak konpentsatzeko". Egitasmoa onesten denean, nolanahi ere, aztertu egingo da dekretu berriak zer mailatan konpentsatzen dituen Save the Children antolakundeak egindako azterlanean adierazten diren hazkuntza-kostuak (Euskadiko hazkuntza-kostuak, zeinak II. kapituluaren 2.1.1. apartatuan aipatzen baitira). Era berean, hartzaileengana zer mailatan iristen den eta prozedura soildua gauzatu ote den aztertuko da.

### 2.4.2. Kexetan pozik ez egoteko azaldu diren arrazoiak

#### a. Seme-alabengatik laguntzak ematearekin lotutako arazoak

Aurten ere, Eusko Jaurlaritzak beren kargura seme-alabak dituzten familiei laguntzeko antolatuak dituen laguntzei da-

gozkien eskaerak ukatu edo artxibatzeak erreklamazioak eragin ditu. Laguntza horiek ukatzearen kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoen ebazpena emateko urtebete baino gehiago atzeratu izanagatik jo izan dute behin eta berriz herritarrek Arartekora. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, justifikatzeko, adierazi du berandutze hori gertatu dela errekurtso asko aurkeztu direlako eta ez dutelako giza baliabide nahikorik horiek ebazteko.

Herritarrek Arartekoari esku har dezan egin dizkioten eskaera askotan, laguntzen kudeaketa elektronikoarekin eta elkarreragingarritasunarekin loturiko arazoak bistaratzen dira, nahiz eta ez diren horiek erreklamazioaren muina zuzenean. Zailtasunak egon dira izapidetze digital praktikoan (jakinarazpenak deskargatu, dokumentuak erantsi, errekurtsoak aurkeztu) zein online izapidetzean (eta elkarreragingarritasunaren inplikazioak), eta agerian jarri da hobetzeko marjina dezente dagoela oraindik herritarrek izapidetze elektronikoa aurrez aurreko izapidetzera parekatzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, ikusi denez, errekurtsoa eta kexa jaso duten ukatzeko ebazpen batzuk, okerrak ez diren arren, ekidin egin ahalko ziren laguntza eskuratu ahal izateko gutxieneko baldintzen aurretiazko lehen balorazio batekin. Horren adibide izango litzateke haur jaioberria laguntzaren eskatzailearen etxebizitza berean egotea erroldatuta; hori, azterturiko kasuetan, erraz konpondu ahalko litzateke. Eskaerak azkarrago ebazteak, zehazki, eskaerarako ezarritako hiru hilabete baino gutxiagoko epean, antzeko ondorio bat izan ahalko luke, izan ere, horrela, laguntzaren eskatzaileek epearen barruan beste eskaera bat aurkezteko aukera izango lukete, ukatzeko arrazoiak ezagutu eta zuzendu ostean.

Aurten, gainera, kexak jaso dira ez direlako laguntzak aitortu haurra jaio eta gutxira hil den kasuetan, eta familiak jadanik jaiotzarako prestakuntza-gastuak egin dituenean. Nahiz eta ez diren zorrozki betetzen laguntzak arautzen dituen *30/2015 Dekretuan* ezarritako baldintzak, eta kontuan izanda familiek pairatzen duten egoera hain mingarriagatik arreta jaso ahal dutela, Sailari galdetu zaio ea aurreikusten duen kasu horiek arauaren etorkizuneko aldaketetan jasotzea; baina oraindik ez du erantzun.

## b. Familia-kontziliaziorako neurriekin lotutako arazoak

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren familia-kontziliaziorako laguntza ekonomikoekin loturiko erreklamazioetan planteaturiko alderdiak aurreko puntuan aipaturiko arazoetan ematen dira. Alde batetik, gora jotzeko errekurtsoak ebazteko orduan asko atzeratu izana; Sailak adierazi duenaren arabera, giza baliabideak falta zaizkielako hainbeste errekurtso izapidetzeko. Beste alde batetik, laguntzak telematikoki izapidetzeko izandako arazoak.

Egiaz, elkarreragingarritasuna administrazio-sinplifikazioa ahalbidetzen duen bitarteko gisa planteatzen da, baina, batzuetan, laguntzak baliatu ahal izatea zaildu dezaketen egoerak sor ditzake. Hori ikusi da zerga-zor bat izateagatik laguntza ukatu dieten pertsonen zenbait erreklamaziotan. Zor horiek, normalean, zenbateko txikikoak izan dira eta zordunak ez dute horien berri izan arrazoi horrengatik laguntza ukatu diotenera arte. Elkarreragingarritasuna —administratuari jadanik administrazioak esku artean duen dokumentazioa aurkezteko betebeharra kendu nahi diona— kasu honetan herritarren interesen kontra joan daiteke eta aldea ezarri dezake elkarreragingarritasuna onartzen duenaren eta ziurtagiriak pertsonalki aurkezteko hautua egiten duenaren artean.

Interesdunak onartu egin badu (ez duelako berariaz uko egin) organo kudeatzaileak bere datuak automatikoki kontsultatzea, Administrazioak eskaera ezetsiko dio, aukerarik eman gabe egoera zuzentzeko, izan ere, eskaera egiten duen unean, egunean izan behar ditu bere zerga-betebeharrak. Aitzitik, eskatzaileak uko egingo balio kontsulta automatikoari eta, horren ondorioz, bere zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko balitu, zegokion ogasunaren ziurtagiria zuzenean eskuratu eta gero laguntzaren eskaera-espedientea aurkeztuko balu, jakingo luke ez zituela egunean bere betebeharrak eta, hortaz, ordaintzeke zituen zerga-betebeharrak bete ahalko lituzke ziurtagiri positiboa aurkezteko, bere laguntza-eskaera ebatzi aurretik. Beraz, kontsulta automatikoa onartu duenak, desabantaila-egoeran dago ziurtagiriak aurrez aurre aurkeztu dituenarekin alderatuta. Egiaz, laguntzaren izapidetzea analogikoa balitz, eta bere zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko betebeharra mantenduko balu, ez ginen egoera honetan egongo, izan ere, herritarra bera izango litzateke zerga-informazioa eskuratuko lukeen lehen pertsona.

Kontziliaziorako laguntza ekonomikoekin loturiko erreklamazioez gain eta aurreko edizioetan bezala, herritarrek guraso-baimenen inguruko desadostasunak ere (jaiotza eta edoskitzea) helarazi dituzte, eta, hazkuntzan laguntzeko neurri horien arauketa autonomia-eskumenetik harago doanez, euskal administrazio publikoen zerbitzura daudenen kasuak bakarrik izapidetu dira.

Lehenik, berretsi egin da ordezko langileek edoskitzea metatzearen alde egin dezaketela, Arartekoak iaz gomendatu zuen ildoarekin bat etorriz. Hezkuntza Sailak indarrik gabe utzi zuen **lanaldi-murrizketen, aldi baterako eteteen eta eszedentzien** iraupena arautzen zuen jarraibidea, egindako gomendioari jarraiki, baina ez zuen onartu **gaixotasun kronikoa edo mugitzeko arazoak dituzten senideak artatzeko baimena** aldi baterako langileei hedatzeko gomendioa.

Gaixorik dagoen sendiren bat zaintzeko **norberaren gauzetarako baimena** eskatu zuen pertsona baten baja medikoak kexa eragin zuen, eta Hezkuntza Sailak onartu egin zuen bat zetozen baimen-egunei uko egin izana.

Zenbait kexa **gaixotasunen batek jota** egon diren egunetan **haurrak** artatzeko zailtasunari buruzkoak izan dira; izan ere,

ez da horretarako baimen espezifikorik aurreikusi, eta hori laguntza behar duten beste senide batzuen kasuan ere aplika daiteke. Gai horri araudiaren aldaketa baten bidez edo negoziazio kolektiboaren bidez oratu beharko zaio.

**Jaio eta ordu gutxi batzuetara hil zen jaioberri** baten aitak edoskitze-baimena hartzeko aukerari buruzko kexa bat izapidetzeak (azkenean administrazioak ezetsi egin zuen, uzi hori betetzeko modurik ez zegoelako, ez legearen ikuspegitik, ez epaileen ikuspegitik), bultzatu du Arartekoa egoera horiek ikusaraztera, inguruabar horiei eta gai horretan duten tratamenduari buruzko hausnarketa sustatzeko asmoz.

## c. Familia ugariak

Hiru lurralde historikoetako herritarrek helarazi dituzte erreklamazioak Arartekora familia ugarien tituluaren izapidetzean gertaturiko berandutzeari dagokionez; egoera horrek kalteak eragin baitizkiete hirugarrenen aurrean. Horren haritik, Arartekoak adierazi du berritzeak ezarritako legezko epeen barruan gauzatzen ari direla eta hirugarren horiei (konpainia elektrikoak eta garraio-konpainiak) egin behar zaizkiela erreklamazioak, izan ere, araudian ezartzen denez, onurek berritze-eskaeraren datatik aurrera izango dituzte ondoreak.

Era berean, kexak helarazi dizkigute Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legean aitortzen ez diren askotariko familia-egituretatik ere (hala nola guraso bakarreko familiak edo ezkonduta ez dauden baina elkarrekin hiru seme-alaba dituzten familiak). Arauketa hori, Arartekoaren kasuan bere eskumen-esparrutik kanpo geratzen dena, berrikuspen- eta eguneraketa-prozesuan dago, 2.4.1. puntuan adierazten denez.

## d. Gurasoak bananduta dauzkaten familiak

Guraso bananduek edo dibortziatuek zailtasunak izaten dituzte seme-alaben egunerokotasuneko alderdi ugari kudeatzeko, baina, gizartean familia mota desberdinak gero eta normalizatuago daudenez eta administrazioak familien egoera berritik eratorritako arazoak konpontzeko arauak, instrukzioak eta jarduteko jarraibideak atondu dituenez, zailtasunok konpontzen joan dira urteekin. Nahiz eta egia izan oztopo batzuek (familia ugarien tituluak, erroldei lotutako zerbitzuak edo laguntzak eta abar) hor jarraitzen dutela, Arartekoak uste zuen dagoeneko gaindituta zegoela 2011ko gomendio batean hizpide izandako gaia; hots, guraso bananduek seme-alabei buruzko datuak (administrazioaren esku daudenak) jasotzeko duten eskubidearen auzia. Dena dela, oraindik orain, gai horri buruzko kexak eta kontsultak jasotzen jarraitzen dugu. Adibidez, nabarmentzekoa da guraso baten kexa: nahigabetuta zegoen, guraso-ahala kendu ez ziotela egiaztatzea eskatzen ziolako Osakidetzak, alaba adingabearen historia klinikora sartzeko.

Horri buruz, adierazi beharra dago Osakidetzak bermatu egin behar duela, erabilera ez-asistentzialerako lehen mailako dokumentazioa edota ospitaleko dokumentazio klinikoa eskuratzeko, adingabe baten legezko ordezkaritza egiaztatzeko baldintzek berberak izatea, gurasoak bananduta egon edo ez eta adingabearen zaintza guraso bati edo biei dagokien alde batera utzita. Legeak gurasoei ematen die, elkarrekin bizi diren edo ez aintzat hartu gabe, emantzipatu gabeko seme-alaba adingabeen guraso-ahala.

Hortaz, banantzeak edo dibortzioak ez du arrazoi izan behar ahal horren titular gisa dituzten eskubideak (informazioa eskuratzeko eta parte hartzeko bideak) mugatzeko, seme-alaben erabateko garapenaren arduraren betebeharra konplitu dezaten.

Muga hori bakarrik justifikatuko litzateke epaitegi batek, berariaz, aitaren edo amaren guraso-ahala mugatzea edo kentzea ebatziko balu guraso eta seme-alaben arteko betebeharrak ez konplitzeagatik. Horren ondorioz, seme-alabatasuna familia-liburuaren edo erregistroko antzeko agiri baten bidez egiaztatu ostean, ez litzateke guraso-ahalaren beste egiaztapenik eskatu beharko (guraso-ahaletik ondorioztatzen baita, legearen aginduz). Alegatzen duenak egiaztatu beharko luke balizko muga hori.

Atal honetan, halaber, **epaileak agindutako familia-elkarguneei** buruzko jarduketak jasoko ditugu, gune horien helburua baita seme-alabek bi gurasoekin harremana edukitzeko duten eskubidea betetzen laguntzea, adostasunik gabeko banantzeen testuinguruetan. Euskadiko epaitegiei eta auzitegiei laguntzeko zerbitzu publikoa denez, Arartekoak jarraipen berezia egiten die haien jarduketei, funtzionamendu horrek indarreko legediarekin bat egiten duela bermatze aldera.

2022an, aurreko urteetan bezala, kexa ia guztiek zerikusia dute zerbitzu publiko horiek epaileek baloratzeko egiten dituzten txostenen edukiarekin. Arartekoak aholku eman behar izan die kexagileei ildo honetan: txosten horiek administrazio-organo batek eman baditu ere, txosten horien baliozkotasunari eta koherentziari buruzko erabakia hartzea txostena horiek eskatu dituen agintaritza judizialari dagokio, eta, beraz, epaitegiak ebazten du bisitak Familia Elkargunean egin behar direla. Horren ondorioz, organo horri helarazten zaizkio txostenak, agintaritza judizialak balora ditzan, alderdiek prozedura judizialetan frogak aurkezteko duten sistemak ez bezala. Beraz, ez Arartekoak, ez beste ezein erakundek ez dute balorazio horretan esku hartzeko ahalmenik, legeak botere judizialari era esklusiboan esleitzen dizkion eginkizunen artean baitago.

## 2.5. Osasunerako eskubidea

### *24. artikulua*

1. *Haurraren eskubidea da osasun-mailarik altuena izatea eta gaixotasunak zaintzeko eta osasuna errehabilitatzeko zerbitzuak erabiltzea. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute eta haur guztiek eskubide hori izateko eta zerbitzu horiek gozatzeko aukera izan dezaten lan egingo dute.*

### 2.5.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

Orain dela ia hiru urte, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) nazioarteko pandemiatzat jo zuen COVID-19ak sortutako osasun publikoko larrialdi-egoera, eta, urte hauetan, botere publikoek eta osasun-agintaritzek agerraldiak kontrolatzeko eta kutsatzeak gelditzeko neurriak hartu dituzte.

Zoritxarrez, 2020ko abenduan adin-tarteen arabera martxan jarritako txertatze-prozesua modu progresiboan orokortu bazen ere, 2022aren hasieran Euskadi osasun-larrialdiko egoeran zegoen berriro ere. Larrialdi-egoera hori esparru juridiko bat da, non *ekainaren 24ko 2/2021 Legeak* jarduten baitu (2/2021 Legea, ekainaren 24koa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoa eta Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) aktibatzen duena).

Bestetik, halabeharrez aipatu behar dugu euskal osasun-sistema (bereziki, lehen mailako arreta) tentsio-egoeran dagoela.

Egoera horrek faktore anitz dauzka atzean, baina tartean diren agente guztiek bat egiten dute baieztatzean COVID-19aren pandemiak aurretiko egoera larriagotu duela; bada, aurretiko egoera hori kaskarra zen jada, familia-medikuntzako eta pediatriako espezialitateen etorkizuneko premiak ez zirelako nahikoa planifikatu, laguntza-maila horri aitortzarik egiten ez zaiolako, osasun-langileak hornitu eta atxikitzeko zailtasunak daudelako eta biztanleak gutxika zahartzen ari direlako eta, ondorioz, gaixotasun kronikoak gora egiten ari direlako.

### 2.5.2. Euskal osasun sistemaren inguruko kexak

Goian azaldutako testuinguruan, 2021ean gertatu bezala, Arartekoan aurkeztu ohi diren kexez gainera, 2022an kexa eta kontsulta ugari aurkeztu dira zerikusia zutenak **COVID-19aren pandemiaren ondorioz herritarrei ezarritako betebeharrekin eta murrizketekin** eta osasun-egoerarekin; kexetako batzuetan, gainera, eragindako haur eta nerabeak zeuden.

- Kapitulu honen hezkuntzarako eskubideari buruzko atalean (2.2) azaldu dugunez, urtearen hasieran kexa ugari jarri ziren hezkuntza-eremuan haur eta nerabeei maskara derrigorrez erabiltzea eskatzearekin ados ez zeudela erakusteko.
- Beste kexa-multzo handi batek EBren COVID ziurtagiri digitala (eskuarki, “Europako COVID pasaportea” esaten zaio) eskuratzeko ezintasunarekin zuen zerikusia, diagnostikoa antigenoen testaren bidez egindako kasuei zegokienez.

  Europako suspertze-ziurtagiria lortzeko, PCR proba positiboa aurkeztu behar zen; beraz, Osakidetzaren protokoloari jarraikiz antigenoen test positibo baten bidez bakarrik diagnostikatutakoek (PCR probaren bidez egiaztatu gabe) ezin zezaketen ziurtagiri hori lortu, eta, beraz, ezta EB barruan aske bidaiatu ere.

  Egoera hori areagotu egin zen *Lehendakariaren abenduaren 14ko 47/2021 Dekretua* onetsi ondoren. Dekretu horren bidez, ugaritu egin ziren Europar Batasunaren Covid Ziurtagiri Digitala (QR) erakustea eskatzen zuten establezimenduak, ekitaldiak, jarduerak eta lekuak, Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren bidez ezarri zirenak. Modu horretan, COVID pasaportearen erabilera orokortu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan.

  Arartekoaren iritziz eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren argudioei jarraikiz, emaitza positibodun antigenoen test batek PCR proba baten baliozkotasun berbera baldin bazuen norbait COVID-19arekin kutsatu zela eta, hortaz, sendatu zela egiaztatzeko, balioets zitekeen Europako ziurtagiri digitala ez zela baliozko bitarteko bakarra egiaztatu ahal izateko pertsona horrek gaixotasuna gainditu zuela. Hortaz, antigenoen testaren bidez diagnostiko-proba positiboa zutenek eskubidea eduki beharko zuketen Lehendakariaren 47/2021 Dekretuan zerrendatutako establezimenduetara sartzeko, Europako COVID ziurtagiri digitala erakusten dutenen baldintza beretan.

  Azkenik, Europako Batzordeak *2022/256 Erregelamendu Eskuordetua (EB)* onetsi zuen 2022ko otsailaren 22an. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/953 Erregelamendua (EB) aldatu zuen, antigenoen proba azkarretan oinarritutako suspertze-ziurtagiriei dagokienez, xedatzeko **suspertze-ziurtagiriak antigenoen proba azkar baten emaitza positiboaren ondoren ere eman zitezkeela**, 2021eko urriaren 1erako atzeraeraginezko ondorioekin, baldin eta antigenoen probak EBren zerrenda komunean bazeuden eta delako estatu kidean behar bezala kualifikatutako langileek edo osasun-langileek egiten bazituzten.

  Bestetik, Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenak, otsailaren 1eko 7/2022 autoaren bidez, ez zuen baimenik eman abenduaren 14ko 47/2021 Dekretua luzatzeko, zeinaren indarraldia 2022ko urtarrilaren 31n amaitzen baitzen.

- Bada, antigenoen probarekin diagnostikatu ondoren ziurtagiria lortu ezin izanagatik ekipamendu publikoetan garatzen ziren kirol-, kultura- eta aisialdi-jardueretan parte hartu ezin zuten neska-mutilen erreklamazioekin batera, txertoa ez hartzea erabaki zuten haurren eta, bereziki, nerabeen kexak aipa-

tu behar ditugu (haiek beraiek edo familiek erabaki zuten txertoa ez jartzea). Ez diogu kasuistika horri helduko, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren 2021eko txostenean komentatu genuelako.

- Bukatzeko, aurreko atalean aipaturiko testuinguruan (alegia, euskal osasun-sistemaren tentsio-egoera), zenbait kexatan (horietako batzuetan umeak kaltetuak izan ziren) aurretiaz programatutako hitzorduen ezeztatzeak aipatu zituzten, bai arreta espezializatuko kontsultak, bai proba diagnostikoak. Horiek guztiak ezeztatu egin ziren osasun administrazioak pandemiari aurre egiteko ezarritako antolamendu neurriak zirela eta. Egoera horrek beharbada eragina izan du ebakuntza kirurgikoak egiteko itxarote-denboretan ere; horren ondorioz, denborak luzatu dira eta aplikatu behar araudian ezarritako denborak gainditu dira.

  Orokorrean, Arartekoak Osakidetzari jakinarazi zion COVID-19arekin loturarik ez duten patologiak dituzten pertsonen egoera nolakoa zen, azalduz hartzen ari ziren tratamenduen jarraikortasuna edo egiteke zituzten kirurgia prozesuak arriskuan zeudela, izan ere, erakunde honek uste du pertsona guztiek arreta berbera merezi dutela. Bestalde, kexa gehienak bideratuta geratu dira izapidetu diren bitartean edo erakunde honek esku hartu ondoren.

Pandemiak sortutako egoera berezia albo batera utzita eta Euskadiko udalerrietan erroldatutako pertsona guztientzako osasun laguntza bermatzea eraginkorra izateko aurrerapenak egin diren arren, atzerritarrek idatzitako **osasun arreta jasotzeko** zailtasunei buruzko kexak jasotzen jarraitu dugu, eta horietako batzuek salatu dute haurdun zeuden emakumeak eta adingabeak ere hasiera batean ez zituztela artatu. Aurrekoetan bezala, gehienetan, osasun zentroetan osasun arretaren eskaera kudeatu zuten pertsonek informaziorik ez izateak eragin du arazoa, eta beraz, horiei guztiei banan-banan eman zaie irtenbidea.

Aurten, kexa baten berri eman behar dugu. Osakidetzak uko egin zion "Duchenne-ren sindromea" zuen haur bati mediku espezialistek agindutako **sendagai bat finantzatzeari**, Espainiako Estatuan ez zegoelako baimenduta. Halere, **Arartekoaren 2022ko apirilaren 25eko Ebazpenaren** ondoren, ondo konpondu zen kontua. Osasun Sailak, hala, sendagai hori finantzatzea onartu zuen, ordenamendu juridiko berrian kasu jakin batzuetarako aurreikusten den sendagaien "erabilera errukitsuan" oinarrituta.

2022an, egiaztatu egin dugu **osasun mentaleko arazoek** gora egin dutela **haur eta nerabeengan**, konfinamendu gogorraren ostean eta pandemiak eragindako ziurgabetasun- eta beldur-egoeraren ondorioz iragarri moduan. Bizkaiko Ospitalez Kanpoko Osasun Mentaleko Sarearen Haur eta Nerabeen Zerbitzuko buruak emandako datuen arabera (Arartekoak antolatutako "***Euskadin osasun mentalari ematen zaion arreta: gaiari heltzeko eredua, dauden baliabideak, antzemandako beharrak eta sistemen arteko koordinazioa***" udako ikastaroan eman zituen datuok, eta Txosten Orokorraren IV. kapituluaren 4. epigrafean xehatzen da informazio hori), haur eta gazteen kontsultek % 30 egin dute gora 2017tik; batez ere, osasun-sisteman ohiko jarduera berreskuratu ondoren.

2022an, elikadura-portaeraren nahasmenduekin lotutako kexak izapidetu ditugu. Kexa horietan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari eskatu genion paziente kronikoak EAEtik kanpora dauden zentro espezializatuetara deriba ditzala; erakunde honi behin baino gehiagotan aurkeztu zaio erreklamazio hori.

Halaber, bi kexa-espedientek hizpide izan dute patologia mental larriak dauzkaten bi neraberen egoera; izan ere, autonomia-erkidegoko bi ospitaletako gaixo akutuen unitateetan tratatu ondoren, medikuen ustez, Euskaditik kanpo dauden egonaldi ertain eta luzeko zentroetan (haur eta gazteentzako zentroetan) barneratzeko deribatzea litzateke egokiena, gure lurraldean ez dagoelako horrelako zentrorik.

II

## 2.6. Haurren eta nerabeen eskubideak justiziarekin dituzten harremanetan

### *40. artikulua*

1. *Lege penalak haustea leporatzen zaion haurrari edo hauste horren errudun izatea salatzen edo deklaratzen zaionari bere duintasun eta adorearen zentzua suspertu behar zaizkio, giza-eskubideak eta besteen oinarrizko askatasunak errespeta ditzan, eta haurraren adina eta birgizarteratzearen garrantzia gogoan izanik, haurrak gizartean funtzio konstruktiboa har dezan.*

   ***Adingabeak delitu baten biktimak, lekukoak, susmagarriak izan daitezke, edo delitua egin izana lepora dakieke, edo alderdietako bat izan daitezke prozesu judizial batean, prozesu zibil, penal edo administratiboetan. Kasu horietan guztietan, haurrek eroso eta seguru sentitu behar dute, eraginkortasunez parte hartzeko eta entzunak izateko*** (Haurren eskubideei buruzko EBren estrategia).

### 2.6.1. Haurrak eta nerabeak justizia-administrazioarekin dituzten harremanetan

Nahiz eta auzibideratuta dauden gaietan Arartekoak eskumenik ez duen, *Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legea*ren 13. artikulua aplikatuz (artikulu horrek eragotzi egiten du jarritako kexa askotan esku hartzea), Arartekoak aukera izan du eragile juridikoekin lankidetzan aritzeko eta bere eskumen formaletik kanpoko gai jakin batzuk bultzatzeko, herritarrei kalterik edo kalte handiagorik ez eragiteko, egiteko on eta kudeaketa informalen bidez. Lankidetza hori, gainera, erakundearen eskumeneko gaiei buruzko kexetan ehundu egin da.

Hori dela eta, 2022. urtean, aurrera egin behar izan genuen Justizia Administrazioan behar bezalako normaltasuna berreskuratzeko, epaitegietako auzi eta espediente judizialen atzerapen eta pilaketari aurre eginez, eta egoera horren ondorioz ere, kontsulta ugari egin zaizkio Arartekoari.

2022. urte honetan, Justizia Administrazioan behar bezalako normaltasuna berreskuratzeko aurrera egitea ekarri du, epaitegietako auzi eta espediente judizialen atzerapenei eta metaketei aurre eginez; izan ere, Arartekoari hainbat kontsulta egin zaizkio, eta horietako batzuetan haurrak zeuden tartean.

Auzibideen epeei, izapideen eta jarduketen atzerapenei eta justizia-administrazioaren funtzionamenduari buruzko kontsulta horiek guztiak erakunde honek ebatzi ditu, batez ere, barruti judizialetako epaile dekanoekin lankidetzan arituta. Epaile horiek aipaturiko kexa eta kontsulta berezko prozedura batez izapidetzen dituzte, eta Arartekoari ebazpenaren berri ematen diote unean-unean, espediente horiek ebaztea izan dezan.

Beste kexa multzo batek **erregistro zibiletan** izapideak egitearekin zerikusia izan du. Horietako batzuk aurretiko hitzorduaren sisteman dute jatorria, eta hitzordu horiek lortzeko zailtasuna eta horretarako epeen atzerapena. Ildo horretatik, Arartekoak gogora ekarri du 2020ko azaroaren 5eko Gomendio Orokorrean adierazitakoa. *Herritarrenganako arreta indartzeko beharra, administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean kalteak saihesteko eta bazterkeria digitalaren kontra borrokatzeko neurriak hartzeko larrialdi egoeretan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeretan, besteak beste.*

Arazo horien erakusgarria da guraso batzuen kasua. Izan ere, gurasoek adierazi ziguten ezin zutela erregistro zibilean aurretiazko hitzordurik eskuratu alabaren izena aldatzeko eta, ondorioz, alabak ezin zezakeela jaso Osakidetzaren osasun-laguntza. Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Justizia Administrazioko Zuzendaritzara jo zuen, eragindako neskatoaren interes gorenari erantzuteko laguntza eske. Arartekoak esku hartu zuen, eta horrela jakin ahal izan genuen jaiotza-agirian agertzen den izena eta egoitza-baimenean ageri dena desberdinak direla eta horrek eragiten zituela zailtasunak. Bada, jarduketa amaitzeko, aurretiazko hitzordua kudeatu genuen, eta erregistro zibilean inskribatzeko nahiz osasun-txartela eskuratzeko eman behar diren urratsei buruzko aholkua eman genien neska horren gurasoei.

Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenarekin bilera egin genuen, bai azaldutako kezka-iturri nagusiak jorratzeko, bai haur eta nerabeen sexu-abusuen kasuetan prozedura judizialean egindako aurrerapausoez hitz egiteko (2.3.6 apartatua).

## 2.6.2. Gurasoak espetxean dituzten haurrak eta nerabeak

2022a izan da Euskadiko espetxeen funtzionamenduaren gaineko eskumena Euskal Autonomia Erkidegora transferitu osteko lehen ekitaldi osoa, eta, beraz, Euskadin preso daudenen kexek eta kontsultek nabarmen egin dute gora, baita Euskadin jaio edo errotu arren Estatuko espetxeetan daudenen kontsultek ere.

Bulego honen 2021eko txostenean aipatu genuenez, Arartekoa etengabe lanean ari da, besteak beste, euskal espetxe-sistema berriak bere baitan har dezan haur eta nerabeen eskubideen zeharkako ikuspegia euskal espetxe-ereduan, *Gurasoak espetxeratuta dituzten adingabeei buruzko Europako Kontseiluaren CM/REC (2018) 5 Gomendioaren argitan*. Umeen ikuspegia bateragarria eta sinergikoa da justizia errestauratiboarekin, inguru irekian neurriak betetzeko, komunitateari irekitako ereduaren alde egiteko eta abar, eta umeen eskubideei buruz hitz egiten du, bai, baina baita ere berdintasunari, gurasotasun positiboari eta zaintza erantzukidetasunari buruz.

Gomendio horretan (Arartekoa guztiz bat dator horrekin) egiaztatu da espetxeratzeak oztopo handiak sortzen dituela familien ohiko harremanak mantentzeko eta umeengan eragin handia duela, izan ere, traumak, estigmak, antsietatea eta gurasoen zaintzaren galera sentitu dezakete, eta ume horiek hazten diren egoera materiala ere kaltetu daiteke. Gurasoak espetxean dituzten umeek gainerako umeen eskubide berberak dituzte, eta, beraz, gurasoekin ohiko harremana izateko eskubidea dute (etengabeko harreman emozionala -lotura-), umeen interes gorenaren aurkakoa ez bada behintzat. Bukatzeko, azpimarratzen da gurasoen eta umeen arteko harremanak mantentzeak inpaktu positiboa izan dezakeela adingabeengan eta espetxean dauden gurasoengan. Horregatik guztiarengatik azaltzen du administrazio arduradunen helburua izan behar dela saihestu daitekeen gurasoen espetxeratzeak umeengan eta nerabeengan eta gurasoen gaitasunetan sortzen duen kontrako inpaktua arintzea. Ume eta nerabeen garapena babesteko eta familia berriz ere batzea sustatzeko. Arartekoaren ustez elementu hori oso interesgarria da, izan ere, motibatzailea da preso dauden pertsonak gizarteratzeko.

Haurren ikuspegitik, hemen azpimarratzen ditugu, alde batetik, espetxeratuek egindako kexak eta kontsultak, familiarekin komunikatzearekin eta bizikidetzarekin lotutakoak; eta, bestetik, espetxe-zigorra euskal espetxeetan betetzeari buruzkoak. Erakunde honek arrakastaz izapidetu duen kexa baten bidez erakutsi dugu gai bakoitza.

Lehen kasuan, Martuteneko espetxeko preso batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, 10 urtetik gorako seme-alabek ezin zituztelako bizikidetza-bisitak (bis a bisak) egin guraso espetxeratuekin.

Espetxe Erregelamenduaren 45. artikuluak azaltzen duenez, "*se concederán, previa solicitud del interesado, visitas de convivencia a los internos con su cónyuge o persona ligada por semejante relación de afectividad e hijos que no superen los diez años de edad…".*

Presoak esan zuen hiru urteko semea eta hamaika urteko alaba zituela eta bai berak, bai Martuteneko beste preso batek egoera bera zutela: seme-alabei eskubideak murriztu zitzaizkien 11 urte betetakoan, ezin zutelako bizikidetza-komunikaziorik egin. Horrek, kexagilearen ustez, eskubideak urratzen zituen.

Erakunde honek Euskadiko espetxe-agintaritzara jo zuen, eta haurren interes gorenaren printzipioa (Haurren Eskubideen Konbentzioaren oinarrizko postulatua) nabarmendu zuen esku-hartzean. Hala, kontua gurasoak espetxean dituzten neskato-mutikoen eskubideen ikuspegitik jorra zezatela eskatu zien (gaia berariaz jasotzen da Europako Kontseiluaren CM/REC (2018) 5 Gomendioan, lehen aipatutakoan.

2022ko maiatzaren 9an, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak *Bizikidetza-komunikazioetara joan daitezkeen seme-alaben inguruko interpretazio erlatiboari buruzko informazio-zirkularra* onetsi zuen Euskadiko espetxeetarako, eta Arartekoari komunikatu zion. Zirkular horretan, jurisprudentzia-irizpideetan eta nazioarteko estandarretan oinarrituta, gutxienez bi kasu hauetan hamar urtetik gorako seme-alabek guraso espetxeratuekin bizikidetza-komunikazioak egitea baimendu behar dela ondorioztatzen da:

- Bizikidetza-komunikazioak 13 urtetik beherako seme-alabekin egiten direnean, Haur eta Nerabeak Zaindu eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean adin horrexek zehazten baitu haurren eta nerabeen arteko aldea.
- Bizikidetza-komunikazioak adingabeko hainbat seme-alaba dauzkan familia-nukleoarekin egiten direnean, familiaren bizikidetza-lotura ez hausteko. Bereziki, adingabeetako batek aurreko paragrafoan adierazten den adina bete aurretik komunikazio horiek egiten baldin baziren.

Bigarren gaiari buruz, Arartekoak Moralejan (Dueñas, Palentzia) preso zegoen pertsona baten kexa jaso zuen. Presoa Bilbokoa zen, bi seme-alaba zeuzkan, ama adin aurreratuan zuen, eta 2013tik Euskaditik kanpoko espetxeetan ari zen kondena betetzen; horrek familia-harremanak zailtzen zituen, baita seme-alabekin eta amarekin (adin aurreratuan zegoelako eta osasun-egoera delikatua zuelako) bisitak egiteko aukera ere (Osakidetzaren txostenak erantsi zituen). Halaber, adierazi zuenez, 2021eko azaroan egin zuen azken lekualdaketa-eskaera, baina ez zioten onartu, toki nahikorik ez zegoelako.

Euskaditik kanpo dagoen espetxe batean zegoenez, Arartekoak Herriaren Defendatzaileari bideratu zion kexa, herritarrak bidalitako dokumentazio guztiarekin, gaiaren gainean eskumena baitu. Arartekoak, halere, kontsulta bat egin zion Euskadiko espetxe-administrazioaren zuzendaritzari, preso horren egoerari, lekualdaketa-eskaerari eta toki-gabeziaren ondoriozko ukoari buruz galdetzeko. Zentzu horretan,

Arartekoak adierazi zuen preso horrek lehentasuna izan behar duela, bertan erroldatuta dagoelako eta familia-kargak dauzkalako, bai amaren zaintzengatik eta bisitengatik, bai Euskadiko espetxe-eredua gidatu behar duen haurren ikuspegiagatik.

Euskadiko espetxe-agintariek, bada, Euskadira lekualdatzeko eskaeraren espedientea berrikusi zuten, eta Arabako espetxera eramatea onartu; berehala lekualdatu zuten.

## 2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea

### *31. artikulua*

1. *Haurrak atseden eta denbora-pasako, jolas eta bere adineko aisialdi ekintzetarako eskubidea du, eta honekin batera, bizitza kulturalean eta artetan parte hartzekoa ere bai. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute.*

2. *Estatu kideek errespetatu eta bultzatu egingo dute, haurrak bizitza kulturalean eta artistikoan parte hartzeko duen eskubidea, eta horretarako aukera egokiak eskainiko dizkiote berdintasunaren baldintzapean.*

### 2.7.1. Eskola kirola

Haur eta nerabeen kirolari buruzko erreklamazio gehienek zerikusia dute aurreko txostenean jada aipatutako bi konturekin. Lehenengoa iazko txostenean aipatu genuen, COVID-19aren esparruan ezarritako murrizketekin baitzegoen lotuta. Bigarrenak urte gehiago daramatza txosten honen sekzio honetan, eta adin jakin batzuetan multikirola nahitaezkoa izatearekin dauka zerikusia.

Arartekoak kontsulta batzuk jaso zituen urtarrilean eskola kirolari eta mugikortasun murrizketak zituzten udalerrietatik kanpo kirol jarduerak egiteko ezintasunari lotuta (kirolari federatuak izan ezik). Erakunde honek kontsulta horiek ebatzi zituen, eta COVID-19ak eragindako egoeraren jarraipena nabarmendu zuen. Jarraipen hori 2022ko hasierara arte luzatu zen, eta pandemian zehar hartutako neurri askori eragin zien, haurren eta haien interes gorenaren ikuspegitik kanpo (haurren eta nerabeen eskubideak).

Zehazki, Eskola Kirola bertan behera uztea *44/2021 Dekretuaren (abenduaren 2koa, lehendakariarena, Euskadin COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-larrialdiko egoera deklaratzen duena)* babesean, *omicron* aldaeraren ondorioz sortutako pandemiaren seigarren olatua dela eta. Ondorioz, Osasun agintarien onespenarekin, Eusko Jaurlaritzako Eskola Kiroleko arduradunek Arau horiek eskola-kirolaren antolaketaz eta kudeaketaz arduratzen ziren foru-aldundiei helarazi zizkieten. batzuk hartu zituzten, eta horien arabera, bertan behera geratzen ziren 2022ko urtarrilaren 10etik 28ra bitarteko eskola kiroleko lehiaketak. Eskola kirolaren eteteak eta gainerako murrizketek, beraz, deskribatutako lege babesa zuten, eta Arartekoari ez zegokion horien aukera eta irismena zehaztea. Hala ere, kexagileei jakinarazi ahal izan zien urtarrilaren 29an eskola kiroleko lehiaketak abiaraziko zirela.

Erreklamazioen bigarren multzoan, goian adierazi bezala, kexagileak ez zeuden ados eskola-kirola adin jakin batzuetan multikirolarekin nahitaez lotu behar izatearekin (Gipuzkoako Foru Aldundiak hala egitea eskatzen du).

Ildo horretan, Arartekoak badaki zein garrantzitsua den haurrentzako kirol-teknifikazioaren eskaintza eskola-kirolarekin koordinatuta egotea, eta halaxe jakinarazi die kexagileei. Bada, adin txikietan kirol-modalitateen eta -ibilbideen artean nolabaiteko oreka lortu nahi da, eta adingabeek bizkorregi kirol bakar bat aukeratu dezaten saihestu nahi da; izan ere, horrek beste kirol batzuk ezagutzeko aukera galarazten du, eta, beraz, ez dute kirola jolas gisa eta balioak ikasteko aukera gisa ulertuko.

Elementu berriagoen artean, kirol inklusiboarekin lotutako kexa bat nabarmendu da aurten; zehazki, desgaitasunen bat duten haur eta nerabeek eskola-adinean kirola berdintasun-baldintzetan egiteko behar ditzaketen laguntzei buruzkoa da. Kexa horretan, zeinu-hizkuntzako interprete bat jartzea eskatzen zen, Arabako neska gor batek gimnasia erritmikoa egin ahal izan zezan. Eskola-kirola arautzen duen araudian, aniztasun funtzionala duten haurrek eska ditzaketen laguntzetarako gastu bereziak finantzatzeko aukera jasotzen da; hala, ikasturtea finantzatzen da, delako kirol-modalitatea eskaintzen duen klubari dirulaguntza emanez. Egiazki, ordea, kirol-klub edo -elkarte gehienek ezin ditzakete ordaindu profesional bat urtebetez kontratatzeko gastuak (urtebete hori, gainera, luzatu egiten da, dirulaguntza izapidetzeko hilabeteekin), eta ez da ziurra izaten foru-zerbitzuak gastua aintzat hartuko ote duen, lehia-konkurrentziako laguntza ekonomikoen esparruan.

Azkenik, arazoa konpondu egin zen, Arabako Kirol Egokituko Federazioa (FADA) inplikatu egin zelako, eta, erreklamazioari esker, aparteko laguntza behar duten pertsonentzako laguntza mota horiek finantzatzeko modua finkatu zen, bai eta zerbitzu horiek ziurtatzen dituzten entitate laguntzaileak eta profesionalak ere.

## 2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

### *2. artikulua*

1. *Estatu kideek Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak errespetatuko dituzte eta bermatuko dute beren jurisdikziopean dauden haurrei aplikatuko zaizkiela, alde batera utzita haurren, gurasoen edo legezko ordezkarien arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelakoa, nazio-, etnia- edo gizarte-jatorria, ezintasun fisikoak, jaiotza edo bestelako edozein ezaugarri.*

### 2.8.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

Atal honetan, lehenik eta behin, urtearen erdialdean Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integrala onetsi izana aipatu behar dugu. Aurreko erregulazio batzuetan aintzat hartutako beste diskriminazio-iturri batzuekin batera, lehen aldiz jaso da adinean oinarritutako diskriminazioa, modu esplizituan jaso ere, nazioarteko tresna batzuk hartuz eta Espainiako sistema juridikoan txertatuz. Halaber, txosten honen eta, zehazki, atal honen helbururako, garrantzitsuak dira diskriminazio anizkoitzaren kontzeptua (lege horretan ezarritako bi arrazoi edo gehiago direla-eta aldi berean edo modu kontsekutiboan diskriminatzen denean norbait) eta diskriminazio intersekzionalaren kontzeptua (lege horretan ezarritako arrazoietako batzuk aldi berean agertzen direnean, edo elkarri eragiten diotenean eta, hala, diskriminazio forma berezi bat sortzen dutenean).

Legearen helburua da diskriminazio mota guztiak prebenitu eta desagerrarazteko lege-esparru egokia ezartzea, bai eta tratu-berdintasunaren zeharkako aplikazioa bultzatzea ere, politika publikoak, administrazio publikoen arteko koordinazioa eta administrazio publikoen, gizarte-eragileen nahiz antolatutako gizarte zibilaren arteko lankidetza formulatu, gauzatu eta ebaluatzeko unean. Zentzu horretan, azpimarratu egin behar dugu legea ez dela eskubideak aldarrikatzera mugatzen: diskriminazioaren biktimak diskriminazioaren dimentsio ugarietan babesteko mekanismoak sortzen ditu.

Bigarrenik, urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretua aipatu behar dugu, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena. Dekretu hori 2022ko urriaren 20ko BOEn argitaratu zen, eta 2023ko apirilaren 20an jarri zen indarrean.

Desgaitasunaren balorazioaren baremo berri horrek 1999tik indarrean zegoena ordezten du, eta Nazio Batuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren gizarte-eredura egokitzen da.

Errege dekretu horrek jasotzen dituen berrikuntzen artean, badago premiazko izapide bat ezartzea arrazoi humanitarioengatik, gizarte-premia bereziengatik, osasunagatik edo bizi-itxaropenagatik balorazioa egiteko. Izapide horretan sartuko dira, adibidez, endekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonak, hala nola alboko esklerosi amiotrofikoak (AEA) jotakoak. Bide telematikoen bidez izapideak arintzea eta malgutzea ere ahalbidetzen du, prozesu osoan irisgarritasun unibertsala bermatuta. Era berean, manuak ezartzen du bermatu egin behar dela desgaitasunen bat duten haur eta nerabeek informatuak eta entzunak izateko duten eskubidea, beren adina dela-eta bereizkeriarik egin gabe, eta Desgaitasunaren Balorazio Batzordean txertatzen du desgaitasunaren arloko gizarte zibila, batzordekide gisa.

### 2.8.1. Atzerritarren seme-alabak

Arartekoaren Umeen eta Nerabeen Bulegoak zuzenean kudeatzen ditu Euskadin ahaiderik ez duten atzerriko gazteei eragiten dieten arazoekin eta beharrekin lotuta dauden eta ohiko moduan babesik ez duten umeei zuzendutako foru gizarte zerbitzuek kudeatzen dituzten erreklamazioak. Urtean zehar alor horretan gertatutakoak txosten honetako 2.3 apartatuan azaldu dira. Hala ere, atzerritarren seme-alabak beste eremu batzuei loturiko kexetan azaldutako egoera batzuen protagonista izan dira edo horien eragina jasan dute. Horien berri hemen emango dugu modu laburrean.

Egiaz, esan genezake atzerritar askoren seme-alabek atzerritarren legeriak beraien gurasoen gizarteratze prozesuetarako ezartzen dituen oztopoen eta traben ondorioak sufritzen dituztela, eta, zeharkako moduan, seme-alaben askotariko eskubideen garapenean ere eragina dutela. Zailtasun horiek guztiak xehetasun gehiagoz azaldu dira txosten orokorraren immigranteei buruzko III.6 kapituluan.

Oinarrizko beharrak betetzeko inpaktu handia dutelako bereziki garrantzitsuak dira diru-sarrerak bermatzeko eta etxebizitzarako prestazioak jasotzeko zailtasunak. Arazooi buruz hitz egiten hasteko, baina, adierazi beharra dugu azken urteetan errepikakorrak izan diren arazo batzuek konponbidea aurkitu dutela *Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Lege* berriarekin eta Lanbidek ezarritako jarraibideak eta irizpideak aldatu izanarekin. Esate baterako, jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria *conditio iuris* izateak sortzen dituen arazoez ari gara, baita Pakistanen ondasunik ez duela ziurtatzeko dokumentua zalantzan jartzearen ondorioz prestazioak eskatzeaz ere, edota, familia berriro elkartzeko zailtasunei jaramonik egin gabe, ezkontideei nahiz ezkontideen antzeko lotura duten bikoteei bizikidetza-unitatearen betekizuna betetzeko etxebizitza berean bizitzea eskatzearen ondorioz prestazioak ezetsi edo iraungitzeaz ere. Konpondutako gaiei buruzko paragrafo honetan, ardurapean bi urteko haur bat duen guraso bakarreko familia baten kasua aipatuko dugu, ez baitzeukan Lanbidek eskatzen zion identifikazio-agiririk (txosten honen II.2.1 atalean aipatu dugu kasua).

Bizitzeko gutxieneko errentaren eskaerak ukatzeari eta artxibatzeari buruzko kexak jasotzen jarraitzen dugu. Kasu horietan, prestazioa ukatzen zaie, bizikidetza-unitatea osatzen duten kideek egoitza-baimen administratiboa ez edukitzeagatik (*Bizitzeko Gutxieneko Errentari buruzko abenduaren 20ko 19/2021 Legearen* 10. artikuluan jasotzen

da betekizun hori). Era berean, ez da aldatu 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 10. artikulua, eta administrazio-egoera irregularrean daudenei ez die uzten "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena ematea.

Txosten honen hezkuntzari buruzko apartatuan (II.2.2), eskola-segregazioaren inguruko kezkak azaltzen dira, kontuan hartuta urte hau giltzarria izan dela Hezkuntzari buruzko Lege berriaren inguruko eztabaida dela-eta. Halaber, erakundeak 2019ko gomendioan aztertutako egoerari egiten dion jarraipena aipatzen da atal berean; gomendio hori eman zen, Ordiziako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako funts publikoko ikastetxeetako ikasleen eskolatzea aztertu ondoren. Atal horretan, era berean, *Islamaren adiskideak* elkartearekin edukitako bileran mahai gainean jarritako egoeraren berri ematen da: familia musulmanek zailtasunak izaten dituzte seme-alabek erlijio-ikasgaia jasotzeko, hezkuntza-zentroak ez dielako informazio egokia ematen matrikula egiteko orduan.

Osasunerako eskubideari dagokionez, jada aipatu ditugu ume batzuek osasun-arreta jasotzeko izaten dituzten arazo puntual baina errepikakorrak, zeinak osasun-administrazioak azkar zuzentzen baititu.

Beste urte batzuetan bezala, Arartekoak Herriaren Defendatzailearen Bulegoari bidali dizkio nazionalitate espainiarraren eskaerak ebazteko atzerapenari edo oinarrizko ordainketa-kontu bat irekitzeari ematen zaizkion ezezkoei buruzko kexak. Aurten, gainera, bilera egin dugu erakunde hartako langileekin; besteak beste, haur atzerritarrei zuzenean edo haien familiei eragiten dieten problematikei buruz eztabaidatzeko. Esate baterako, babesgabetasun-egoeran dauden haurrek zailtasunak izaten dituzte dokumentazioa lortzeko, Europako ordezkaritza diplomatikoek Espainiako gurasotasuneko babes-neurriak aitortzen ez badituzte; batez ere, gurasoak jatorriz EBkoak ez diren estatuetakoak (hirugarren estatuetakoak) direnean. Halaber, Frantziako Estatuak migrazioa kontrolatzeko neurriak zorroztu ditu, eta horrek ere ondorioak izan ditu; 2022an, adibidez, bi gazte hil dira, muga ibaitik gurutzatzen saiatzearren.

Bileran, 2021eko txostenean aipatutako gai bat izan genuen hizpide, familia atzerritarretako haur ugari administrazio-egoera irregularrean daudelako, nahiz eta haiekin bizi; hau da, Euskadin edo beste autonomia-erkidego batzuetan familia-erreferenteak DAUZKATEN haur eta nerabe asko egoera horretan daude.

Azken problematika horren berri eman genion Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Haurren Zuzendaritzari, urtearen hasieran, 2021ean Migrazio eta Asiloen Zuzendaritzarekin egindakoaren kudeaketa osagarri gisa. Txosten hau ixteko egunean, baina, ez dugu jarduerarik ikusi, arazoari irtenbidea emateko aurrerapausoak ekar ditzakeenik.

Epigrafe honi amaiera emateko, **Europako Kontseiluaren** eremuko arau bat ekarriko dugu: *Gomendioa, Ministroen Batzordeak estatu kideei egindakoa, neska eta emakume migratzaile, errefuxiatu eta asilo-eskatzaileen eskubideak babesteari buruzkoa CM/Rec (2022)17*. Gomendio horrek barruan biltzen ditu nazioarteko estandarretatik eta Europako Kontseilutik eratorritako betebeharrak, baita emakume eta neska migratzaileak, errefuxiatuak edo asilo-eskatzaileak ahalduntzea eta haien eskubideak babestea hobekien ziurta dezaketen neurriak ere.

## 2.8.2. Ukrainatik datozen haur eta nerabeak

2022an, Errusia Ukrainara indarrez sartu zenez, nahitaez hitz egin behar dugu herrialde hartatik datozen errefuxiatuei buruz, haien artean haur eta nerabe ugari baitaude.

Europako Kontseiluak erabaki baten berri eman zuen 2022ko martxoaren 4an, zeinaren bidez egiaztatzen baita Ukrainatik datozen lekualdatu ugari daudela; bada, EBk *2001/55/EE Zuzentaraua* aktibatu zuen, Ukrainako gerratik ihesi datozenei laguntzeko aldi baterako babesari buruzkoa. Zuzentarau horrek berehalako babesa eta estatutu juridikoa eskaintzen ditu. Europako Batzordeak, gainera, zuzentarau eragile batzuk hitzartu zituen, estatu kideek aplika ditzaten, argi uzteko nork duen aldi baterako babesa jasotzeko eskubidea, eskubide jakin batzuen edukia zein den, zirkulazio askea baliatzeko eskubidea nork duen eta adingabeekin nola jokatu behar den edo, hala badagokio, aberriratzeko laguntza emateko.

Orientabide horiei erreparatuz, estatu-mailan *6/2022 Lege Errege Dekretua* onetsi zen, *zeinaz Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuna emateko plan nazionalaren esparruan presako neurriak hartzen baitira*. Bada, arau horretan, besteren artean, behin-behineko jagoletza-mekanismoa ezartzen da. Bestetik, aldi baterako babes-prozedura ezartzen duen Araua onetsi zen.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak hainbat egitasmo abiarazi ditu, aldi baterako babes-estatutua duten pertsona eta familia ukrainarrei laguntzeko, eta Ukrainako inbasioarengatik lekualdatutako pertsonak harreran hartzeko gida bat egin du.

Arartekoak, bere aldetik, hainbat egitasmo garatu ditu, batzuk bere kabuz eta beste batzuk Haurren Defendatzaileen Europako Sarearen (ENOC) ekintza-esparruan (Ukrainako Haurren eta Familien Eskubideen Behatokirako mandataria ENOCen parte da). Hala, 2022ko otsailaren 28an, ENOCek deialdi bat egin zuen, Arartekoak sinatu eta hedatu zuena. Deialdi hartan, lehenik, inbasioa geratzeko eskatzen zitzaion Errusiari, eta, aldi berean, Ukrainan bertan nahiz gatazkatik ihesean zebiltzanak hartzen zituzten herrialdeetan haur eta nerabeen babesa bermatzea eskatzen zen.

ENOCek, halaber, eskaera bat bidali zion Ukrainako defendatzaileari, haiek sinatutako eta familiei nahiz profesionalei zuzendutako dokumentu bat hedatzen lagundu zezan. Bertan, lekualdatutako haurrentzako informazioa eta online baliabideak jasotzen ziren, urrutiko hezkuntzaren mesedetan.

Ekainaren hasierako egunetan, Varsovian *Spring seminar* (ENOCen urteko gaiak garatzeko lan-topaketa) egin

zela aprobetxatuta, egonaldia luzatu zen, harrera-herrialdeetan Ukrainako haur eta nerabeei ematen ari zitzaien erantzuna aztertzeko xedez: pertsonen kopurua, antolatutako zerbitzuak, ikusitako zailtasunak, jarduera onenak eta abar. Partekatutako informazio hura oso interesgarria izan zen ekainaren amaieran egindako adierazpena formulatzeko, Ukrainako gerratik ihes egiten duten haurren eskubideak babesteari buruzkoa. Hala, Ukrainatik iristen diren haurren eskubideak babesteko koiuntura bereziki delikatuei buruzko gomendio praktiko eta xeheak egin ziren; hala nola, honako gai hauen ingurukoak: haur eta familien nahitaezko erregistroa, bakarrik eta bananduta dauden haurrentzako premiazko erantzuna, harrera-herrialdeetako tutoretza, harrera eta bizi-baldintzak, haurrei egokitutako prozedurak, haurren sexu-esplotazioa eta salerosketa eta lehen harrerako herrialdeetako laguntza finantzario eta materiala.

ENOC osatzen duten defendatzaileekin partekatutako jarduketekin paralelo, Euskadin ere jardutea eskatzen baitzuten, Arartekoa aktibo egon da haur eta nerabe ukrainarrei emandako arretari jarraipena egiten.

Hasieran, iristen ziren pertsonak baldintza duinetan hartzen zirela eta zerbitzuak (bizilekua, hezkuntza, osasuna eta abar) egoki jasotzen zituztela egiaztatzea izan zen lehentasuna, eta arreta berezia jarri genien bakarrik edo legezko arduradunik gabe iristen ziren haur eta nerabeei. Haurrak babesteko foru-zerbitzuek azkar eta arduraz jokatu zuten. Nahiz eta harrera-premietarako egoitza-baliabide espezifikoren bat aktibatu, jardueraren zatirik handiena administrazioak hartu zuen bere gain, eta haurren eskubideak bermatzea nahiz haurrak familia boluntarioetan hartzeko baldintzak onak izatea izan zen helburua.

Maiatzaren amaieran, beste jarraipen bat abiatzea eskatu zuen egoera batek. Maiatzaren 26an, Ukrainako Gobernuak erabaki zuen funtzionarioek lanpostura itzuli behar zutela eta, hala egin ezean, lanpostua galduko zutela. Egoera haren aurrean, seme-alabekin hemen zeuden emakumeek erabaki desberdinak hartu zituzten: 1) emakume batzuek ez itzultzea (eta lana galtzea) erabaki zuten; 2) ama batzuk seme-alabekin itzuli ziren (gatazkarik gabeko zonaldeetara, normalean); 3) ama batzuk bakarrik itzuli ziren, seme-alabak "norbaiten" zaintzaren pean utzita. Kasu batzuetan, notario aurrean kudeatu zen hemen geratzen zen adingabearen jagoletza familia bati lagatzeko erabakia. Beste batzuek, baina, ez zuten horrelakorik egin, eta, halaber, ez zieten erabakiaren berri eman babesgabe dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuei. Hala ere, ordurako egoera nahiko ordenatuta zegoenez, haurren zerbitzuak arduratu ziren gurasorik edo legezko ordezkaririk gabe zeuden haur guztiei administrazio-espedientea irekitzeaz, eta behin-behineko jagoletzaren ebazpena eman zuten. Gehienetan, familiek hartu zuten jagoletza hori, baina salbuespenak ere egon ziren, harrera-familiarekin bizikidetzak "porrot egin" ondoren.

### 2.8.3. Desgaitasunen bat daukaten haurrak eta nerabeak

Desgaitasunen bat daukaten haurrek eta nerabeek, kasu batzuetan, zailtasunak izan dituzte egoeraren batean; bada, egoera horiek dagoeneko aipatu ditugu, eta kasuren bat txosten honen aurreko kapituluetan aurkeztu dugu. Hala, eskola-kirolaren inguruko jardueraz hitz egin dugunean (II.2.7.1), entzumen-desgaitasuna duen neska baten gurasoek jarritako kexa azaldu dugu: haur hark ez zeukan zeinu-hizkuntzako interpreterik, hautatutako eskola-kirola

egiteko. Arartekoak egindako eskaeraren ondoren, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak beharrezko finantza-neurriak hartu zituen adingabeak aukeratutako kirola antolatzen zuen klubak baliabide hori izan zezan.

Hezkuntzarako eskubideari buruzko puntuan (II.2.2), beharrezko baliabideak edo zerbitzu osagarriak emateko orduan izandako atzerapenak edo, are, baliabideok nahiz zerbitzuok ez emateko kasuak jaso ditugu, baita curriculum-egokitzapenak egiteko baimenei dagokienez ere.

Desgaitasunen bat dutenen garraioari buruz, nahiz eta adingabeen arazo esklusiboa izan ez, Bizkaiko Ezkerraldeko eta Meatzaldeko geltoki jakin batzuetan metrora sartzeko zailtasunak daudela salatzen zuen kexa bat aipatu behar dugu, trenaren eta nasaren arteko distantzia saihestezinari buruzkoa. Bilboko metroak emandako erantzunetik harago (ikusi Txosten Orokorraren III.03 kapitulua), azpimarratu egin behar dugu ezinbestekoa dela joan-etorrien kate osoan irisgarritasuna bermatzea, jatorritik helmugaraino, zenbat etapa egin diren eta zer garraio-modu erabili den alde batera utzita. Garraiobideen irisgarritasun unibertsalak ahalbidetu egiten du herritarrek gizartean eta ekonomian aukera berdinekin aktiboki parte hartzea.

Atal hau amaitzeko, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak bat egiten du Txosten Orokorraren III.03 kapituluko 5.6 apartatuan adierazitako premiarekin: desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko lan egiteak, baita adingabeen eskubideen aldeko lanak ere, Euskadiko administrazio publikoei eskatzen die aniztasun funtzionalaren zeharkako ikuspegia etengabe eduki dezatela agenda instituzionalean, konstante bat izan dadin desgaitasunen bat dutenengan eragina izan dezaketen politika publiko guztiak betearaztean zein planifikatzean.

## 2.8.4. LGTBI haurrak eta nerabeak

Kexen ikuspuntutik, hasteko adierazi behar da 2022an ez dela jaso LGBTI haur eta nerabeekin lotutako partikularren kexarik. Araudi arloan, ordea, zenbait jarduera egin dira eta interesgarria izan daiteke horiek aipatzea.

**Estatu-mailan**, Transen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI eskubideen bermerako Legearen proiektuaren behin betiko onespenaren atarian amaitu zen 2022a, Diputatuen Kongresuak abenduaren 22an onetsi baitzuen eta Senatuan eztabaidagai izango baita laster. Arau-esparru berri horren asmoa da LGTBI kolektiboek adierazitako eskaera bati bide ematea; hain zuzen ere, zeharkako lege estatal bat eskatu dute, eremu publikoan nahiz pribatuan aplikagarria, sexu-joera edo genero-identitatea dela-eta izan ditzaketen askotariko bazterketa-egoeren aurrean haien eskubideak babestuko dituena. Hala, eztabaida ugari piztu baditu ere, lege-proiektuak transen "generoaren autodeterminazioa" kontzeptua jasotzen du; kontzeptu horren arabera, ez da diagnostiko mediko edo psikologikorik aurkeztu beharko juridikoki beste sexu-identitate bat aitor dadin, eta ez da itxura fisikoa edo gorputz-funtzioa aldatu beharko prozedura mediko, kirurgiko edo bestelakoen bidez. Halaber, atzerritarrek erregistroko aldaketa herritar espainiarren baldintza beretan egiteko eskubidea parekatuko da, eta 12 eta 16 urte arteko adingabeek eskubidea baliatu ahalko dute, bidelaguntzarekin. Era berean, Kode Zibila aldatuko da, bikote homosexualak heterosexualekin berdintzeko, adostasuna egonda ezkontzaz kanpoko gurasotasuna aitortzeari dagokionez, eta intersexualei jaso dezaketen osasun-arretaren inguruan erabakitzeko eskubideak emango zaizkie. Bestetik, lege-proiektuak komunikabide sozialetan, Interneten eta kirolean zabaltzen den gorroto-diskurtsoaren aurrean babestuko ditu LGTBI pertsonen eskubideak.

Lege-proiektuak, izapidean, hainbat sektoreren kritikak piztu ditu; izan ere, batzuek zalantzan jartzen dute, beste kontu batzuen artean, arau-proposamen horrek egoki babesten ote dituen sexu biologikoarekin identifikatuta sentitzen ez diren pertsonak (bereziki, haurrak), erregistroan sexuari buruzko aipamena aldatzea eskatu ahal izateko txosten edo diagnostiko medikoa kentzen bada. Halaber, sektore feminista batzuk oso kritiko agertu dira, haien ustez lege-proiektuaren xedapen askok talka egiten dutelako emakumeen eskubideekin.

**Euskadin**, 2022a amaitu zenean, artean gauzatzeke zegoen 2020-2024ko legegintzaldirako (XII. legegintzaldirako) gobernu-programan jasotzen den legegintza-jarduketa, sexu-joeragatiko diskriminazioaren aurkako politikak sustatzeko (96.) konpromisoari buruzkoa. Zehazki, berriro atzeratu da Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko14/2012 Legearen aldaketa, parlamentu-batzordean baitago oraindik. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak ez du oraindik onetsi eta ondoren Eusko Legebiltzarrera bidali "Aniztasunean berdintasuna egoteko eta sexu-orientazioagatiko diskriminazioaren aurka borrokatzeko lege integralaren" proiektua (96. konpromisoa, 1. egitasmoa). Lege-proiektu horren xedea da LGTBI pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eskubidea erabat bermatzeko printzipioak, neurriak eta bitartekoak arautzea eta, horretarako, sexu-orientazioagatiko, genero-adierazpen eta -identitateagatiko eta sexu-ezaugarriengatiko diskriminazio oro prebenitzea, zuzentzea eta ezabatzea, sektore publiko eta pribatuetan, bizitzako edozein etapatan eta edozein eremutan; bereziki, arlo zibilean, lanekoan, sozialean, osasunekoan, hezkuntzakoan, ekonomikoan eta kulturalean. Egitasmo horiek garatuz gero, Euskadiko legegintza-esparruak barruan bil litzake Europako eta nazioarteko mekanismoen gomendioak, eta, horrela, aitortzarako eta babeserako estandar egokiak erdietsi. Era berean, LGTBI kolektiboaren eskaeren ikuspegi eguneratua izan lezake, eguneratua eta zeharkakoa, eta transen berdintasunerako eta LGTBI eskubideetarako lege-proiektu estatal horrekin bateratu litezke Euskadiko legeak; hala badagokio, gainera, lege-proiektu horren alderdi batzuk garatu litzake, litekeena delako laster behin betiko onestea.

## 2.8.6. Ijito herriko haur eta nerabeak

Duela gutxi, Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia 2022-2026 onetsi da. Bada, bertan balioesten denez, erreferentziazko hainbat azterlanetan oinarrituta, Euskadin 17.000 ijito

inguru bizi dira, eta Euskadiko biztanleen multzoak ez bezalako egitura demografikoa daukate. Biztanleria gaztea da, hazten ari dena, eta jaiotza-tasa altua dauka. Herri horren kultur jardueren artean, askotariko multzoetan hedatzeak dakartzan muga guztiak aintzat hartuta, familia zabal eta belaunaldiartekoak duen garrantzia nabarmentzen da: haurrak sozializatzeko lehentasunezko gunea da hori, eta komunitateak sekulako garrantzia dauka elkartasunerako eta kontrol sozialerako gune gisa. Are, familietan edo komunitateetan, harreman-egitura eta ohitura propioak dauzkate, non adinekoak baitira autoritatedun erreferenteak.

Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiak Euskadin dagoen diskriminazioari buruz egin dituen azken azterlanek ijitoa izateagatiko diskriminazioa jasotzen dute analisi-eremu guztietako alderdirik errepikatu eta zeharkakoentzat. Are, euskal biztanleen artean "deserosotasun" adierazi handiena pizten duen kolektiboa da ijitoena: elkarrizketatuen % 50i ez litzaieke eroso egingo ijitoak bizi diren auzune berean bizitzea (jatorri atzerritarrekoek sorrarazten duten deserosotasunetik oso gora).

Ijito herriak diskriminazio sistematikoa jasan izan du luzaroan, denboran iraunkor, eta horrek itzala egin die, belaunaldiz belaunaldi heredatzen den gizarte-bazterketa eta desberdinkeria gisa; hortaz, ez da harritzekoa ijito familiek Arartekoari helarazten dizkioten erreklamazioetan (non, ez dezagun ahaztu, haur ugari egoten baitira) ageri diren premiek zerikusia izatea ongizate materialerako eta oinarrizko premien estaldurarako elementu giltzarriekin.

Seme-alabak dauzkaten ijito familiei eragiten dieten kexa gehienak etxebizitza lortzeko zailtasunarekin lotzen dira. Lege- eta zuzkidura-aurreikuspenak egon arren, zeinak txosten honen II.2.1.2 atalean eta, xehetasun handiagoz, Txosten Orokorraren II.16 kapituluan aipatu baititugu, etxegabetzeak gertatzen direnean, infraetxeko arazoak daudenean edo etxebizitza, argi eta garbi, bizikidetza-unitateko kide guztiak hartzeko nahikoa ez denean (hainbat haur eta familia zabaleko kide gehiago egon ohi dira), oso zaila izaten da alokairuko sustapen publikoko etxebizitza bat lortzea. Bada, gai hori errepikakorra izaten da udaletako gizarte-zerbitzuei eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailburuordetzari egiten zaizkien eskaeretan. Halaber, ez da erraza alokairuko merkatu pribatura sartzea: eskaria handia denez, etxebizitzen jabeek etxebizitza ijito familiei ez alokatzea erabakitzen dute, edo etxebizitzaren kokapenari eta baldintzei dagokiena baino askoz ere prezio altuagoa ezartzen dute, edo, zuzenean, etxebizitza alokatzeari uko egiten diote.

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen eremuan ere, zeinak oinarrizko premiak asebetetzea baitu helburu, eragindako ijito familiak aurki ditzakegu, seme-alabak dauzkatenak. Izapideak konplexuak izateak eta prestazio ekonomikoen titularrei dagozkien betekizunak betetzeko moduari buruz edo betebeharren edukiari buruz ezer gutxi jakiteak prestazio ekonomikoak ezestea, etetea eta iraungitzea eragiten du, eta hor eragina dauka ikasketarik gabeko ijitoen ehunekoa altua izateak (Ijito Herriaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan diagnostiko-txostenean jasotzen diren datuen arabera).

Bestalde, lehen esan bezala, ijito familiek elkartasun- eta biziraupen-jarduketak garatu dituzte familia zabaletako kideen artean, eta jarduketa horiek, batzuetan, ez dute bat egiten Lanbideren bulegoetan ezartzen diren betekizunekin. Arartekoaren ustez, egoera horietako askok bestelako emaitza izango zuketen, ijitoen familia-inguruabar espezifikoak kontuan hartuko lituzkeen bidelaguntza egokia eman izan balitzaie. Era berean, erakunde honek Lanbideri adierazi dio elkarren artean odolkidetasun- edo ahaidetasun-loturak dauzkaten hainbat bizikidetza-unitate esparru fisiko berean bizitzeko ezintasunak ondorioak dauzkala, etxebizitza eskuratzeko oztopoak daudelako, lehen aipatu ditugunak.

## 2.9. Ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarrirako eskubidea

*Nazio Batuen Batzar Nagusia*
*Bileren hirurogeita hamaseigarren aldia*
*(2022ko uztailaren 26a)*

*Batzar Nagusiak (…)*

1. *1. Giza eskubidetzat jotzen du ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarrirako eskubidea;*
2. *2. Uste du ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarrirako eskubideak lotura duela beste eskubide batzuekin eta nazioarteko indarreko zuzenbidearekin;*
3. *3. Baieztatzen du ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarrirako giza eskubidea sustatzeko ingurumenari buruzko akordio multilateralak aplikatu behar direla, bat etorrita nazioarteko ingurumen-zuzenbidearen printzipioekin.*
4. *4. Estatuei, nazioarteko antolakundeei, enpresei eta bestelako interesdunei agintzen die politikak areagotu ditzatela, nazioarteko lankidetza handitu dezatela, gaitasun gehiago sor dezatela eta jarduera onak partekatzen jarrai dezatela, guztiontzako ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarria bermatzeko ahaleginak handitu daitezen.*

2022ko uztailean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak giza eskubidetzat jo zuen ingurumen osasungarrirako eskubidea. Hala, haurrek eta nerabeek ere berezkoa dute eskubide hori, eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan eskubide horrekin oso lotutako xedapenak daude. Beren interes gorena lehentasunezkoa izateko eskubidea (3. artikulua), bizitzarako, biziraupenerako eta garapenerako eskubidea (6. artikulua) edo, besteren artean, osasunerako eskubidea aipa ditzakegu, ingurune osasungarriarekin batera (24. artikulua).

ENOC - Haurren Defendatzaileen Europako Sareko kideak kezkatuta daude, haur eta nerabeen ingurumen-eskubideak direla-eta; zehazki, klima-krisiak arriskuan jartzen dituelako haur eta nerabeen eskubideak eta interesak. Bada, kezka horrek eragin zuen ENOC sareak 2022an auzi horri buruz hausnartzea. Txosten honen III. kapituluan eta IV. kapituluaren 1.1 apartatuan azaldu dugu lan horren emaitza, gazte

aholkulariek ateratako ondorioen berri eta ENOCen bileran adostutako jarrera instituzionalaren berri eman baitugu.

Geroagoko kapituluetan (IV.5) aipatu moduan, horixe izan da Haurren Nazioarteko Egunaren harira aurkeztu genuen Kolorea: lurra haurrei eta justizia klimatikoari buruzko erreportajearen gaia. Erreportajea egiteak, bestalde, Arartekoari aukera eman dio harremanak sendotzeko bai Basque Centre for Climate Change (bc[3]) ikerketa-zentroarekin, bai Fridays for Future (Gazteak Klimaren Alde, Euskadin) egitasmoarekin, eta Klimaren aldeko Europako Ituneko enbaxadore batek parte hartu du.

Amaitzeko eta askoz ere ikuspegi zehatzago bati helduz, herritarren erreklamazio batzuk aipatu beharko genituzke atal honetan; izan ere, ugariak izan ez arren, iraunkorrak dira denboran: nerabeen edo gazteen aisialdiko jarduerek edo topalekuek sortzen duten zaratari buruz ari gara. Arazo hori ez da makala; izan ere, besteak beste, konstituzio izaerako eskubide bati eragiten dio, hau da, pertsonek beren etxeetan akustikak eragindako kutsadurarik ez jasateko duten eskubideari. Eskubide hori, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ezarri bezala, etxebizitzaren bortxaezintasunerako oinarrizko eskubidearen zati da, eta *Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren* 8. artikuluan jasota dago. Nolanahi ere, arazoa konplexua da, eta hainbat aldagai ditu, gazteriari, osasun publikoari, herritarren segurtasunari eta ingurumenaren babesari buruzko politiken alorretakoak. Zentzu horretan, Euskadiko botere publikoek ahalegina egin beharko lukete, auzia behar bezala kudeatzeko. Hortaz, aldi berean, balioa eman behar zaio orain arte udal batzuek egin duten lanari.

# ENTZUNA IZATEKO ETA BERE IRITZIA KONTUAN HARTUA IZATEKO ESKUBIDEA:

Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua

III.

kapitulua

# III. KAPITULUA

# ENTZUNA IZATEKO ETA BERE IRITZIA KONTUAN HARTUA IZATEKO ESKUBIDEA:ARARTEKOAREN HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA



## *12. artikulua*

1. *Iritzi propioa izateko gai den haurrari Estatu kideek iritzia askatasun osoz azaltzeko aukera bermatuko diote, haurrari berari dagozkion gai guztietan, eta beti bere adin eta heldutasunaren arabera.*

## *13. artikulua*

1. *Haurrak adierazpen askatasuna izango du, muga politikoak kontuan izan gabe; eskubide horren barruan sartuko dira edozein ideia edo informazio bilatu, jaso eta zabaltzea, bai ahoz, idatziz edo inprimakiz, modu artistikoan edo haurrak aukeratzen duen edozein modutan.*

Haurren Eskubideen Hitzarmenak, Nazio Batuek 1989an onarturikoak, 18 urtetik beherako adingabeei informaziorako eta parte-hartzeko eskubidea aitortzen die, baita ere eragiten dieten arlo guztietan entzunak izateko eta beren iritziak kontuan hartuak izateko eskubidea. Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada, hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

Haur eta Nerabeen Kontseiluak neska-mutilen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta bestelakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Erakundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili diren (eta aurrerantzean erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri da; halakoak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak, bai eta bizitegi-baliabideetan harrera egin zaien neska-mutilei egindako elkarrizketen esparruan sortutako eztabaida-taldeak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 24 neska-mutilek osatzen dute. Neska-mutil horiek parte hartzeko barne-dinamiketan esperientzia duten hainbat ikastetxek proposatuta izendatu dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere, kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoa izatea. Nork bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentzialtasuna bermatzea dira kontseiluaren funtzionamenduaren oinarrizko arauak.

Kontseiluaren ohiko lan-dinamikan, hiruzpalau bilera egiten dira urtean, eta, bilera horietan, gai zehatz bati buruz sakontzen dute, pixkaka-pixkaka. Hala, otsailaren 12an, Kontseiluak **Donostian** ekin zion lanari, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Urteko lehen bilera hartan, urterako hautatutako gaiari buruzko lehenengo hausnarketak azaleratu ziren: justizia klimatikoa eta haur eta nerabeen eskubideak ziren gai hautatua. Egun hartan, honako kontu zehatz hauei buruz aritu ziren: ekintza klimatikoa eta ingurumen-arloko erabakietan parte hartzea; Iparra-Hegoa: klima-aldaketak desberdinkeriak areagotzen ditu; kontsumoa eta karbono-aztarna: hazkundearen paradigma auzitan; mugikortasun jasangarria; energia-iturriak: erabilera eta ingurumenean nahiz gure bizitzetan duten inpaktua.

Urteko bigarren topaketan, zeina **Lekeition** egin baitzen ekainaren 3an, 4an eta 5ean, neska-mutilek sakon aztertzeko hautatutako gaietatik bi ukitu zituzten: batetik, **ekintza klimatikoa** eta haurrek eta nerabeek ingurumen-arloko erabakietan **parte hartzea** eta, bestetik, **mugikortasun jasangarria**. Bada, Euskadiko botere publikoei zuzendutako hainbat gomendio egin zituzten, gaiok oinarritzat hartuta. Haur eta Nerabeen Kontseiluak lehenengo bilera horietan egindako lanari buruzko txosten osoa aurkituko duzue hemen.



Aurreko urteetan bezala, Kontseiluaren hausnarketa horrekin batera, ENOC sarearen Haurren Defendatzaile batzuetako partaidetza-taldeen eta -batzordeen lana etorri zen (ikus aurrerago txostenaren IV.1 atala) ENYA –European Network of Young Advisors– proiektuaren esparruan.

European Network of Young Advisors (ENYA) Haurren Defendatzaileen Europako Sarearen (ENOC) programa bat da, 13 eta 17 urte arteko nerabeek parte hartzeko duten eskubidea sustatzen duena. Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluak modu aktiboan hartzen du parte programa horretan eta sare horretan, 2017tik.

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak gidatu zuen 2022ko ENYA proiektuaren koordinazioa. Bada, honako hau izan da proiektu horren leloa: "**Hitz egin dezagun gazte modura. Hitz egin dezagun justizia klimatikoaz!**", eta honako hau, berriz, lurralde parte-hartzaile guztiek planteatutako helburua: *Ingurumen-politiketan parte hartzeko eta entzunak izateko eskubidea baliatzea, planetako haur eta nerabe guztiek bizitza duina izateko duten eskubidea berma dadin eta hausnarketa kolektiboak askotariko begiradak bil ditzan*.

2022an, honako lurralde hauek hartu dute parte: Andaluzia, Albania, Flandes-Belgika, Katalunia, Kroazia, Euskadi, Estonia, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Polonia, Eslovakia, Ipar Irlanda, Gales, Eskozia eta Jersey. Ukraina programaren parte zen, baina, zoritxarrez, ezin izan du parte hartu.

ENYA programan parte hartu duten Europako lurralde guztien artean gomendio batzuk adosteko, ENYA FORUM topaketa egin genuen Euskadin ekainaren 28an, 29an eta 30ean. Lan-saioez gainera (batez ere, jolasaren eta adierazpen artistikoen bidez egin ziren), Urdaibain isuriak konpentsatzeko ingurumen-jarduera bat egin genuen, zuhaitzen landaketa sinboliko baten bidez.




Hona hemen ENYA FORUM topaketan parte hartu zuten batzuen balorazioak:

> *"Fue estupendo conocer a otros jóvenes. Me gustó que nos sentáramos en círculo con los coordinadores en el exterior. Me gusta que hayamos tomado muchas decisiones con poca participación de los adultos".*

*"Esta experiencia es la mejor que he tenido. Cooperar por un objetivo común tan significativo me ayudó a comprender el poder del grupo".*

ENYA FORUM topaketaren ondoren, gazte aholkulari batzuk, baita Arartekoaren Kontseiluko ordezkaria ere, ENOCen Urteko Biltzarrera joan ziren. Reykjaviken egin zen, irailaren 19an eta 20an, eta, han, justizia klimatikoari buruzko gomendioak aurkezteko aukera izan zuten guztiek, baita biltzarrean modu aktiboan parte hartzekoa ere, panel-egile eta eztabaida-taldeen dinamizatzaile gisa. Hementxe irakur daiteke 2022ko ENYA proiektuari buruzko informazio guztia.

Urriaren 22an, Haur eta Nerabeen Kontseiluaren beste bilera bat egin zen **Bilbon**. Bilera horretan, non urte osoan zehar justizia klimatikoaren inguruan egindako lan guztia laburbildu baitzen, neska-mutilek beren lanaren emaitza azaldu eta entregatu zioten jarduneko arartekoari, baita ENYA proiektuaren esparruan egindako lanaren emaitza ere. Dokumentu honetan kontsultatu daitezke Arartekoaren Kontseiluaren eta ENYAren gomendioak.

Jarduneko arartekoak kontseilari guztiak gonbidatu zituen gomendioak Eusko Legebiltzarreko presidenteari entregatzera, Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunarekin bat eginez. Eusko Legebiltzarrean izan zen, azaroaren 21ean. Gero, neska-mutilek elkarrizketa interesgarria eduki zuten legebiltzarkide batzuekin.

Ohikoa denez, Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluko kide guztiek edo batzuek beste entitate batzuen egitasmo batzuetan lagundu dute, edo parte hartu, neska-mutil batzuen iritzia entzun nahi zutelako.

Hala, Osasun Mentalaren Mundu Egunaren harira, Save the Children antolakundeak Instagram Live bat antolatu zuen, eta, horretarako, Arartekoaren Kontseiluaren laguntza eskatu zuen. Kontseilarietako batek parte hartu zuen haurren eta gazteen osasun mentalaren arloko aditu bati egindako elkarrizketan, zuzenean egin ere, eta nerabeen premia emozionalei ematen zaien arretari buruzko iritzia eman zuen, bai eta osasun mentaleko baliabideak ezagutu eta jasotzeko zailtasunei buruzkoa ere.

Osasun Mentalaren Egunaren harira baita ere, AVIFES antolakundeak "Gazteak eta osasun mentala" jardunaldia antolatu zuen azaroaren 9an. Kontseiluko neska-mutil batzuk jardunaldira bertaratu ziren, eta haietako batek mahai-inguruetako batean parte hartu zuen, osasun mentalari eta haur eta nerabeen eskubideei buruz zuen iritzia emateko.

Azkenik, azaroaren 19an, Kontseiluko nesketako batek parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak antolatutako jardunaldi batean. Bertan, haur eta nerabeen talde bati azaldu zioten zertan datzan eta zertarako balioko duen Haur eta Nerabeen Legearen proiektuak (laster, Eusko Legebiltzarrari aurkeztuko zaio).

# HAURREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA:

gizartearekiko harremanak eta erakundeen lankidetza

IV.

kapitulua

# IV. KAPITULUA

# HAURREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA:GIZARTEAREKIKO HARREMANAK ETA ERAKUNDEEN LANKIDETZA

*42. artikulua*

*Estatu kideek hitz ematen dute Hitzarmenaren printzipio eta arauak jakinaraziko dizkietela modu eraginkor eta egokietan bai helduei bai eta haurrei ere.*

## 1. Nazioarteko sareetan eta ekitaldietan parte hartzea

### 1.1. Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC)

Haurrentzako Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC, ingelesezko siglaren arabera) 1997an sortu zen eta, gaur egun, Europako 34 herrialdetako haur eta nerabeen eskubideak defendatzeko 44 erakundek osatzen dute. Horien artean dago, 2017. urteaz geroztik Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa. Honatx sare horren helburu nagusiak:

- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ahalik eta modu osatuenean ezar dadin sustatzea.
- Taldeko ekintzari sostengua ematea, Europako herrialdeetako politika publikoetan haur eta nerabeen eskubideak kontuan har daitezen.
- Informazioa, ikuspuntuak eta estrategiak partekatzea.
- Haur eta nerabeentzat eraginkorrak diren bulego burujabeak gara daitezen bultzatzea.

Haurrek eta nerabeek parte hartzeko organoa ere sortu da, ENOC sareari atxikitakoa: ENYA –European Network of Young Advisors– ekimena, ENOCen jardueran haur eta nerabeen partaidetza bultzatzeko. Horrela, haur eta nerabeei aukera ematen zaie entzunak izateko eta beren iritzi eta proposamenak beren herrialdeetatik haratago ezagutarazteko.

Sareak urtean behin batzar nagusian biltzen da, kideek proposatutako eta adostutako gaiak eta edukiak lantzeko. Urteko biltzarra aprobetxatuz, herriaren defendatzaileek topaketa luzatu egiten dute, eduki horiei buruzko informazioa partekatzeko, elkarrizketan aritzeko, esperientziak eta gogoetak trukatzeko.

2022an, justizia klimatikoaren eta haur eta nerabeen eskubideen arloan egin dugu lan. Arartekoak parte hartu zuen ikerketa-lanaren garapena diseinatu eta gainbegiratu zuen lantaldean. Lantalde hori adituek osatu zuten, eta, guztien artean, azterlan bat taxutu zuten, ENOC sarearen Biltzar Nagusian irailean onetsitako adierazpena ("Haur eta nerabeen eskubideak eta justizia klimatikoa") oinarritzeko.

Arartekoak ENOCen "helduen" arloan egindako lanaren baliokidea da Haurren eta Nerabeen Kontseiluak ENYA proiektuan izandako parte-hartzea (aurreko kapituluan eman ditugu horren xehetasun gehiago). Halere, nabarmendu egin behar dugu Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak rol protagonista izan zuela edizio horretan, gazteek parte hartzeko proiektuan buru izan baitzen; gainera, proiektuak asko estutu ditu sarearekin lankidetzan aritzeko loturak.

Sarearen helburuetan aipatu bezala, han parte hartzeak aukera ematen du informazioa, estrategiak eta metodologiak partekatzeko, eta horixe da, hain zuzen ere, bere helburua. Horri lotuta, ohikoa izaten da askotariko gaiei buruzko informazioa eskatzea. Informazioa eskatzen duen erakundearen helburua da datu gehiago izatea hartu beharreko erabakiak baloratzeko edo eman beharreko irizpenak idazteko. 2022an, honako gai hauei buruzko informazio-eskaerei erantzun zaie: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren protokoloa, banakako erreklamazioei buruzkoa, praktikan jartzea (Herbehereak); ospitalean ospitaleratuta dauden haurrak hezkuntzara iristea (Gales); desgaitasunen bat duten nerabeak hirugarren hezkuntzara iristea, zehazki, unibertsitatera sartzeko azterketetarako arrazoizko instalazioak/egokitzapenak egiteari dagokionez (Txipre); adostasunik gabeko dibortzio-demandetan seme-alaben zaintzari buruz abiatzen diren prozedura judizialetan esku hartzea (Eslovakia).

Aipamen berezia egin behar diogu Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik Ukrainako Haurren Defendatzailearekin izan dugun harreman etengabeari. Txosten honetan xehetasunez azaldu dugun moduan (Errusiaren inbasioaren testuinguruan Ukrainatik etorri diren haur eta nerabeei buruzko 2.8.2 atalean), erakunde hau ENOCen parte izateak berekin ekarri du haur horiek Euskadin duten egoerari buruzko txostenak idaztea eta egoera horiei jarraipena egitea, baita kudeaketa jakin batzuk (adibidez, hezkuntza-arretaren jarraipena) errazteko orientabideak hedatzea ere, edota sareak haur eta nerabe ukrainarren eskubideak haien herrialdean nahiz harrera-herrialdeetan bermatzeko egin dituen deialdietan eta gomendioetan parte hartzea.

Sarearen bidez, gainera, Europako eta nazioarteko hainbat organismoren gonbidapenak eta lankidetza-eskaerak iritsi zaizkigu, askotariko gaiei buruzkoak. Bada, Arartekoak horietako batzuetan parte hartzea erabaki du 2022an; hala nola, honako hauetan:

- ICRI ikerketa-taldearen kontsulta, haurren eskubideak babesten dituzten erakunde independenteei eta haien jarduerei buruzkoa; zehazki, haurrek ingurumen osasungarrirako duten eskubidearekin lotuta dauden jarduerei buruzkoa.
- EBren Haurren Eskubideei buruzko Estrategiaren aurkezpena (Batzordearen komunikazioa, 1. eranskina eta 2. eranskina), txosten honen 1. kapituluan aipaturikoa.
- *Advancing Child Rights Strategic Litigation* proiektuaren biltzarra, haurren eskubideak sustatzeko auzi estrategikoaren eremuan egiten diren jarduera onei buruzkoa.
- UNICEFek ENOCekin elkarlanean antolatutako ikastaro birtuala, haur eta nerabeen eskubideen gainean agintzen duten eta giza eskubideen alde egiten duten erakundeetarako trebatzaileentzat. Ikastaroaren bidez, defentsa-erakundeetan (tartean, Arartekoan) haurren inguruko gaietan adituak diren langileei prestakuntza eman nahi zitzaien, liderrak izan zitezen jasotako trebakuntza beren erakundeetara eramateko orduan.

IV

### 1.2. Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioa

2022ko azaroan, Mexiko Hiriko Giza Eskubideen Batzordean, Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (FIO) XXVII. Biltzar Nagusia eta XXVI. Kongresua egin ziren, honako izenburu honen pean: "*Los Organismos de Derechos Humanos y la garantía de derechos de las personas en desigualdad: Del enfoque de vulnerabilidad a la perspectiva de atención prioritaria*" (Giza eskubideen organismoak eta desberdinkeria-egoeran dauden pertsonen eskubideen bermea: zaurgarritasunaren ikuspegitik lehentasunezko arretaren ikuspegira). Ekitaldi horretan, Arartekoa erakundeak modu aktiboan hartu zuen parte, arartekoaren ondokoaren bitartez. Halaber, Haur eta Nerabeen Sarearen topaketan parte hartu zuen, Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak aurreko biltzarrean egin baitzuen bat sare horrekin.

### 1.3. Europako Kontseilua

Nazioarteko gatazkak baketzeko lan-eremuan, nabarmentzekoa da Arartekoa Europako Kontseiluarekin lankidetzan aritu dela Armenia eta Azerbaijan adiskidetzeko topaketa antolatzen. Topaketa hura 2022ko maiatzaren 16tik 18ra bitartean egin zen, Venezian, bi herrialdeetako gizarte zibileko bake-agenteen bi ordezkaritzarekin eta bi herrialdeetako herriaren defendatzaileen ordezkari banarekin.

Europako Kontseiluak adibideen bidez jarduten du Europako beste egoera gatazkatsu batzuetan, eta politikoa ez den plataforma bat eskaintzen du, adibide horiek haien egoeran nola aplika litezkeen eztabaidatzeko. Topaketa horretan, "Konfiantza sustatzeko neurriak, Armeniak eta Azerbaijanek elkarrizketa abiatu dezaten" izenekoan, Ararteko erakundeak azaldu zuen gazteak nola egon diren eta dauden sartuta Euskadiko adiskidetze-prozesuan. Beste aditu batzuk Balkanetan eta Irlandan izandako esperientziez mintzatu ziren.

### 1.4. Europaren Eguna: "Haz que se oiga tu voz / Zure ahotsa entzun dadila"

Nahiz eta nazioarteko sareetan izandako parte-hartzeari buruzkoa ez izan, ekimen honen berri emango dugu hemen; izan ere, oso izaera europazalea du, eta bere helburua da Europar Batasunak gazteentzat eskuragarri jartzen dituen partaidetza-baliabideak eta -kanalak hedatu eta baloratzea. Maiatzaren 9an, Europaren Eguna zela-eta, Arartekoak sentsibilizazioa lantzeko ekitaldi bat antolatu zuen, Europe Direct Bizkaiarekin, Bilboko Udalarekin eta Europa Euskadi Taldearekin batera. Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordearen deialdiari erantzunez, eta gazteriaren urte europarraren esparruan, EBren Oinarrizko Eskubideen Gutunari eta Europak gazteei eskaintzen dizkien aukerei buruz hausnartu zen ekitaldian.

## 2. Espainiako beste defendatzaile batzuekin lan egitea haur eta nerabeen eskubideen arloan

Espainiako beste defendatzaileekin ohiko moduan lan egiten dugu haur eta nerabeen eskubideei eragiten dieten gaietan, eta modu asko daude hori egiteko. 2022an, honako hauek izan dira beste defendatzaile batzuekin batera egindako jarduketa garrantzitsuenak:

- Justicia de Aragón erakundearen Haur eta Nerabeentzako Bulegoa aurkezteko ekitaldia.

## 3. Gizarte-eragileekiko lankidetza

Arartekoak eta, dagozkion kontuetan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak, bere ekintza-ildoen artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari, bai haur eta nerabeen eskubideak dibulgatuz edo defendatuz, eta bai, askotan, batez ere egoera ahulean dauden adingabeen sektoreentzat diren baliabide jakin batzuk kudeatuz.

Lankidetza-harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan eta abar.

Hona hemen gurekin harremanetan izan diren antolakundeak:

- Save the Children Euskadi: parte hartu genuen familia-harrerari buruzko, iragaitzazko haur eta nerabe atzerritarrei buruzko eta bizitoki-bazterketari buruzko azterlanetan eta Osasun Mentalaren Mundu Egunean antolatu zuen Instagram Live-n, haur eta gazteen osasun mentalari buruzkoan.
- Haurren Antolakundeen Plataforma: modu berezian, parte hartu genuen Haurren Eskubideen Batzordeari egin beharreko ekarpenak prestatzen, Espainiako Estatuak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa zein mailatan betetzen duen jakiteko jarraipen-prozedura sinplifikatuaren esparruan.
- Caritas Gipuzkoa: “Migrazioak ulertzen” eta “Hauskortasuna eta erresilentzia komunitarioak” jardunaldietan egon ginen.
- Hirukide - Euskadiko Familia Ugarien Federazioa, familia-antolakundeen eremuan.
- Landalan gizarteratzeko eta laneratzeko elkartea, babesgabe dauden haurrentzako egoitza-baliabideetara egindako bisiten esparruan.
- Agintzari gizarte-ekimeneko kooperatiba, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak eragindako profesionalak trebatzen laguntzeko.
- Harresiak Apurtuz, SOS Arrazakeria Gipuzkoa eta Islamaren Adiskideak, haur, nerabe eta gazte atzerritarrei eragiten dieten kontuetan.
- Diaconia elkartea, haur errefuxiatuen kasu baten harira.
- Euskal Herriko Pediatria Elkartea, Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorraren aurkezpena zela-eta: Euskadin haur eta nerabeen sexu-abusu eta -esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideak.
- FEDEAFES eta AVIFES, gaixotasun mentala duten pertsonekin lotutako antolakundeak biak: azken horrek antolatutako “Gazteak eta osasun mentala” jardunaldian parte hartu genuen.
- Euskal Gorrak, eragindako haurren erreklamazio bazuen testuinguruan.
- Motxiladun umeak, gurasoak espetxean dauzkaten haurren errealitatearen harira.
- Pantallas amigas: lankidetzan aritu ginen “Herritartasun digitala eta ikasleen parte-hartze aktiboa” jardunaldian.
- EDE fundazioa, SIIS - Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua (Eguia Careaga fundazioa) eta Dirdira, hainbat administrazio publikoren txostenak, diagnostikoak edo azterlanak egiteko lankidetza-testuinguruan.

## 4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetza

Modu berean, askotarikoak izan dira erakunde instituzionaletako eta/edo baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzan aritzeko guneak eta uneak. Honako hauek izan dira solaskide nagusiak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Saila.
- Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Haurren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Justizia Zuzendaritza.
- Berritzegune Nagusia. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.
- IHOBE. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Gizarte Inklusioa Sustatzeko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza.
- Hiru foru aldundien Gizarte Ekintza / Gizarte Politika / Gizarte Politiketako sailetako haurren zerbitzuetako arduradunak.
- Gasteizko Udala. Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua.
- Euskal Herriko Unibertsitatea: parte hartu dugu “Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza” graduondokoan.
- Deustuko Unibertsitatea. Gizarte Hezkuntza – Gizarte Lana gradu bikoitzeko praktiketako ikasleak (Psikologia eta Hezkuntzako Fakultatea).
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoa, jardunaldi honetan: “RD 903/2021. Reforma del reglamento de extranjería: ¿una ventana de oportunidades para menores y jóvenes extranjeros?” (Atzerritarren araudiaren erreforma. Aukera-leihoa ote bakarrik dauden adingabe eta gazteentzat?)

# 5. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren onarpena ospatzea

Nazio Batuen Batzar Nagusiak duela 33 urte onetsi zuen *Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa*; bada, urtemuga horren harira, Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluak Eusko Legebiltzarrera jo zuen, legebiltzarkideekin partekatzeko larrialdi klimatikoaren inguruan dituen kezkak eta urtean zehar gai horri buruz egin duen lanaren emaitza (ikusi III. kapitulua).

Ekitaldian, gainera, Arartekoak haurrei eta justizia klimatikoari buruz egindako Kolorea: lurra erreportajearen zatiak ikusi genituen. Erreportajean, justizia klimatikoari eta haurren eskubideei buruzko elkarrizketa kolektibo bat aurkezten da. Bada, elkarrizketa horrek dibulgazioko material gisa balio izatea da helburua, bai eta klima-aldaketari buruz eta haurren eta nerabeen eginkizunei nahiz haien eskubideak babesteko moduei buruz hausnartzeko gonbidapena izatea ere.

IV

# HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOAREN 2022KO JARDUKETEN LABURPENA

V.

kapitulua

# V. KAPITULUA

# HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOAREN 2022KO JARDUKETEN LABURPENA

Kapitulu honetan Arartekoak 2022an aztertutako arazoen eta egindako ekintzen laburpen bat egin da.

2022an, 571 kexa-espedientetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik %19,71tan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espedienteak (553): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espedienteak (18).

**Kexagileari** dagokionez, aurten, jasotako kexetatik bi bakarrik egin ditu adingabe batek. Gainontzeko kexak helduek egin dituzte eta neska-mutilengan eragina duten egoerak azaldu dizkigute.

Hizpide izandako gaien artean, aurten, hezkuntza-eremuari buruzkoak izan dira ugarienak (% 39,6), eta atzetik etorri dira, atzetik baina nahiko hurbil, haurren bizi-baldintza materialekin lotutakoak (% 31,2). Gainerako % 29tik, % 9k baino zertxobait gehiagok familiei laguntzeko politikekin izan dute zerikusia; % 6 inguruan kokatu dira babesgabe dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuei buruzkoak nahiz osasun-eremuari eta eremu soziosanitarioari buruzkoak, eta gainerakoak bakanagoak izan dira (kirola, justizia, presoak, segurtasuna, kutsadura akustikoa, atzerritartasuna...).

Ofizioz irekitako espedienteei dagokienez, gehienek (11) zerikusia dute Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorraren jarraipenarekin. Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko. Beste 3tan, haurren foru-zerbitzuek babesik gabeko haur eta nerabeei emandako arretaren bilakaera aztertzen jarraitu dugu, eta, beste batean, bakarrik dauden nerabe atzerritarrak hartzeko asmoz Kanariekin eta Ceutarekin lankidetza-protokoloak gauzatzea izan dugu aztergai. Beste espedienteetako batean, “Vivero” egoitza-baliabidean artatutako bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari buruz jardun dugu, eta beste bat Bizkaiko Foru Aldundiak baliabide horrexetan hartuta zeukan mutil bat Ibaizabal ibaian desagertu zela jakin zenean ireki zen. Azken espedientea udal batek ikastetxe bati emandako laguntzen gainekoa da.

Haurren eta nerabeen eskubideen inguruan dauden arazoak eta emandako erantzunak aztertuta, honako gai hauek nabarmendu behar ditugu:

## 1. Entzuna izateko eskubidea. Informazioa izateko eskubidea

Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

2022an, Kontseiluaren ohiko lan-dinamika berreskuratu da, aurreko bi urteetan COVID-19aren testuinguruan hartutako neurriek benetan baldintzatu ostean. Aurten, justizia klimatikoari eta haur eta nerabeen eskubideei buruz hausnartu dugu, eta gai horixe partekatu dugu Haurren Defendatzaileen Europako Sareko (ENOC) gainerako haurren defendatzaileekin, ENYA programaren esparruan. Kontseiluko ordezkariek aukera izan dute parte hartzeko propio antolatutako guneetan beren hausnarketa partekatzeko; batez ere, ENYA forumean (aurten, Arartekoak koordinatu du) eta ENOCen urteko biltzarrean (aurten, Reykjaviken egin da). Era berean, Kontseiluak Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran eman zuen bere ondorioen berri, Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Egunean (azaroaren 20an).

# 2. Bizi maila egokia izateko eskubidea

Hainbat azterlanetan egiaztatu ahal izan denez, prekarietate ekonomikoko egoerek epe labur, ertain eta luzeko eragina dute haurren bizi baldintzetan, beren bizi itxaropenetan eta garatu eta integratzeko aukeretan. Gure gizartean, gaur gaurkoz, oinordetza sozialak eragin oso handia du pertsona bakoitzaren aukeretan. Ondorioz, pertsonen bizi aukerak, funtsean, beren familiek haurrei beharrezko gaitasun ekonomiko, sozial, kultural, kognitibo eta harremanezkoa emateko duten gaitasunaren araberakoak dira. Gauzak horrela, egoera hori aldatzeko nolabait esku hartzen ez bada, pobrezia gurasoengandik seme-alabengana transmitituko da, oinordetza txar baten antzera, haurren eta nerabeen eskubideak larriki kaltetuz.

Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestaren datuek nabarmendu zutenez (datuak 2020koak dira, eta 2021ean argitaratu ziren), haurren pobreziaren intzidentzia gorabidean dago (% 10,7), baita desberdinkeriena ere, nahiz eta Euskadiko benetako pobreziaren tasa orokorrak murrizten egon (2018an, % 6,1; 2020an, % 5,6). Pobrezia hori, gainera, familia mota jakin batzuekin lotzen da argi eta garbi: pobrezia larria ia laukoiztu egiten da haurrak dauzkaten familietan, haurrik gabeko familiekin alderatuta, eta familia pobreen % 23 guraso bakarrekoak dira.

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailak emandako informazio eguneratuenaren arabera (2022ko abenduaren 31n eguneratu zuen), zeina diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBSE) jasotzen duten bizikidetza-unitateei buruzkoa baita, bizikidetza-unitateen ia % 25ek adingabeak dauzkate ardurapean. Bizikidetza-unitate horietan dauden haur eta nerabeak 20.158 dira; hau da, Euskadin erroldatuta dauden 19 urte baino gutxiagoko 400.000 biztanleen % 5,14. Azterlanek esaten duten moduan, diru-sarrerak bermatzeko sistemak kanpoan uzten baldin badu pobrezia-egoeran dauden familien heren bat inguru, zenbatetsi ahalko genuke Euskadiko 30.000 haur eta nerabe baino gehiago bizi direla prekarietate ekonomiko eta materialeko egoeran.

Herritarrek Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren inguruan jarri dituzten erreklamazioei dagokienez, aintzat hartuta sistema horren helburua dela pertsonen oinarrizko premiak asebetetzea, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) ezetsi, eten edo iraungi izanari buruzkoak dira jaso ditugun kexa gehienak, aurreko urteetan bezalaxe. Kexa horiekin batera, bizitzeko gutxieneko errentaren kudeaketa Euskadiri transferitu zaion urtean, prestazio horrekin lotutako kexek gora egin dute. Kexa horiek, gehienek behintzat, zerikusia izan dute errenta izapidetzean izandako atzerapenekin eta dokumentazio-errekerimenduari ez erantzuteagatik edo zaurgarritasun ekonomikoaren betekizuna egiaztatzeagatik prestazioa artxibatu izanarekin; izan ere, prestazioa eman ondoren egiaztatzen dute zaurgarritasun ekonomikoaren betekizuna, eta, ondorioz, bizitzeko gutxieneko errenta gisa emandako prestazioak itzuli behar izaten dituzte hartzaileek.

Halaber, herritar batzuek DSBEaren eta bizitzeko gutxieneko errentaren araudiari eta prestazio horien estaldurari buruzko kexak jarri dituzte, eta, kexa horien artean, nabarmendu egin behar ditugu, DSBEaren bizikidetza-unitate onuradun izateko betekizunak betetzen jarraitzen den kasuetan, bizitzeko gutxieneko errenta gisa jasotako prestazioak itzultzea eskatzearekin lotutakoak. Era berean, kexa batzuetan salatzen zenez, Lanbidek, transferentzia egin aurretik, ez zituen Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalera bidali bizitzeko gutxieneko errenta izapidetzeko eskaerak, eta, bizikidetza-unitateen ezaugarriengatik, bizitzeko gutxieneko errentan egokituko litzaiekeen zenbatekoa (bereziki, haurrak egoteagatik) handiagoa zen DSBE gisa jasotzen zutena baino.

Halere, nabarmendu egin behar dugu kexa-espediente ugari konpondu direla eta hainbat kontuk bilakaera ona izan dutela; hala nola, hauek: bizikidetza-unitatetzat jotzeko betekizunak, benetako bizilekuaren egiaztapena, lan-jarduera arrazoi ekonomikoengatik edo kontziliazioagatik borondatez uztearen justifikazioa edo genero-indarkeriaren biktimek elikagai-pentsioa ez eskatzea, oinarrizko gizarte-zerbitzu baten txostena egonez gero. Dena dela, desadostasunak daude oraindik ere pertsonen bermeetan eta eskubideetan eragiten duten gaien inguruan (Txosten Orokorrean xehetasunez azaltzen dira, dagokion kapituluan). Beste urte batez, berdin-berdin jarraitzen du herritarrei ematen zaien arretaren kalitatearen, dokumentazio-erregistroaren eta jakinarazpenen gaineko kezkak.

Save the Children antolakundeak kalkulatu egin du 2022an Euskadin seme-alabak hazteak zenbat balio duen: batez beste, 769 euroko gastua egin behar da seme edo alaba bakoitzeko, nahiz eta adinaren arabera aldaketak egon, eta etxebizitzarena da guztizkoaren gainean pisu gehien duen eta duela lau urte egindako kalkuluarekin alderatuta gehien igo den partida.

**Etxebizitza duin eta egokia** eskuratzeari dagokionez, jasotako erreklamazioek berriro azpimarratu dituzte azken urteetako txostenetan adierazitako gaiak: 1) etxebizitza duina, egokia eta ekonomikoki eskuragarria lortzeko arazoak, etxebizitzak ez gainditzearren familia-unitateko kide bakoitzeko 15m$^2$-ko ratioa; 2) seme-alabak dituzten familiek eskatutako babes publikoko araubideko etxebizitzen premiazkotasuna.

Horregatik, Arartekoak berriz eskatu nahi die euskal administrazio publikoei alokairu-araubidean eskuratu daitezkeen babes publikoko etxebizitzen parkea zabaldu dezala, bai Etxebizitzaren Legean ezarritako erronkei behar bezala aurre egiteko eta bai, aldi berean, denbora pasa ahala esleitutakoa baino etxebizitza handiago bat (edo konfigurazio desberdina duena) alokairuan hartu behar duten errentari publikoen eskaerei erantzuteko; hau da, “etxebizitza-ibilbideen” erregulazio berri bat egin behar da.

# 3. Hezkuntzarako eskubidea

2022an, nabarmendu egin behar dugu Eusko Legebiltzarrak Euskal Hezkuntza Eraldatzeko Oinarrien Akordioa onetsi duela. Hezkuntzari buruzko Lege berriaren eduki saihetsezinak eta ibilbide-orria finkatzeko dokumentu horrek adostasun-maila handia lortu badu ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Legearen aurreproiektuaren garapenean eta zehaztapenean ez zaio adostasun-maila horri eutsi, hezkuntzako eragileek alegazio ugari jarri baituzte eta eremu sozial eta politikoan eztabaida bizia sortu baita.

2022aren hasieran, kexa ugari jaso genituen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eta Osasun Sailak COVID-19aren kasu positiboak eta kasu susmagarriak kudeatzeko protokoloak ezarri zituztelako hezkuntza-eremuan; zehazki, maskararen erabilerari, bizikidetza-talde egonkorrei eta sintomarik gabeko ikasleen isolamenduari buruzkoak ziren kexak, kexagileek uste zutelako neurri horiek arazoak eragiten zituztela ikaskuntzan eta sozializazioan, familia-kontziliazioari eragiteaz gainera. Arazo horren aurrean sentikor, Arartekoak Osasun Sailari adierazi zion, pandemiaren bilakaerari erreparatuta, aukera egon zitekeela ezarritako estrategian aldaketak egiteko, eta, azkenean, martxoaren hasieran, halaxe egin zen.

Arartekoa gehien kezkatzen duten arrazoiek, alabaina, bere horretan jarraitzen dute, eta aurreko txostenetan aipatu ditugu dagoeneko. Lehenengoak zerikusia dauka Ordizia udalerriko segregazioarekin. Bada, gaurkotasun handiko kontua da hori, oso adierazgarria baita ikasle zaurgarriak edo hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dauzkaten ikasleak hobeto banatzearen inguruan sortu den eztabaidan. Antzeko zerbait gertatzen da itunpeko zentroak Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa deiturikoaren zati izateko betekizun zehatz eta egiaztagarriak zehazteko premiaz ohartarazten duten ahotsekin, kontuan hartuta hezkuntzako akordioan konpromisoak jasotzen direla irakaskuntzan kuotak modu irekian nahiz ezkutuan kobratzeko jarduera oro deuseztatzeko behar diren mekanismoak aktibatzeko.

2022an, norberaren izenean aritu diren familia batzuen eta gizarte-antolakunde baten kexak jaso ditugu, laikotasunean oinarritutako hezkuntza-proiektuak dauzkaten hezkuntza-zentro batzuek, beren ustez, jarrera oztopatzaileak dauzkatelako. Lege-aurreproiektuan ere gai hori jorratzen da, eta beharrezko kautelekin jaso beharko da, ikasleen erlijio-askatasuna bermatzeko.

Hizkuntza-ereduarekin lotutako kexak ere errepikakorrak dira erakundean, lege-aurreproiektua izapidetzean sortutako beste eztabaidagai bat izaki. Hala, beste urte batez, hezkuntza-eskaintzan A hizkuntza-eredua ez dagoela salatu duten familien eta interesdunen kexei erantzun behar izan diegu. Kexa horietatik harago, ordea, erakunde honek azpimarratu egin nahi du ezinegona sorrarazten duela euskal hezkuntza-sistemara duela gutxi sartu diren ikasleak D ereduko ikasgeletan matrikulatzeak, euskaraz trebetasunik ez duten eta adin bat duten ikasleak direnean. Pentsatu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetara sartzen direnengan. Erakunde honen ustez, ez dirudi baztertu beharko litzatekeenik beste hizkuntza-eredu batzuetako ikasgeletan matrikulatzetik hasi eta ikastetxeei baliabideak eta laguntzak ugaritzeraino doazen neurrien ezarpena berrikusi eta/edo indartzeko aukera, hezkuntza-zerbitzua modu egokian eman dadin, eragindakoen itxaropen akademikoei kalterik egin gabe.

Bizikidetza positiboari dagokionez, berdinen artean jazarpen-egoerak edo tratu txarrak jasan dituzten haurren familiek jarritako erreklamazioen harira, Arartekoak xehetasunez ezagutu ahal izan ditu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren baliabideak; gainera, baliteke hezkuntza-komunitateak baliabide horiek nahikoa ez ezagutzea edo, behintzat, baliabideon potentzialtasun guztiaren berri ez edukitzea. Ondorioz, erakunde honek Hezkuntza Sailari adierazi dio prestakuntza- eta hedapen-lanetan sakontzea komeni zaiola.

Hezkuntza-premia berezien eremuan, kexa puntualak jaso ditugu beharrezko baliabideak edo zerbitzu osagarriak (adibidez, hezkuntza-garraioa) eman ez direlako edo berandu eman direlako. Beste kexa batzuek zerikusia izan dute Lanbide Heziketan curriculuma dibertsifikatzeko programak jasotzearekin edo curriculum-egokitzapenak egitearekin, eta guztiak ebatzi dira kexagileen alde.

2022an, gai bati buruzko kexa ugari jaso ditugu, eta horregatik aipatuko ditugu. Batetik, Ibarrekolanda BHIko batxilergo artistikoko ikasgelak itxi eta beste toki batera eramatea zegoen aurreikusita, baina, azkenean, administrazioak atzera egin du, eta, bestetik, zentro publikoen barne-antolaketa berritzeko proiektuan (Hedatze proiektuan) parte hartzeko betekizunek ezinegona eragin dute.

# 4. Indarkeria eta tratu txar mota guztietatik babestua izateko eskubidea

Beste urte batez ere azaldu behar dugu kexa kopurua eta kexen gaiak ez direla asko aldatu aurreko urteekin alderatuz. Aurten ere ez da gomendiorik edo iradokizunik egin administrazio eskudunentzat eta erreklamazioetan aipatutakoentzat, baina, horrek ez du esan nahi ez direnik hainbat kudeaketa, kontsulta eta orientazioen muina izan.

Arlo honetan Arartekoan egiten diren kontsulten zio nagusietako bat, oraindik ere, honako hau da: foru-zerbitzuek seme-alaben babesgabetasuna baloratzeko espediente bat irekitzeak familietan sortzen dituen zalantzak eta ziurgabetasunak. Arartekoak, horrelako kontsultetan, babesgabetasuna baloratzeko prozesuaren ezaugarri nagusiei buruzko informazioa ematen die familiei, eta eskatzen die balorazioa egiten duten profesionalekin lankidetzan aritu daitezela, elkarrekin lor ditzaten seme-alabentzako beharrezko laguntzak eta ahalik eta ongizate handiena.

Beste herritar batzuek Arartekora jo dute, gizarte-zerbitzuak atzeratu egiten direlako babesgabetasun-balorazioa abiatzean edo familia-nukleorako nahiz familiako kideren batentzat aurreikusitako programaren edo laguntzaren bat aktibatzean. Beste batzuek, berriz, Arartekora jo dute, adierazteko ez zeudela ados babes-neurrien garapenarekin (adibidez, jatorrizko familiako kideren batekin egiten ziren bisitekin) edo seme-alabek behin baino gehiagotan egin zutelako ihes beren egoitza-baliabidetik. Kudeaketa batzuk eginda, erreklamazioak birbideratu ahal izan dira, eta kexagileen eta haurrak babesteko zerbitzuen arteko komunikazioa arindu da.

Seme-alabei babesgabetasuna deklaratu izanarekin, guraso-ahala eten izanarekin edo foru-erakundeak tutoretza bere gain hartu izanarekin ados ez daudela adierazteko jarri diren kexetan, kontuan hartuta Arartekoak ez dituela zalantzan jartzen berari ez dagozkion ezagutza-eremuetako edo diziplinetako txosten teknikoak, haurren zerbitzuei ahalik eta gehien laguntzera bideratzen ditugu kexagileak, neurria ondo garatu dadin, edota informazioa eskatzera eta ados ez daudela adieraztera edo hobetzeko proposamenak egitera animatzen ditugu, bai eta, hala egokituz gero, ebazpenari edo hartutako neurriei judizialki aurka egitera ere, epaitegietako talde psikosozialetako profesionalek beste balorazio bat egin dezaten.

2022an, ez dugu jaso adoptatutako haur eta nerabeei buruzko, adoptatu osteko jarraipenei buruzko edo adopziorako egokitasun-balorazioei buruzko kexarik. Gurasoen adostasunik gabeko banantzeekin lotutako kontsultek eta erreklamazioek, ordea, ez dute etenik, nahiz eta forma desberdinak izan. Batzuetan, kexaren muina izaten da gizarte-zerbitzuek –haien ustez– utzikeriaz jokatzen dutela egoera jorratzeko orduan eta, beraz, ez dutela esku hartzen seme-alabei kaltea saihesteko, edo esku-hartzeak ez direla eraginkorrak izaten. Beste batzuetan, berriz, gatazkan dauden aldeetako baten aldeko jarduera profesionalak salatzen dira; jarduera horiek esku-hartze soziohezitzailean nahiz prozedura judizialean agertzen dira, txostenen bidez. Gatazka, bestalde, askotariko eremuetan (hezkuntzan, osasunean, arlo judizialean eta abarretan) sortzen da. Arartekoak, beste urte batez, egiaztatu egin du zaila dela hain gatazkatsuak diren eta gizarte-zerbitzuetatik judizializatuta dauden kasu horiek jorratzea, gizarte-zerbitzuen esku jartzen baita pertsonen arteko gatazka bat konpontzeko ardura, tartean dauden aldeek gatazka jorratzeko borondate gutxi dutenean.

Familia-erreferenterik ez duten gazte atzerritarrek bultzatzen dituzten jarduketetan, oraindik ere, emantzipatzeko laguntzarik eza eta adin nagusikoak egin osteko etapetan izaten dituzten zailtasunak izaten dira jomuga. Adingabea izanik harrera-etapan administrazio-dokumentazioa izapidetzean atzeratzeagatik kexaren bat jaso badugu ere, sarriagoak dira banakako gizarte-arreta jasotzeko, bizileku bat eskuratzeko edo erroldatzeko zailtasunei buruzkoak. Bada, problematika horri erantzun nahi dio *Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030eko Euskal Estrategian* jasotzen den neurrietako batek (2022an onetsi zuten estrategia hori). Arartekoak, 2021ean, eremu horri buruzko analisia eta gomendioak aurkeztu zituen, eta interes handiz jarraituko ditu proposamen publiko horien emaitzak.

Txosten hau itxi den egunean, oraindik ere irekita jarraitzen dute Arartekoak 2022an bere ekimenez abiatutako bi jarduketak: Bizkaiko Foru Aldundiaren “Vivero” egoitza-baliabidean (Galdakao) ematen den arreta (egoitza-baliabide hori 2021eko abenduaren amaieran ireki zuten, premiaz, Zornotzako lehen harrerarako baliabidean sutea piztu zelako) eta adingabe aljeriarrek pasaportea eskuratzeko izaten dituzten zailtasun bereziak (Aljeriako erakunde homologo bati laguntza eskatu genion).

Haur eta nerabeen sexu-abusuko eta sexu-esplotazioko egoerei ematen zaien arretari buruzko kapituluan, 2021ean Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorra (kasu horietan jarduteko jarraibideei buruzkoa) onetsi ondoren, 2022an, gomendio horretan jasotzen diren proposamenak (adibidez, beren eskumen-eremuan jarraibideak hedatu eta aplikatzea, profesionalak trebatu eta espezializatzea eta garatutako neurriak ebaluatzea) betetzeko abiatu diren jarduketen jarraipena egin dugu, bai eta, modu orokorragoan, kasuon tratamendua hobetzeko egin diren aurrerapenena ere. Jarduketa horien artean, erantzun integrala ematen duenez, Eusko Jaurlaritza gidatzen ari den Barnahus proiektua nabarmentzen da, zeina 2023rako martxan egotea aurreikusi baita.

Indarkeria matxistaren biktima diren haur eta nerabeei ematen zaien arretan, erakunde honek azken urteetan egindako lana azpimarratu behar dugu, bere helburua izan baita kontu hori modu sistemiko eta estrukturalean jorratzea eta horrek lagundu egin duelako indarkeria horren eraginpeko haur eta nerabeak honako arau hauetan sartu eta ikusgai egiten: *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legean* eta *EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioan* (2023ko lehenengo egunetan sinatu zen).

## 5. Familia izateko eskubidea

Aurreko urteekin alderatuta, familiei laguntzeko politiken inguruko kexak ez dira gehiegi aldatu.

Herritarrek, maiz, Arartekora jo dute, seme-alabak ardurapean edukitzeagatiko laguntza ekonomikoak nahiz kontziliaziorako laguntza ekonomikoak ezetsi ondoren jarritako gora jotzeko errekurtsoak ebazteko orduan asko atzeratzen direlako (batzuetan, urtebetez baino gehiagoz). Eskudun sailak arazoa justifikatzeko esan du errekurtso ugari aurkezten direla eta ez dagoela giza baliabide nahikorik guztiak ebazteko.

Era berean, erreklamazioen ehuneko handi batean, erreklamazioaren xede izan ez arren, laguntzen kudeaketa elektronikoarekin eta elkarreragingarritasunarekin loturiko arazoak bistaratu dira. Zailtasunak egon dira izapide digital praktikoan (jakinarazpenak deskargatu, dokumentuak erantsi, errekurtsoak aurkeztu) zein online izapidean (eta elkarreragingarritasunaren inplikazioak), eta agerian jarri da hobetzeko tarte handia dagoela oraindik, herritarrek izapide

elektronikoa aurrez aurreko izapidearekin parekatzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, ikusi denez, errekurtsoa eta kexa jaso dituzten ezespen-ebazpen batzuk, okerrak ez diren arren, laguntza eskuratu ahal izateko gutxieneko baldintzen aurretiazko lehen balorazio batekin ekidin ahalko ziratekeen.

Kontziliaziorako laguntza ekonomikoekin lotutako erreklamazioez gainera, aurreko edizioetan bezalaxe, herritarrek guraso-baimenen inguruko desadostasunak azaldu dituzte (jaiotza eta edoskitzea), eta, hazkuntzan laguntzeko neurri horien arauketa autonomia-eskumenetik harago doanez, euskal administrazio publikoen zerbitzura daudenen kasuak bakarrik izapidetu ditugu. Horien artean, haurrei gaixorik dauden egunetan arreta emateko zailtasunei buruzkoak nabarmentzen ditugu, ez dagoelako baimen espezifikorik horretarako. Arartekoaren ustez, araudia aldatuz edo negoziazio kolektiboaren bidez oratu beharko zaio gaiari.

Familia ugariek familia ugarien tituluaren izapidearekin arazoak dituztela adierazten jarraitzen dute, bai atzerapenak sortzen direlako, bai Euskadiko administrazioek beren interpretazioa egiten dutelako titulua kudeatzean, gurasoak bananduta badaude.

Gurasoak bananduta dauzkaten familien kasuan, nahiz eta aurrerapenak egin diren gizartean zein administrazioan, familia mota desberdinak gero eta normalizatuago baitaude, ez dira desagertu guraso bananduek seme-alabei buruzko datuak (administrazioaren esku daudenak) jasotzeko duten eskubidearen auziari buruzko kexak eta kontsultak. Kasu guztietan, kexa edo kontsulta izapidetzean konpondu da arazoa.

Amaitzeko, epaileak agindutako familia-elkarguneei dagokienez, zeinak, gure ustez, familiei laguntzeko eta seme-alabek banantze-testuinguru liskartsuetan bi gurasoekin harremana edukitzeko duten eskubidea betetzen laguntzeko baliabidea baitira, kexa ia guztiek zerikusia izan dute zerbitzu publiko horiek epaileei begira idazten dituzten txostenen edukiarekin. Aurreko urteetan bezala, Arartekoak honako hau adierazi die kexagileei: txosten horiek administrazio-organo batek eman baditu ere, txostenok eskatu dituen agintaritza judizialari dagokio txostenen baliozkotasunari eta koherentziari buruzko erabakia hartzea, eta, beraz, epaitegiak ebazten du bisitak familia-elkargunean egin behar direla, eta organo horri helarazten zaizkio txostenak, agintaritza judizialak balora ditzan.

## 6. Osasunerako eskubidea

2022an ere, eremu honetan jasotako kexa eta kontsulta gehienek lotura izan dute osasun-egoerarekin eta COVID-19aren pandemia dela-eta herritarrei ezarritako betebehar eta murrizketekin. Hezkuntza-sistemari buruz hitz egin dugunean azaldutakoez gainera, EBren COVID ziurtagiri digitalarekin lotutako erreklamazio-multzo handia jaso dugu; zehazki, diagnostikoa antigenoen testaren bidez egin ostean ziurtagiri hori lortzeko ezintasunari buruzkoak izan dira kexak. Pertsona horiei, Osakidetzak ezarritako protokoloari jarraikiz, antigenoen test positibo batekin bakarrik egin zieten diagnostikoa, PCR probarekin berretsi gabe, baina, suspertu ondorengo “Europako COVID pasaportea” lortzeko, PCR proba positiboa bakarrik onartzen zen. Beraz, pertsona horiek egoera konponezin batean zeuden, eta are gehiago, abenduaren 14ko 47/2021 Dekretua onetsitakoan pasaportea Euskadi osora zabaldu zenean. EBren erregelamendua aldatu zenean, ordea, arazoa konpondu egin zen, antigenoen proba azkarrak ere onartu baitziren ziurtagiriak emateko.

Pandemiaren ondorioz, euskal osasun-sisteman tentsioa sortu zen, eta, testuinguru hartan ere, kexak jaso genituen, baita kaltetutako haurrak hizpide zituztenak ere, bai aurretik programatutako hitzorduak bertan behera geratu zirelako, bai ebakuntzetarako itxarote-denborak luzatu zirelako. Kexa gehienak bideratuta geratu dira, izapidetu diren bitartean edo erakunde honek esku hartu ondoren.

Pandemiak eragindako salbuespenezko egoera alde batera utzita, beste urte batez kexak jasotzen jarraitu dugu, hasiera batean arretarik jaso ez zuten adingabeek osasun-arreta jasotzeko izandako zailtasunekin lotuta. Ikusirik kezka gehienak osasun-zentroetan osasun-arretako eskaerak kudeatu zituzten langileen informazio-faltarengatik zirela, guztiei irtenbidea eman zitzaien, modu partikularrean.

Osasun mentaleko arazoak dauzkaten haur eta nerabeei ematen zaien arreta ere aurten aurkeztutako erreklamazio batzuen xedea izan da, eta, hain zuzen ere, Arartekoak antolatutako udako ikastaroetan, gai hori jorratu zen. Kexa horien artean, paziente kronikoak Euskaditik kanpo dauden zentro espezializatuetara deribatzearekin lotutakoak nabarmentzen dira, gure lurraldean ez baitago horrelako zentrorik. Bada, elikadura-portaeraren nahasmendua duten gazte batzuen kasua izapidetu dugu, baita patologia mental larria duten bi nerabeena ere, zeinek, ospitaleko akutuen unitateetan tratatu ondoren, medikuen gomendioa baitzuten, egonaldi ertain-luzeko baliabideetan barneratzeko.

## 7. Umeen eskubideak justiziaren arloan

Jakina denez, Arartekoa, bere eskumen formalari ihes egiten dioten gai batzuetan, lankidetzan aritzen da operadore juridikoekin, herritarrei kalte erantsiak saiheste aldera. Auzibideen epeei, izapideen eta jarduketen atzerapenei eta justizia-administrazioaren funtzionamenduari buruzko kontsultak erakunde honek ebatzi ditu; batez ere, barruti judizialetako epaile dekanoekin lankidetzan arituta (epaile horiek beren prozedura baten bidez izapidetzen dituzte aipaturiko kexak eta kontsultak). Erregistro zibiletan izapideak egitearekin zerikusia duten kexak ere jaso ditugu; batzuek lotura izan dute aurretiko hitzordua eskatzeko sistemarekin, hitzorduak lortzeko zailtasunarekin eta epeetan izaten den atzerapenarekin. Kexetako batean, neska batek ezin zeza-

keen izena aldatu, eta horrek, aldi berean, galarazi egiten zion Osakidetzan osasun-arreta jasotzea.

Arartekoak gurasoak espetxean dituzten haur eta nerabeen inguruan egindako jarduketa aipatuko dugu hemen. Euskadiko espetxeen funtzionamenduaren gaineko eskumena Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatu osteko lehenengo ekitaldi osoan, gora egin dute presoek jarritako kexek eta kontsultek; kexa eta kontsulta horiek, batez ere, familia- eta bizikidetza-komunikazioekin eta zigorra Euskadiko espetxeetan betetzearekin zuten zerikusia. 2021ean, espetxeen kudeaketan haur eta nerabeen eskubideak eta haurren ikuspegia txertatzeko lan egin dugu (gaia berariaz jasotzen da Europako Kontseiluaren CM/REC (2018) 5 Gomendioan, gurasoak espetxean dituzten adingabeei buruzkoan), eta lan horrek bere emaitza izan du *Bizikidetza-komunikazioetara joan daitezkeen seme-alaben inguruko interpretazio erlatiboari buruzko informazio-zirkularrean*, Euskadiko espetxeetarako egindakoan. Zirkular horretan jasotzen denez, jurisprudentzia-irizpideetan eta nazioarteko estandarretan oinarrituta, gutxienez bi kasu hauetan baimendu behar da hamar urtetik gorako seme-alabek guraso espetxeratuekin bizikidetza-komunikazioak egitea: bizikidetza-komunikazioak 13 urtetik beherako seme-alabekin egiten direnean eta bizikidetza-komunikazioak adingabeko hainbat seme-alaba dauzkan familia-nukleoarekin egiten direnean, familiaren bizikidetza-lotura ez hausteko (bereziki, adingabeetako batek aurreko paragrafoan adierazten den adina bete aurretik komunikazio horiek egiten baldin baziren). Erreklamazio batzuek aldeko ebazpena izan dute zirkular berri hori onetsi ondoren.

V

## 8. Jolasteko, atseden hartzeko eta jarduera eta kirol jarduerak egiteko eskubideak

Haur eta nerabeen kirolari buruzko erreklamazio gehienek zerikusia dute aurreko txostenean jada aipatutako bi konturekin. Lehenengoa iazko txostenean aipatu genuen, COVID-19aren esparruan ezarritako murrizketekin baitzegoen lotuta. Bigarrenak urte gehiago daramatza txosten honen sekzio honetan, eta adin jakin batzuetan multikirola nahitaezkoa izatearekin dauka zerikusia.

## 9. Ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarrirako eskubidea

Nazio Batuen Biltzar Nagusiak, 2022ko uztailean, giza eskubidetzat jo zuen ingurumen osasungarrirako eskubidea. Hala, erakunde honen asmoa da haur eta nerabeen eskubideei gehien eragiten dieten arazoei jarraipena egitea eta, ondorioz, erreferentzia espezifiko bat sartzea Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren urteko txosten honetara.

Horri buruz aipatu behar dugun lehenengo jarduketan, haur eta nerabeen ingurumen-eskubideei buruz hausnartu dugu, Haurren Defendatzaileen Europako Sarean (ENOC); zehazki, hizketagai izan dugu krisi klimatikoak zenbateraino mehatxatzen (edo, zuzenean, urratzen) dituen haur eta nerabeen eskubideak eta interesak. Lan horretan, eginkizun nabarmena izan dute Arartekoaren Nerabeen Kontseiluko neska-mutilek, eta Eusko Legebiltzarrari aurkeztu diote lanaren emaitza, legebiltzarkideekin elkartzeko gune batean, Haurren Nazioarteko Egunaren harira.

# 10. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

Nahiz eta amaierarako utzi, ez dugu ahaztu behar diskriminaziorik ez jasateko eta aukera-berdintasuna izateko printzipioak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa ardazten duela, beste hiru printzipiorekin batera. Horrekin lotuta, interesgarria da adieraztea 2022aren erdialdean 15/2022 Legea onetsi zela, *Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integrala*. Lege horretan, aurreko erregulazioetan aintzat hartutako beste diskriminazio-iturri batzuekin batera, lehen aldiz jaso da adinean oinarritutako diskriminazioa, modu esplizituan jaso ere, nazioarteko tresna batzuk hartuz eta Espainiako sistema juridikoan txertatuz. Halaber, atal honen xederako, interesgarriak dira diskriminazio anizkoitzaren kontzeptua (lege horretan ezarritako bi arrazoi edo gehiago direla--eta aldi berean edo modu kontsekutiboan diskriminatzen denean norbait) eta diskriminazio intersekzionalaren kontzeptua (lege horretan ezarritako arrazoietako batzuk aldi berean agertzen direnean, edo elkarri eragiten diotenean eta, hala, diskriminazio forma berezi bat sortzen dutenean); izan ere, kontzeptu horiek modu bateratuan begiratzen diete haurren errealitateari (adina) eta gutxiengo etniko bateko kide izateari, jatorriari, desgaitasunari edo sexu-joerari, besteak beste. Nahiz eta ezin dezakegun beti diskriminazioaz hitz egin, terminoaren zentzurik hertsienean, beti ikusi ahalko ditugu aukera-berdintasuna zailtzen duten eta, ondorioz, haurren erabateko garapena eta ongizatea galarazten dituzten oztopo erantsiak.

Txosten Orokorraren atal batzuetan jasotako ondorioekin bat, kolektibo zaurgarri batzuen eskubideetan oinarritutako arreta baitute ardatz, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak ere esan nahi du desgaitasunen bat duten, jatorri atzerritarra duten, migratzaileak diren, ijito herrikoak diren edo LGTBI kolektibokoak diren haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko lan egin nahi badugu Euskadiko administrazio publikoek etengabe sartu beharko dutela diskriminaziorik ez jasateko printzipioa agenda instituzionalean, zeharka sartu ere, konstante bat izan dadin desgaitasunen bat dutenengan eragina izan dezaketen politika publiko guztiak betearaztean zein planifikatzean.

Horiek horrela, erabakigarria da administrazio publikoek gizartearen eraldaketa kulturala helburu duten sentsibilizazio-, sustapen- eta prestakuntza-jarduerak garatzea, aukera-berdintasuna eta bereizkeriarik eza oinarri hartuta, eta aukera ematea errealitate horien inguruko ezagutzan sakontzeko.